




2011

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA evaluación diagnóstica



EMAITZEN TXOSTENA ETA ALDAGAIEN AZTERKETA LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA INFORMATIKA GALA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIBERTSITADES E INVESTIGACIÓN



Argitaratzailea: ISEI-IVEI

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias, 9 -3
48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04
Info@isei-ivei.net
www.isei-ivei.net

2012ko maiatza

Txostena egin dutenak: Amaia Arregi Martínez, Eduardo Ubieta Muñuzuriren aholkularitza teknikoarekin eta ISEI-IVEIko zuzendaritza-taldearen berrikusketa eta onarpenarekin.

Ebaluazio diagnostikoko prozesuaren garapenean parte hartu dutenak: Alfonso Caño, koordinatzailea; Cristina Elorza, Arrate Egaña, Inmaculada Tambo, Araceli de Francisco, Esmeralda Alonso, Trini Rubio eta Jesús Grisaleña, itemak egitearen arduradunak; Berritzeguneko aholkulariak, itemen egileak; José Luis Tranche, estatistikako kalkuluak; Mikel Urkijo, informatika-aplikazioaren kontrola; Yolanda Méndez eta Araceli Angulo, proben aplikazio kontrola; Carmen Nuñez eta Jose Ramón Ugarriza, digitalizazioa.

Azaleko irudia: Alicia Sainz. *Y más...* 4. Mihisearen gaineko olio, teknika mistoa. 100x100.



AURKIBIDEA

1. Sarrera	7
a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak.....	7
b) Txostenaren helburua.....	8
c) Txostenaren edukia.....	9
2. Proben eta aplikazio-prozesuaren deskribapena	11
a) Aplikazio-prozesua.....	13
b) Populazioaren deskribapena.....	13
c) Probako hizkuntza.....	19
d) Errendimendu-proben deskribapena.....	19
e) Finkatutako gaitasun mailak.....	20
f) Ikaslearen galdera-sorta.....	21
g) Indize sozioekonomikoa eta kulturala.....	22
3. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ebaluazioko emaitzak	27
3.A. Ebaluatutako oinarrizko kompetentziak	29
• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	31
a) Emaitza orokorrak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.....	31
b) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak dimentsioen arabera.....	33
c) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak geruzen arabera.....	35
d) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	36
e) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak hizkuntza-ereduen arabera.....	37
f) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera.....	41
g) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	42
h) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduaren bilakaera (ED09-ED10-ED11).....	44
i) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren azterketatik eratorritako ondorioak.....	47
• Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	49
a) Emaitza orokorrak.....	50
b) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak dimentsioen arabera...	51
c) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak geruzen arabera.....	53
d) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	54
e) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera.....	56
f) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	57
g) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian lortutako eta esperotako emaitzen arteko alderaketa, ISEK-en arabera.....	58
h) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduan izan den bilakaera: ED09-ED10-ED11.....	59
i) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzien emaitzen azterketatik abiatutako ondorioak.....	61



• Matematikarako konpetentzia	63
a) Emaidza orokorrak.....	63
b) Emaidzak <i>Matematikarako konpetentziako</i> dimentsioen arabera.....	64
c) <i>Matematikarako konpetentziaren</i> emaidzak geruzen arabera.....	66
d) <i>Matematikarako konpetentziaren</i> emaidzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	68
e) <i>Matematikarako konpetentziako</i> emaidzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.....	69
f) <i>Matematikarako konpetentziako</i> emaidzak, indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	74
g) <i>Matematikarako konpetentzian</i> lortutako eta esperotako emaitzen arteko alderaketa, ISEKen arabera, geruzaka.....	75
h) <i>Matematikarako konpetentziaren</i> errendimenduaren bilakaera: ED09-ED10-ED11.....	76
i) <i>Matematikarako konpetentziako</i> emaitzen azterketatik ateratako ondorioak.....	79
• Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	81
a) Emaidza orokorrak.....	82
b) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako</i> dimentsioen arabeko emaidzak.....	84
c) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako</i> emaidzak geruzen arabera.....	85
d) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako</i> emaidzak dimentsioen eta geruzen arabera.....	86
e) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako</i> emaidzak hizkuntza-ereduen arabera.....	87
f) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren</i> emaidzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	88
g) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian</i> lortutako eta esperotako emaitzen alderaketa ISEK mailaren arabera.....	89
h) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren</i> emaidzak ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen arabera.....	90
i) <i>Ingeleseko eskolaz kanpoko jarduerak</i> eta ebaluatutako beste konpetentzia batzuetako emaidzak.....	91
j) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleen ISEK maila.....	92
k) <i>Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretan</i> parte hartzen duten ikasleen ehunekoa geruzen arabera.....	92
l) <i>Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren</i> azterketatik etorritako ondorioak.....	95
3.B. Geruzen ezaugarriak ISEKen arabera	97
a) A geruza publikoa.....	103
b) B geruza publikoa.....	107
c) D geruza publikoa.....	111
d) Itunpeko A geruza.....	115
e) Itunpeko B geruza.....	119
f) Itunpeko D geruza.....	123
4. Aldagaien azterketa Lehen Hezkuntzako 4. Mailako ikasleen emaitzetan duten eragina	127
a) Emaidzak ikasleen sexuaren arabera.....	131
ED09-ED10-ED11 ebaluazioetan emaitzen bilakaera sexuen arabera.....	132
b) Emaidzak ikasmailako adin-egokitasunaren arabera.....	135
Emaidzen bilakaera jaiotza-urtearen eta ikasmailaren arabera. ED09-ED10-ED11.....	137
c) Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza.....	139
d) Ikaslearen gurasoen ikasketa maila.....	145
e) Familiaren jatorria: atzerriko jatorria duten ikasleak.....	149
Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera.....	158
f) Ikaslearen aurreikuspen akademikoak.....	161
g) Lanerako ohiturak etxean.....	165



h) Korrelazioa Matematikan ikasgelan izandako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoko emaitzen artean.....	171
Ikasgelako kalifikazioa eta ebaluazioko puntuazioa geruzen arabera.....	172
Ikasleen banaketa ikasgelako kalifikazioaren eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioaren arabera.....	173
Ikasgelako kalifikazioaren eta ikasleak eskolatuta dauden taldearen arteko lotura.....	175
i) HPB-ak dituzten ikasleen deskribapen-azterketa.....	177
5. Ikastetxeen bilakaera emaitzen eta eraginkortasunaren arabera	183
5.1. Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeak.....	186
5.2. Eraginkorrak diren eta hain eraginkorrak ez diren ikastetxeak.....	188
5.3. Ikastetxeen bilakaera emaitzen eta eraginkortasunaren arabera.....	191
6. Emaitzetan izandako aldeak azaltzeko eredia	195
6.1. Emaitzen aldakortasunaren analisia: ikastetxeen arteko bariantza.....	197
6.2. Emaitzetan izandako aldeak azaltzeko eredia.....	199
7. Ikastetxearen galdera-sorta	205
7.1. Zuzendatiza-taldeek ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen arloari buruz duten pertzepzioa.....	207
7.2. Zuzendaritza-taldeek ikastetxeko elkarbizitza eta ikaskuntza arloei buruz duten pertzepzioa.....	209
8. Ondorio orokorrak	213





I. SARRERA

Hezkuntzaren 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta 175/2006 Dekretuak (2010eko martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak aldatu zuen), Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum auzartzen duenak, honako hau xedatzen dute: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek, funts publikoen bidez lagundutako ikastetxeetan eskolatutakoek, oinarrizko konpetentzien ebaluazio diagnostikoa egin behar dute.

Arau hori betez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 2008-09 ikasturtean hasi zen Ebaluazio diagnostikoa lehen aldiz aplikatzen: beraz hau 2011. urteari dagokion hirugarren edizioa da. Sailaren hiru zerbitzuek elkarrekin garatutako ebaluazioa da: Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (Berritzegune) elkarrekin garatutakoa.

Ez dago "oinarrizko konpetentzia" kontzeptuaren onarpen unibertsalik; hala ere, konpetentzia garrantzitsutzat, beharrezkutzat edo oinarrizkutzat hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onuragarriak direnak; beharrezko konpetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko lagun guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarreraren multzo" gisa ulertzeko adostasun komuna dago.

Ikuspegi honetatik, arlo edo jarduera batean trebea izateak esan nahi du gai izatea arlo horrekin lotutako egoera eta arazo jakin batzuei aurre egin ahal izateko ezagutza garrantzitsuak aktibatze eta erabiltze gai izatea esan nahi du. Hau da, ezagutzez gain, hauek egiteko konpetentzia duela esan nahi du: eskuratutako ikaskuntzak modu fidagarrian aukeratzeko eta aplikatzeko, egoera zehatzetan erabiltzeko eta bere esperientzia pertsonaletik eta heziketa-esperientziatik hurbil dauden egoeretan eta testuinguruan arazoak ebazteko.

Ebaluazio diagnostikoaren aurtengo edizioan (ED-2011), 2009ko eta 2010eko edizioetan ebaluatutako hiru oinarrizko konpetentziez gain, lehen aldiz, *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* txertatu da; horrek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* ordezkatzan du, eta horrek, era berean, 2008-2009 ikasturtean egindako *Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren inguruko kulturako konpetentziaren* ebaluazioa ordezkatu zuen.

a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak

Ikastetxetik **kanpoko ebaluazioa eta estandarizatua** da, eta horren ardura Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio.

Luzetarako ebaluazioa da eta ikasleen informazioa eskaintzen du derrigorrezko eskolatzeko aldiko bi mailatan: Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan. Horri esker, irakasleek bi momentu jakinetan ikasle bakoitzaren bilakaerari buruzko datuak eskura ditzakete.

Zentsuko ebaluazioa da; bertan, ikasle guztiek parte hartzen dute, funts publikoekin mantendutako Euskadiko ikastetxe guztietan aipatutako mailetan eskolatutakoak.



- **Helburu orokorrak:**

- Ikastetxeak bizitzarako noraino prestatzen duen baloratzea eta ikasleak gizarte modernoko herritar gisa duten rola beren gain hartzeko noraino prestatuta dauden baloratzea.
- Ikastetxeei hezkuntza-jarduera hobetzen laguntzea.
- Administrazioari hezkuntza-politika bideratzeko informazio baliagarria ematea.

- **Helburu zehatzak:**

- Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen hezkuntza-helburuen lorpen maila ezagutzea eta baloratzea.
- Hezkuntza-prozesuekin lotutako faktoreak eta aldagaiak, eta oinarrizko kompetentzien lorpenean eta garapenean eragiten duten testuinguruko faktoreak aztertzea.
- Ikastetxeei balio duten informazio nahikoa eta garrantzitsua eskaintzea, beharrezko neurriak eta programak antolatzen laguntzako, ikasleen arreta hobetzera eta egokiak diren oinarrizko kompetentziak lortzea bermatzera zuzenduta, eta, hala baldin badagokio, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak baloratu eta birbideratzetzeko.
- Ikastetxeetan gogoeta-prozesuak sustatzea, betiere, beren antolaketa-eraren, funtzionamenduaren eta emaitzen hobekuntzan erantzukizunak baloratu eta beren gain har ditzaten.
- Hezkuntza-administrazioari beharrezko informazioa, objektiboa eta garrantzitsua eskaintzea, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzera zuzendutako erabakiak hartu ahal izateko.
- Familiei semearen edo alabaren kompetentzien lorpen mailaren inguruko informazio garrantzitsua ematea.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztien eta Euskadiko ikasleen errendimendua hobetzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza zerbitzuen ahaleginen lankidetzeta eta integrazioa bultzatzea ikasleen errendimendua hobetzeko.

Ikastetxeetako emaitzen informazioak hiru zehaztapan maila ditu: **ikastetxearen datu orokorrak** ebaluatutako bi maila horietako bakoitzean, ikasmaila bakoitza osatzen duten **taldeen** datuak eta talde bakoitzeko ikasle guztien **banakako** datuak. Familia bakoitzak, ikastetxearen bidez, seme-alaben inguruko banakako txostena jasoko du.

b) Txostenaren helburua

Txosten honen azken helburua ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila osatzen duten talde bakoitzean lortutako emaitzei buruzko informazioa osatzea da. Azterketaren emaitzen azterketa zehatzagoa jarri nahi da ikastetxeen eskura, betiere, irakasleek, hezkuntza eskuhartzean, **HOBEKUNTZA** neurriak ezarri ahal izateko beste datu objektibo batzuk izan ditzaten.



c) Txostenaren edukia

Txosten honek, ebaluatutako konpetentzietan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasleek lortutako emaitzen azterketa biltzen du, baita banakako edo testuinguruko zenbait aldagaik emaitza horietan duten eragina ere. Ebaluazio diagnostikoaren hirugarren edizioa denez, egonkor mantentzen diren hiru konpetentzietan emaitzen bilakaera ikusteko aukera ematen duen konparaziozko azterketa ere egin daiteke.

Informazioa atal hauetan egituratzen da:

- Ebaluatutako oinarrizko konpetentzia bakoitzaren emaitzak.
 - Konpetentzia bakoitzaren batez besteko puntuazioa.
 - Ikasleak konpetentzia mailen arabera banatzea.
 - 2009, 2010 eta 2011 urteetako ebaluazioetan emaitzek izan duten bilakaera.
- Geruzen emaitzak eta ezaugarriak ISEK-en arabera.
- Emaitzetan eragin berezia duten aldagaien azterketa.
- Ikastetxeen emaitzen bilakaera.
- Emaitzetako aldean azalpen-eredua.
- Ikastetxeetako galdetegian bildutako aldagaiei buruzko informazioa.





2. PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA





2. PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

a) Aplikazio-prozesua

➤ Proben aplikazio pilotua

Probetako itemak konpetentzia bakoitzeko adituen taldeak prestatu zituen eta ISEI-IVEI arduratu zen koordinazio-lanez. Item horiek modu esperimentalean probatu ziren, ikasleen nahiko lagin adierazgarri bati aplikatuz. Item berrien aplikazio pilotua probak aplikatu ziren egunetan egin zen.

Proba pilotu horiek itemen kalitatea egiaztatu zuten ikasleen jardueraren maila ugariak behar bezala neurtu ahal izateko; hau da, itemen zailtasun maila zein item irekitako zuzenketa-irizpideen sendotasuna egiaztatu zituzten. Proba pilotuen emaitzen bidez, behin betiko proban sartu ziren itemak aukeratu ahal izan ziren.

➤ 2011ko ebaluazioa aplikatzeko erabilitako prozedura

Aplikazioa Lehen Hezkuntzan 2011ko martxoaren 7 eta 25 artean egin zen eta ikastetxetik kanpoko langileen esku egon zen. Kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena izan zen. Galdetegiak on line bete behar ziren.

Ikastetxeetan probak bi egun jarraian aplikatu zituzten. Horien iraupena, gutxi gorabehera, egunean hiru ordukoa izan zen guztira. Egun haietako bakoitzean, ikasleek errendimenduko bi probari erantzun zieten. Konpetentzia jakin baten inguruko proba batetik bestera 20 minutuko atsedendia izan zuten. *Euskarazko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari* dagozkion bi probak egun ezberdinetan egin zituzten. Finean ikastetxeek erabaki zuten ikasleen alor pertsonalei, familiarrei eta eskolarrei buruzko galdetegiak betetzeko unea.

Ebaluatutako oinarrizko konpetentziak	Proben iraupena	
<i>Hizkuntza-konpetentzia</i>	<i>Euskara</i>	65 minutu
	<i>Gaztelania</i>	65 minutu
	<i>Ingelesa</i>	65 minutu
<i>Matematikarako konpetentzia</i>		45 minutu

* Denbora-tarte horretan, hizkuntza-komunikaziorako hiru dimentsioei dagozkien probak egin zituzten: irakurmena eta idazmena, eta entzumena.

Ikasmaita bera osatzen zuten ikastetxeko talde guztiek probak egun, baldintza eta ordutegi beretan egin zituzten. Ikastetxe baitako ebaluaziorako barneko euskarri gisa, Zuzendaritzak, Ebaluazio diagnostikoa egiteko Koordinazio Batzordearen bidez, aplikazioa garatzen lagundu eta jarduna erraztu zuen.

b) Populazioaren deskribapena

Euskadiko ebaluazio diagnostikoan, funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan eskolatutako **Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek** parte hartu zuten (jabetza publikokoak eta itunpekoak). Hauxe izan da ebaluazioaren hiru edizioetako biztanleriaren banaketa:



	Lehen Hezkuntzako 4. maila		
	ED09	ED10	ED11
Ikastetxe kopurua	518	522	524
Talde kopurua	964	982	988
Ikasle kopurua	18.236	19.036	19.254


➤ Ikastetxe kopurua

Jarraian ageri diren tauletan, ikastetxe kopurua ikus dezakegu ebaluazioan esku hartu zutenean indarrean zuten edo zituzten hizkuntza-ereduen arabera:

Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2011					
Ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak					
Eredu 1 duten ikastetxeak	%	2 eredu dituzten ikastetxeak	%	3 eredu dituzten ikastetxeak	%
446	85,1	75	14,3	3	0,6
Guztira, 524					

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 2011ko ebaluazioan, ikastetxeen % 85ek (446 ikastetxe) hizkuntza-eredu bakarra dute (A eredu, 31 ikastetxe; B, 103 eta D, 312 ikastetxe); ikastetxeen % 14,3k (75 ikastetxe) bi eredutan eskaintzen dute irakaskuntza (A eta B 22 ikastetxetan; A eta D 4 ikastetxetan; eta B eta D 49 ikastetxetan) eta 3 ikastetxek soilik (% 1 baino gutxiagok) zituzten hiru ereduak indarrean (A, B eta D).

I. grafikoa. ED11-LH4. Ikastetxeen ehunekoak hizkuntza ereduaren arabera




- **Ikastetxeen ehunekoaren bilakaera eskaintzen duten hizkuntza ereduaren arabera**

Ebaluazio diagnostikoaren bidez datuak biltzen diren hiru urteetan, hizkuntza-eredu bakar bat duten ikastetxeen kopuruak gora egin du pixkanaka. 2009. urteari dagokion % 81,7tik ED11 edizio honetako % 85era arte.



2. grafikoa. ED I I-LH4. Ikastetxeen ehunekoaren bilakaera hizkuntza eredu arabera




➤ **Talde kopurua**

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeetako talde kopurua ageri da hizkuntza-ereduen arabera:

Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2011					
Hizkuntza-eredu bakoitzeko talde kopurua					
A ereduak	%	B ereduak	%	D ereduak	%
73	7,4	271	27,4	644	65,2
Guztira: 988					

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 988 taldek hartu dute parte guztira; horien artetik, 73 dira A ereduak, hau da, guztizkoaren % 7,4; B eredutik, -271 talde-guztizkoaren % 27,4 dira. % 65,2 -644, guztira-, D hizkuntza-ereduko taldeak dira.


3. grafikoa . ED I I-LH4. Hizkuntza-eredu bakoitzeko ikastalde ehunekoa





- **Taldeen ehunekoaren bilakaera hizkuntza-ereduen arabera**


Orain arte egindako hiru ebaluazioak alderatuz, 4. grafikoa, A eta B ereduiei dagozkienetan etengabeko murrizketa nabari da; beraz, D ereduko taldeen igoera ere nabari da, 2009an % 61,7 izatetik 2011n % 65,2 izatera pasatu baita.



- **Ikasleen ehunekoa geruzen arabera**

Euskadiko ikasleak hezkuntza-sistema osatzen duten sei geruzatan (sarea eta hizkuntza-eredua) banatzen dira, 5. grafikoa ageri den moduan.

5. grafikoa. EDI I-LH4. Ikasleen ehunekoa geruzen arabera



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle gehienak D geruza publikoan daude eskolatuta (% 41,6). Itunpeko B geruzak eta itunpeko D geruzak, bakoitzak, ikasleen % 22 du. A geruza publikoa (% 2,5)




eta A itunpekoa (% 5,1) dira 4. mailan ikasle kopuru gutxien dutenak; B geruza publikoa dator ondoren, ikasleen % 6,9rekin.

- **Geruza bakoitzak ED09-ED10-ED11 Ebaluazio diagnostikoetan dituen ehuneko enbilakaera**

Jarraian, geruza bakoitzak orain arte egindako hiru ebaluazioetan duen ehunekoa aztertzen da. Ehuneko horiek Lehen Hezkuntzako 4. mailari dagozkio.

6. grafikoa. LH4. ED09-ED10-ED11. Geruza bakoitzak ebaluazioetan dituen ehuneko enbilakaera.



6. grafikoan erakusten den moduan, A eta B eredu (publiko nahiz itundua) Lehen Hezkuntzako 4. mailan geruza bakoitzak duen ehunekoaren jaitsiera arina, urria baina jarraitua, nabari da; bestalde, bi sareetako D ereduaren igoera txikia ere ikus daiteke:

- 2009 eta 2011 artean, A geruza publikoak % 0,4ko jaitsiera izan du
- Itundutako A geruzak, lehen eta azken ebaluazioaren artean, % 0,9ko jaitsiera izan du
- B geruza publikoak % 0,5eko jaitsiera izan du
- Itundutako B geruzak % 1,3ko jaitsiera izan du
- D geruza publikoa da lehen ebaluaziotik hirugarren ebaluaziora ehuneko handiena irabazi duena, % 2,1eko igoerarekin
- Itundutako D geruzak % 1eko igoera izan du 2009tik.

➤ **Aplikazioan parte hartu duten ikasleak**

Jarraian, Euskadiko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailan matrikulatuta egon diren ikasleen inguruko datuak biltzen dituzten taulak ageri dira; beste nolabait esanda, maila horietan 2011. urteko Ebaluazio diagnostikoa egiteko zentsua osatu zuten ikasleak dira.

Zutabeetan ageri diren datuak ulertu ahal izateko, alderdi hauek zehaztuko ditugu:

- Ikasleak, guztira: Lehen Hezkuntzako 4. mailan bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua zehazten du. Datu horiek ikastetxeetako zuzendaritzek eman zituzten. (1. zutabea)
- Ikasleak, barnean sartuta: eskakizunak betetzen zituztelako hasiera batean probetan sartuta zeuden ikasleak ziren. (2. zutabea)



- Puntuazio gabeko ikasleak: probak egin behar zituzten ikasleak dira, baina ikastetxeko edo taldeko datu orokorren azterketa egiteko garaian haien emaitzak kontuan hartu ez direnak. Horretarako arrazoiak hauek izan daitezke: baloratutako arlo edo ikasgai zehatzean CEIren bat zuten, euskara salbuetsita zuten, edo nahiz eta probara joan ziren, maiz joaten ez direnen taldekoak ziren; etorkinak ziren urtebeteko eskolatzea baino gutxiagorekin, eta gainera, ez zuten aplikazio-hizkuntza ezagutzen; edo eskolatzearen osagarria zen programa bat ari ziren egiten. (3. zutabea)
- Aurkeztu ez diren ikasleak: proban sartuta dauden ikasleak dira; hori dela eta, ebaluazioa egin beharko zuketean, baina gorabehera ezberdinak direla eta, aplikazio-egunean ez ziren bertan izan. (4. zutabea)
- Proba egin eta puntuazioan sartu diren ikasleak: probak egin zituzten ikasleen behin betiko kopurua da. Haien puntuazioak kontuan hartu dira emaitza orokorretan. (5. eta 6. zutabeak)

Gutxi gorabehera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 97k egin zituen probak ebaluatutako kompetentzietan.

Probak egin dituzten ikasleak kompetentzien arabera

Lehen Hezkuntzako 4. maila	(1) Ikasleak, guztira	(2) Ikasleak barne	(3) Puntuazio gabeko ikasleak	(4) Aurkeztu ez diren ikasleak	(5) Proba egin eta puntuazioan sartu diren ikasleak	(6) Proba egin eta puntuazioan sartu diren ikasleen %
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	19.254	18.559	695	703	17.856	96,6
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>		18.834	420	835	17.999	96,6
<i>Matematikarako kompetentzia</i>		18.843	411	793	18.050	96,9
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>		18.888	366	815	18.073	96,8

2010-2011 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailan zeuden ikasleen kopurua 19.254koa zen, ikastetxeek emandako zerrenden arabera.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan oinarrizko lau kompetentzietako proba guztiak egin eta puntuazioa batez bestekorako kontuan izan zaien ikasleak 17.231 izan dira. Gutxienez lau probatako bat egin duten ikasleen kopurua 18.500ekoa izan da.

Txosten honetan, lau kompetentzia horietako bakoitzean emaitzen azterketa egiteko dagokion kompetentziaren proba egin zuten ikasleen kopurua hartu dugu erreferentziazat (5. zutabea). Ez dituzte kontuan hartu kompetentzia horretan puntuaziorik lortu ez duten ikasleak.

Indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaia kalkulatzeko, ikasleen galdera-sortan horri dagozkion itemak bete dituzten ikasleak hartu dira erreferentzia gisa.



c) Probako hizkuntza

Matematikarako konpetentziako proba euskaraz edo gaztelaniaz egin zitekeen. Ebaluazioko aurreko edizioetan bezala, erabaki hori ikastetxeen esku utzi zen; haiek erabaki zuten probetan erabili behar zuten hizkuntza etxeko hizkuntza edo heziketa-hizkuntza izango zen.

Heziketa-hizkuntza aukeratu zutenean, erabaki hori eredu bereko talde guztiei aplikatu zitzaien. Aldiz, familia-hizkuntza aukeratu zutenean, taldeko ikasle bakoitzaren egoera banaka aztertu zuten; hau da, talde beraren baitan, ikasle batzuek probak euskaraz egin zituzten hura zelako familia-hizkuntza, eta beste ikasle batzuek, aldiz, proba gaztelaniaz egin zuten arrazoi hori bera dela eta.

Euskarazko, Ingeleseko eta Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak zegokien hizkuntzan aplikatu eta erantzun zituzten.

Ikasleen galdera-sortak *Matematikarako konpetentziako* errendimendu-proban erabilitako irizpide berekin aplikatu zituzten.

2011ko Ebaluazio diagnostikoko probak egiteko Lehen Hezkuntzako 4. mailari dagozkion hizkuntza-eredu bakoitzean ikastetxeek aukeratu zuten hizkuntza –famiakoa edo heziketakoa- ageri da hurrengo taulan.

Matematikarako konpetentzian probako hizkuntzaren inguruko datuak ereduaren arabera

Probetarako aukeratutako hizkuntza	Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2011		
	Hizkuntza-ereduak		
	A eredia	B eredia	D eredia
Etxekoa	5	40	19
Irakas-hizkuntza	68	231	625
Guztira: 988 talde			

Lehen Hezkuntzako 4. mailako hiru eruedetako 64 taldetan, ikasleek ebaluazioa etxeko-hizkuntzan egitea erabaki zuten (euskaraz edo gaztelaniaz). Hiru eruedetako 924 taldek, aldiz, probak irakas-hizkuntzan egin zituzten. Hau da, talde guztien % 6,5ek proba familia-hizkuntzan egin zuten; aldiz, % 93,5ek konpetentzia horiekin lotutako ikasgaietako heziketa-hizkuntza aukeratu zuten. Ikastetxeek erabaki hori eredu osorako hartu zuten; hori zela eta, ikastetxe hartako eredu bereko talde guztiek bete behar zuten.

d) Errendimendu-proben deskribapena

2011. urteari dagokion Ebaluazio diagnostikoaren helburua 175/2007 Dekretuan zehaztutako lau konpetentzia neurtzea da. Edizio honetan konpetentzia hauek ebaluatu ziren:

- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.*
- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.*
- *Matematikarako konpetentzia.*
- *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.*

Lehen hiru horiek ikasturte guztietan ebaluatzen dira, baina laugarren lekuan dagoena aldatu egiten da urtero. 2011. urtean, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia Ingeleseko hizkuntza-*



komunikaziorako kompetentziak ordezkatu zuten; horren proba pilotua ikasleen lagin batekin egin zuten 2010eko ebaluazioa aplikatzen zuten bitartean.

Ebaluatutako lau kompetentzia horietako bakoitza neurtzeko erabili zuten itemen kopurua taula honetan erakusten da:

Kompetentziak	Dimentsioak	LH 4 - ED 2011
		Item kopurua
Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Entzumena	20
	Irakurmena eta idazmena	22
Gaztelania hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Entzumena	22
	Irakurmena eta idazmena	23
Matematikarako kompetentzia	Kopurua	8
	Espazioa eta forma	5
	Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna	4
	Problemen ebazpena	7
Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Entzumena	17
	Irakurmena eta idazmena	20

Proba horietan, lau erantzun mota eskaintzen zituzten itemak ageri ziren:

- Erantzun itxiaren itema aukera anitzeko formatuarekin. Bakarra hautatzeko hainbat aukera eskaintzen du.
- Item erdi-itxia. Bi proposamenen artean, aukera bakarra hautatu behar da.
- Egoizpen laburreko itema. Erantzun laburra, marrazkia, matematikako eragiketa bat, hutsunea betetzea eta abar eskatzen du.
- Item irekia. Erantzunen aukera zabala onartzen dute eta zuzentzeko garaian subjektibotasunak saihesti ahal izateko, horretarako irizpide argiak prestatu eta zereginerako hainbat maila finkatzen da.

Kompetentzia guztietan, erantzun gehienak aukera anitzekoak ziren. Urriagoak ziren erantzun erdi-itxiak edo ekoizpen laburrekoak, eta *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* probetan soilik zegoen idazmenaren luzeko erantzuna eskatzen zuten item irekia (Lehen Hezkuntzaren kasuan, 60 hitz), ingelesezko kasuan izan ezik, 30 eta 40 hitz artean behar baitziren.

Lehen bi item mota horiek aplikazio informatikoaren bidez zuzendu zituzten. Aplikazio hark aukera zuzenari zegokion puntuazioa ematen zuen. Azken bi itemak, aldiz, helburu horietarako kontratatutako eta prestakuntza espezifikoak zuten langileek zuzendu zituzten. Kasu horietan, gainera, ISEI-IVEIk jarraipen-lana egin zuten zuzenketen artean egon zitezkeen desadostasun mailak ekiditeko edo ahalik eta gehien murrizteko.

e) Finkatutako gaitasun mailak

Emaitzak kompetentziarekin lotutako hiru mailatan antolatuta aurkeztu dituzte: Hasierako maila, erdi maila eta maila aurreratua. Maila horietako bakoitza ikasleek probetan proposatutako egoerak ebatzi ahal ditzaten behar dituzten ezagutzen, trebezien eta gaitasunen arabera zehaztu dute, eta proba bakoitza puntuazio-tarteen arabera zehaztuta dago.



Hiru gaitasun maila daude zehaztuta:

- **Hasierako maila.** Era ugaritako ikasleak biltzen ditu: dagokion hezkuntza-ziklokoak diren trebeziak eta edukiak ikasten hasi direnak zein laguntza pixka batekin, erdi-mailari dagozkion eskakizunei aurre egiteko gai izan litezkeenak.
- **Erdi-maila.** Ikasleen ehuneko handiak eskura ditzakeen trebeziak jasotzen ditu. Ebaluatutako kompetentzia bakoitzeko zailtasun ertaineko trebeziak eta edukiak jasotzen ditu.
- **Maila aurreratuak,** aldiz, probetan ebaluatutako trebezia eta eduki konplexuenak jasotzen ditu. Maila honetan, duela gutxi ikasketa horiek menderatzeko prozesua sendotu duten ikasleak eta, batera, maila horretan erabat finkatuta dauden beste batzuk egon daitezke.

Kompetentzia bakoitzaren baitan errendimenduko mailak ezarri ahal izateko, aurretik helburu berarekin nazioarteko beste ebaluazio batzuetan erabili izan duten prozedura estandarizatu erabili dute. Maila bakoitzerako *mugak edo ebaketa-puntuak identifikatzeko* prozesu horretan probak prestatzen parte hartu zuten profesional guztiek parte hartu dute: ISEI-IVEIko teknikariak, Hezkuntza Ikuskaritzakoak, prestakuntza arloko aholkulariak eta maila ugaritako irakasleak. Horiez gain, prozesuan parte hartzera espresuki gonbidatutako beste irakasle batzuek ere esku hartu dute. Ebaluatutako kompetentzia berariezko bi ebaketa-puntu finkatu dituzte. Horiei esker, lorpeneko edo erdiespeneko hiru maila identifika ditzakegu: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratu (ikus kompetentzia edota ebaluatutako dimentsio bakoitzeko errendimendu mailen deskribapen-taulak).

➤ **Kompetentziak nola neurtu diren**

Emaitzak puntuazio-eskalaren bidez neurtzen dira. Tresna horri esker, balio numeriko bat esleitu eta ikasleen kompetentzia mailak bereiz daitezke. Puntuazio-eskala horren garrantzizko ezaugarria ez da Komunitatearen batez bestekoari esleitu zaion balio espezifikoa, baizik eta ikasleen, taldeen eta ikastetxeen emaitzak kokatzeko (gorantz edo beherantz) erabili beharko litzatekeen marka finkatzeko aukera eskaintzen duela.

2009ko ebaluazio diagnostikoaren batez besteko puntuazioa 250 puntutan ezarri zen, 50eko desbideratze tipikoarekin. Edizio honetan, batez besteko hori mantendu egiten da lehen aldiz ebaluatu den *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziarako*. Lehen ebaluazioan ezarritako 250 puntuek kompetentzia bakoitzean segidako edizioetan lortutako batez bestekoak baloratzeko erreferentzia gisa balio dute.

f) Ikaslearen galdera-sorta

Errendimendu-probez gain, ikasleek familiari buruzko galdera-sorta bat ere bete zuten on line. Beste galdera batzuek jatorria, etxeko hizkuntza... ezagutzeko aukera ematen dute. Era berean, ikastetxez kanpoko alderdiak, ikastetxeari buruzko alderdiak eta ikastetxearekin lotutako gaiak aztertu ziren.

Ikerketa eta azterketa ugarik agerian utzi duenez, aldagai horietako askok eragina izaten du ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuan. Hori dela eta, bildutako informaziotik abiatuta, eta emaitzekin elkarren arteko korrelazioak ezartzeko helburuarekin, hainbat aldagai ezarri dira txosten honetarako: sexua, ikasmalarekiko adin-egokitasuna, eskolatzearen hasiera-adina, ikasleen jatorria, hizkuntzak emaitzetan duen eragina eta abar.



g) Indize sozioekonomiko eta kulturala

Indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) kalkulatzeko informazioa ikasleek galdera-sortan emandako erantzunetatik jasotzen da. Indize honetan honako arloak barne hartzen dira: familiako maila profesionala, familiako ikasketen gehieneko mailarekin eta alde zuzenetik oso garrantzitsutzat jotako ondasun materialak eta kulturalak (etxean dagoen liburu kopurua, eguneko prentsa eta aldizkari espezializatuak irakurtzea, eta ordenagailua eta Interneteko sarbidea izatea) edukitzea.


Banakako datuetatik abiatuta kalkulatu da ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez bestekoa. Balio horrek "0" hartzen du oinarritzat –Autonomia Erkidegoko batez bestekoa–, eta "1"eko desbideratze tipikoa du. Populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.

Kontuan izan behar da maila horiek ez direla absolutuak, konparagarriak baizik, hezkuntza etapa bakoitzean ebaluatutako ikasleen populazioaren barruan. Hori dela eta, baliteke ikastetxe bat, ebaluatutako bi irakasmilak baldin baditu, irakasmila bakoitzean ISEK maila ezberdin batean egotea; izan ere, datuak ebaluatutako irakasmilako ikasleei buruzkoak dira, ez ikastetxe osoko ikasleei buruzkoak. Beraz, ikastetxeko ISEK indizea aipatzen denean, Lehen Hezkuntzako 4. mailan ebaluatutako ikastaldeetako ikasleen batez besteko ISEK indizea ulertu behar da.

2011ko Ebaluazio diagnostikoan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen lau ISEK mailen balioak honako hauek dira:

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ISEK indizearen balio-tartea ED 2011			
ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-3,53	1,75	-0,87
Ertain-baxua	-3,53	2,06	-0,26
Ertain-altua	-3,53	2,06	0,02
Altua	-2,91	2,06	0,58


7. grafikoa . ED11-LH4. Ikasleen ISEK indizearen balio-tartea ED2011





8. grafikoan ISEK maila desberdinen balioak aldera daitezke orain arte egindako hiru ebaluazioetan. Ikus daitekeen moduan, 2010ean, ISEK mailek gorakada nabaritu zuten aurreko edizioarekin alderatuta; hala eta guztiz ere, 2011n, jaitsi egin dira ostera ere, ebaluazioko lehen edizioko puntuazioetara iristen ez diren arren, maila ertain-altuan izan ezik, 0,02rekin.

8. grafikoa. ED11-LH4. Indize sozioekonomiko eta kulturalaren balioak. ED09-ED10-ED11



Taula honetan, ebaluazioan kontuan hartu diren sei geruzetako bakoitzean ikastetxeko ISEK indizearen batez besteko balioa ageri da¹.

Geruza	Ikastetxeko ISEK indizearen batez besteko balioa		Geruza bakoitzak 2011 aplikazioan duen ehunekoa	Geruza bakoitzak bere hezkuntza-sarearen baitan duen ehunekoa	
A publikoa	-1,45	Baxua	2,5	4,9	Sare publikoa % 51
B publikoa	-0,52	Baxua	6,9	13,5	
D publikoa	-0,15	Ertain-baxua	41,6	81,6	
Itunpeko A	0,59	Altua	5,1	10,4	Itunpeko sarea % 49
Itunpeko B	0,19	Ertain-altua	22,0	44,9	
Itunpeko D	0,27	Altua	21,9	44,7	

Itunpeko sareko A eta D ereduak ikastetxeko ISEK maila altuan kokatzen dira. Itunpeko B geruza maila ertain-altuan dago.

A eta B eredu publikoek ISEK maila baxua dute eta D publikoak maila ertain-baxua.

Sare publikoko ikasleak Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 51 dira. Bestalde, ikus daitekeen moduan, D ereduan dago eskolatuta sare publikoko Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ia % 82.

¹ Geruza bat ISEK maila jakin batean egoteak ez du esan nahi geruza horretako ikastetxe guztiek derrigorrean ISEK maila hori izan behar dutenik. Gainera, datuak behar bezala baloratzeko oso garrantzitsua da geruza bakoitzak 2011ko aplikazioan eta bere hezkuntza-sarearen barnean nolako pisua duen (ikastetxeen ehunekoa) kontuan izatea, ikasleen galdetegian bildutako datuen arabera.



Itunpeko sarean, B eta D ereduetan eskolatutako ikasleen ehunekoa guztizkoaren ia % 90 da. Bi ereduaren arteko banaketa ia-ia berdina da.

Hurrengo taulan, ebaluazio honetako geruza bakoitzean, 2011. urtean, eta 2010 eta 2009ko urteetan Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikastetxeko batez besteko ISEK-en balioa erakusten da.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeetako batez besteko ISEK balioa, geruzen arabera.
ED09-ED10-ED11 bilakaera.


Geruzak	ED 2011		ED 2010		ED 2009	
A Publikoa	-1,45	Baxua	-1,35	Baxua	-1,03	Baxua
B Publikoa	-0,52	Baxua	-0,48	Ertain-baxua	-0,46	Ertain-baxua
D Publikoa	-0,15	Ertain-baxua	-0,14	Ertain-altua	-0,13	Ertain-altua
Itunpeko A	0,59	Altua	0,62	Altua	0,53	Altua
Itunpeko B	0,19	Ertain-altua	0,19	Ertain-altua	0,16	Ertain-altua
Itunpeko D	0,27	Altua	0,23	Altua	0,21	Altua

2009 eta 2010eko aplikazioan gertatu zen moduan, A geruza publikoak eta itunpeko hirurek maila berberak dituzte. Hala eta guztiz ere, aurreko bi ebaluaziotan maila ertain-altua zuen B geruza publikoa oraingoan maila baxuan kokatzen da, eta D publikoak ertain-altua zuen aurreko edizioetan eta 2011n maila ertain-baxuan kokatzen da.

Ebaluazioaren lehen bi urteetan balioak aldatu ziren arren, geruza bakoitzak maila berberetan mantentzen ziren. Hala eta guztiz ere, 2011ko Ebaluazio diagnostikoarekin alderatuta, honako hau nabari da:

- B geruza publikoan ISEK maila ertain-baxutik baxura jaitsi da.
- D geruza publikoa maila ertain-altutik ertain-baxura jaitsi da.

9. grafikoa. LH4. Ikastetxeetako batez besteko ISEK balioa geruzen arabera.
ED09-ED10-ED11






- **Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera**

10. grafikoa, lau ISEK mailatako bakoitzean kokatzen den ikasleen ehunekoa erakusten da:

- A geruza publikoan, ikasleen % 83 baino gehiago ISEKen maila baxuenean dago kokatuta.
- Itunpeko A geruzan, % 5,1 soilik dago maila honetan kokatuta eta % 77,5 maila altuan dago.
- Itunpeko geruzak dira ISEK maila altuan ehuneko altuenak dituztenak.
- Itunpeko D geruzak ikasleen % 1,2 du maila baxuan, maila honetan ehunekorik baxuena duen geruza da.

10. grafikoa. ED11-LH4. Geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera







3. LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO IKASLEEN EBALUAZIOKO EMAITZAK





3. A. EBALUATUTAKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK





EUSKARAZKO HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Definizioa

Hizkuntza euskaraz erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak ahozko zein idatzizko diskurtsoen bidez adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna eta, baita ere, gizarte eta kultura testuinguru posible guztietan hizkuntzaren bidez elkarrengaitzekoa.

Egitura

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta eta bost horietatik hurrengo hiru hauek ebaluatu dira:

- **Irakurmena euskaraz**

Askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai diren, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituzten, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituzten baloratzeko.

- **Entzumena euskaraz**

Ahozko testuei buruzko galderen bidez ebaluatu da eta hurrengo hauetarako gaitasuna neurtu da: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko gaitasuna.

- **Idazmena euskaraz**

Euskarazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira.

Dimentsio hori baloratzeko, LH 4ko ikasleei 60 hitzeko idazlana eskatu zitzaizen. 12 hitzetik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek baloratu dira:

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.
- Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.
- Oraingo Ebaluazio diagnostikoan ebaluatu ez diren dimentsioak hauek dira: mintzamina eta ahozko elkarrekintza.

a) Emaitza orokorrak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen batez besteko emaitza 256 puntukoa izan da, Ebaluazio diagnostikoaren lehen ediziorako ezarritako batez



bestekoaren gainera 6 puntu, 250 puntutan ezarri baitzen. Hurrengo taulak konpetentzia honetan sartutako ikasle kopurua erakusten du, baita lortu diren gehieneko eta gutxieneko puntuazioak ere, bai konpetentzia orokorrean, bai ebaluatu egin diren hiru dimentsioetan. Konpetentzia honetako puntuazio orokorreko gehieneko puntuazioa 378 puntukoa izan da, eta gutxienekoa 120 puntukoa.


<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. Tip.
Puntuazio orokorra	17.856	120	374	256	47,80

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru konpetentzia mailetako bakoitzean (hasierakoa, erdi-mailakoa eta aurreratua).

Datuak orokorki aztertzen baditugu, ikus daiteke LHko 4. mailako ikasleen % 30ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 37 baino gehixeago konpetentziako erdi-mailan dago, eta ia % 33k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du.

Ikasleen % 70ek gainditzen du *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* hasierako maila.

11. grafikoa. ED1 I-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian



Ondoko taulak gainera deskribatzen du ebaluazio honetan definitu diren errendimendu maila bakoitzean (hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailen deskribapen-etaula

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Maila honetako ikasleek nolabaiteko zailtasunak dituzte testuak euskaraz ulertzeko. Ahozko eta idatzizko testu hurbiletan (elkarrizketak, jakinarazpen laburrak) informazio garrantzitsua (datuak, batez ere) identifikatzeko gai dira. Era berean, ikasleek testu laburretan eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzen dituzte. Zenbait kasutan, eta irudien laguntzarekin, edukia	Hasierako mailan deskribatutako zereginen gain, erdi-mailan dauden ikasleek trebezia egiten dituzte ulermen-ariketak (ahozkoa eta idatzizkoa). Ahozko eta idatzizko hainbat testutan, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai dira. Maila honetako ikasleek inferentziak egiten dituzte eta edukia beren ideiekin bat etorriaz interpretatzen dute. Dagokien eskola mailako hiztegia eta ohiko	Hasierako eta erdi-mailan deskribatutako zereginen gain, maila aurreratuan dauden ikasleek zeregin konplexuenak ere ebazten dituzte eta zailtasun handieneko testuak erabiltzeko gai dira. Helburua ezagutzen dute eta hainbat alorretako testuetan (familiarak, akademikoak, komunikabideak) eduki zehatzak identifikatzen dituzte. Era berean, maila honetako ikasleek ondo egiten dituzte



interpretatzen dute, inferentzia zuzenak egiten dituzte eta ohiko erabilera testuen generoa ezagutzen dute. Bestalde, maila honetako ikasleek testuak osatu gabe idazten dituzte euskaraz, eta batzuetan ez dute eskatutako komunikazio-helburua lortzen. Batzuetan, testuetan oso egituratuta ez dauden eta erroreak dituzten datuak eskaintzen dituzte.

adierazpenak ezagutzen dituzte, eta era berean, igorlea eta testuaren generoa identifikatzen dituzte. Bestalde, maila honetako ikasleek testu sinpleak eta beren interesetik hurbil daudenak idazten dituzte (narratioak, esate baterako). Testuaren helburua kontuan hartzen dute, erregistro egokia aukeratzen dute, informazioa oinarritzko moduan egituratzen dute eta beren eskola mailako gramatikako, ortografiako eta lexikoko arau gehienak errespetatzen dituzte.

zuzeneko eta zeharkako inferentziak, testuak laburtzen dituzte eta erabilitako hiztegia ezagutzen dute. Maila honetako ikasleek, idatzizko testuak egiteko, testuaren helburua kontuan hartzen dute, eta erregistro egokia eta hizkuntza-baliabide anitzak erabiltzen dituzte. Lortu nahi den helbururako garrantzitsua den informazioa aukeratzeko gai dira eta gramatika-, ortografia- eta lexiko-arauak errespetatzen dituzte.


b) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren emaitzak dimentsioen arabera

Jarraian, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluatu diren hiru dimentsioen analisia eta kompetentzia mailen arabera ikasleen banaketa erakusten da.

Euskarazko hizkuntza-komunikazioaren dimentsioak	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. Tip.
Entzumena	17.856	101	379	259	52,74
Irakurmena		96	371	255	51,13
Idazmena		139	371	250	49,82

12. grafikoan, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluatutako dimentsioetan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen banaketa ikus daiteke.

12. grafikoa. EDI I-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan





Hasierako mailako ehunekoa antzekoa da entzumena eta irakurmenaren dimentsioetan (ikasleen ia % 31 errendimendu maila baxuenean kokatzen da). Idazmenean, maila honetako ehunekoa % 22,3koa da.

Hala eta guztiz ere, idazmena da maila aurreratuan (% 20,4) ikasle gutxien duen duena; entzumenak, aldiz, ia ikasleen % 36 du, eta irakurmenak lanik konplexuenak egiten dituzten ikasleen % 32 hartzen du.

Ondoko taulak, ebaluatutako hiru dimentsioetan, ebaluzio honetan definitu diren errendimendu maila bakoitzean (hasierakoa, erdi-mailakoa eta maila aurreratu) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du.

Hiru dimentsioetan, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako errendimendu mailen deskribapen-etaula

Dimentsioak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratu
Entzumena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Zentzu orokorra antzeman testuak bere esperientziaren inguruneak direnean.</p> <p>Testu laburrak entzun ondoren informazio zehatza identifikatu.</p> <p>Batzuetan testuko ideiak erlazionatu eta, lagunduta, edukari buruzko inferentziak egin.</p> <p>Batzuetan, oso ohiko testuetan testu-mota identifikatu.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren zentzu orokorra antzeman eta datu zehatzak bildu.</p> <p>Idea nagusiak eta bigarren mailakoak antzeman.</p> <p>Testu ezberdinen edukari buruzko inferentziak egin.</p> <p>Askotan testu-mota eta testuaren igoera antzeman.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Informazio garrantzitsua aurkitu.</p> <p>Era ezberdinetako testuak entzun ondoren, informazioa laburtu.</p> <p>Eremu ezberdinetako ahozko testuetan testu-mota eta hiztegia antzeman.</p> <p>Bere ideia eta ezagupenetatik abiatuta, testuaren edukia interpretatu.</p>
Irakurmena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Idatzizko testu sinpleetan informazio zehatza identifikatu.</p> <p>Ohiko testuetan zentzu orokorra identifikatu.</p> <p>Batzuetan, ideia nagusiak antzeman eta testuetako informazio-dukia laburtu.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Testu ezberdinetako informazio garrantzitsua aukeratu.</p> <p>Igorlea eta testu generoa antzeman.</p> <p>Testu idatziaren edukari buruzko inferentziak egin.</p> <p>Bere ikasmilari dagokion lexikoa ezagutu, halaber hitzak eta ohiko espresioak.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Idatzizko testu ezberdinetako xedea identifikatu.</p> <p>Testu laburretako ideien arteko erlazioa antzeman.</p> <p>Inferentzia zuzenak eta zeharkakoak egin.</p> <p>Testu labor baten edukia laburtu.</p> <p>Testuen egitura antzeman.</p>
Idazmena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Proposatutako helburua zailtasunez bete.</p> <p>Zailtasunez instrukzio testua idatzi.</p> <p>Batzuetan gai zerrondak idatzi, baina ideiak garatu gabe.</p> <p>Edukiak errepikatu, narrazioaren egitura errespetatu gabe.</p> <p>Hiztegi mugatua erabili; esaldiak bukatu.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Informazio eta erregistro egokiak aukeratu, bere esperientziaren inguruneko testu bat idazteko.</p> <p>Edukia antolatu eta eskatutako testuaren oinarriko egitura erabili.</p> <p>Batzuetan ideiak aipatu nahiz eta guztiz garatu ez.</p> <p>Kasu gehienetan hiztegia egokiaz baliatu.</p> <p>Batzuetan akatsak egin, baina komunikazioa oztopatu gabe.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hau egiteko gai dira:</p> <p>Testu egoki eta zuzenak idatzi planteatutako xedea betetzeko.</p> <p>Eskatutako gaia eta egitura erabili eta garatu (pastel baten errezeta asmatzea).</p> <p>Ideiak era antolatuan azaldu eta paragrafoak erabili.</p> <p>Testu antolatzaileak erabili eta, batzuetan, marka grafikoak (gidoiak, ikurrak...)</p> <p>Ortografia, gramatika eta sintaxia arauak bete.</p> <p>Hiztegi egokia erabili, hitzak errepikatu gabe.</p>

Hauek dira dimentsioen arabera erabilitako testuak:

- Entzumena: elkarrizketa, ipuina, albistea
- Irakurmena: prentsa elkarrizketa, nobelaren zatia, albiste laburra, foiletoa, instrukzio testua (jokoa).
- Idazmena: instrukzio testua (sukaldeko errezeta)




c) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera

Ondoko taulan eta grafikoan, ebaluazioa honetan geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lotutako puntuazioak aurkezten dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko batez besteko puntuazioan sartu diren ikasle kopurua ageri da.

Emaitzak geruzen arabera			
Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A publikoa	331	187	1,35
B publikoa	1.151	234	1,34
D publikoa	7.494	260	0,53
Itunpeko A	899	218	1,25
Itunpeko B	3.971	252	0,71
Itunpeko D	4.010	274	0,71
Guztira: 17.856			

13. grafikoa. ED I I-LH4. Euskara hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera




Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako geruzek lortutako batez bestekoen adierazgarritasun estatistikoa aztertu ostean, ikusten da geruza guztien arteko aldeak adierazgarriak direla.

14. grafikoan, ikasleen errendimendu mailaren banaketa erakusten da eskolatuta dagoen geruzaren arabera.



14. grafikoa. ED I I-4°EP. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian



Geruzak errendimendu mailen arabera aztertzeak agerian jartzen ditu Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hasierako maila gainditzen ez duten A geruza publikoko (% 95,5) eta itunpeko A geruzako (% 65) ikasleen ehuneko altuak. B geruza publikoan, ikasleen ia % 48 ez da konpetentziako hasierako maila gainditzera iristen.

D publiko eta itunpeko D geruzek biltzen dute ikasleen ehunekorik altuena maila aurreratuan (% 35 D eredu publikoan eta % 47 itunpeko D ereduan).

d) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Jarraian, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ebaluatu diren hiru dimentsioetako emaitzak grafikoki adierazten dira geruzen arabera. Grafikoan, ebaluatutako hiru dimentsioetako bakoitzean geruzen arabera lortutako puntuazioa ikusten da, eta agerikoa denez, geruza bakoitzaren baitako puntuazioa nahiko antzekoa da.


Oro har, geruza guztietako ikasleek idazmenean lortzen dituzte emaitzarik baxuenak eta entzumenean puntuaziorik onenak; itundutako A geruza da salbuespena, grafikoan ageri den moduan.

D ereduak dira Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ebaluatutako dimentsio guztietan emaitzarik onenak lortzen dituztenak eta itundutako D ereduak D eredu publikoak (pixka bat beheerako kokatzen da) baino puntuazio nabarmen altuagoa lortu du.

Dimentsio bakoitzean, geruza guztien arteko aldeak adierazgarriak dira, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako puntuazio orokorren moduan.




15. grafikoa. EDI I-LH4. Emaitzak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako geruzetan dimentsioen arabera



Azterketan sakontzeko, 15 bis. grafikoan, geruza bakoitzak hiru dimentsioetan lortzen dituen puntuazioak ageri dira. Hiru dimentsioetan, geruza bakoitzeko barne emaitzak nahikoa homogeneoak dira; horrek esan nahi du, probak hirurei emandako garrantziaren baliokidetasunean koherentzia izateaz gain, ebaluatutako dimentsio guztiak geruzek ere modu orekatuan irakasten dituztela.

15 bis. grafikoa. EDI I-LH4. Emaitzak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan geruzen arabera




e) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak hizkuntza-ereduen arabera

Euskarazko hizkuntza-komunikazioan, ikasleak ikasketak jaso dituen hizkuntza-ereduak eragin handia du emaitzetan. Eragin hori orain arte egindako ikerlan eta ebaluazio guztietan egiaztatuta da, eta zalantzarik gabe askoz handiagoa da ebaluatutako gainerako konpetentzietan baino.

Ondoko grafikoan ageri dira Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian hizkuntza-eredu bakoitzean lortutako puntuazioak. Ereduen arteko emaitzen alde guztiak esanahi estatistikoa dute.




16. grafikoa. ED I I-LH4. Emaitzak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian hizkuntza-ereduen arabera



Grafikoan ikus daitekeenez, D ereduko ikasleek 17 punturekin gainditu dituzte B ereduko emaitzak. A ereduari dagokionez, D ereduak baino 56 puntu gutxiago lortu ditu eta B ereduak baino 39 puntu gutxiago.

Hurrengo grafikoan, hizkuntza ereduaren arabera egindako azterketa batean errendimendu maila bakoitzean kokatzen diren ikasleen ehunekoak ageri dira. A ereduko ikasleen ehunekoak oso handiak dira hasierako mailan eta oso txikiak maila aurreratuan, eta horrek eragin nabarmena izan behar du Kompetentziako emaitza orokorretan.

17. grafikoa. ED I I-LH4. Errendimendua Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian hizkuntza-ereduen arabera




Kompetentzia honetan, hizkuntza-ereduen arteko ikasleen ehunekoaren barriadura agerikoa da:

- A ereduko ikasleen % 73 hasierako mailan dago eta % 4 maila aurreratura iristen da.
- B ereduan, % 35ek ez du hasierako maila gainditzen, baina % 25ek maila aurreratu lortzen du.
- D ereduan, % 23 hasierako mailan dago eta % 39 maila aurreratura iristen da.

18. grafikoa, hiru ereduaren arteko aldea ageri da, bai errendimendu orokorrean, bai kompetentziako dimentsio bakoitzean.




18. grafikoa. ED I I-LH4. Errendimendua Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako dimentsioetan hizkuntza ereduaren arabera



Dimentsio guztietan, hizkuntza-ereduen arteko aldeak adierazgarriak dira.

Ondoko grafikoen hiru hizkuntza-ereduetako ikasleen banaketa ikus daiteke Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren ebaluatutako hiru dimentsioetan.

19. grafikoa. ED I I-LH4. A ereduko ikasleen ehuneko errendimendu-mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan




A ereduan, entzumenari dagokio hasierako mailan dagoen ikasle ehunekorik altuena, ia % 73k maila honetako zereginak soilik egiten ditu eta. Hasierako mailan, idazmenak du ikasle ehuneko baxuena, % 62,5eko kopuruarekin.

Ehuneko horiek asko murrizten dira B ereduan, 20. grafikoen ikus daitekeen moduan, Idazmenean, ikasleen % 23,6 kokatzen da hasierako mailan eta % 34,8 entzumenean.




20. grafikoa. ED-LH4. B ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan



D ereduan, 21. grafikoa, hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoa % 17,4 eta % 23,8 artekoa da hiru dimentsioetan.


21. grafikoa. ED I I-LH4. D ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan



Informazioa osatzeko, hizkuntza-eredu bakoitzaren barneko portaera aztertu da Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ebaluatu diren dimentsioetako emaitzen orekari dagokionez.

22. grafikoa ikusten den moduan, B eta D ereduetan, puntuaziorik altuena, Entzumenean lortu dute. A ereduan, Idazmenean.

22. grafikoa. ED I I-LH4. Hizkuntza-eredu bakoitzeko errendimendua Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioen arabera






f) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek konpetentzia honetan 282 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania -ikasle gehienak- edo euskara ez den besteren bat dutenek 248 puntuko errendimendua lortu dute. Aldea adierazgarria da.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian parte hartu duten ikasleak etxeko hizkuntzaren arabera


Euskara	Euskara ez dena
Kopurua	Kopurua
4.210	13.646

23. grafikoa. ED I I-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak ikasleen etxeko-hizkuntzaren arabera



Jarraian, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailetan kokatzen den ikasleen ehunekoa ageri da etxeko hizkuntzaren arabera.

24. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian etxeko hizkuntzaren arabera






Hasierako mailan biltzen da etxeko hizkuntza euskara ez duten (gaztelania izaten da gehienetan, baina besteren bat ere izan daiteke) ikasleen ehunekorik altuena. Maila aurreratuan, ehunekorik altuena etxeko hizkuntza euskara duten ikasleei dagokie, ia % 55. Hasierako mailan kokatzen diren etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen % 12,4k ebaluatutako gainerako konpetentzietan ere emaitza baxuak lortzen ditu.

Etxeko hizkuntza gaztelania edo besteren bat denean, ehunekoa % 26ra murrizten da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* maila aurreratuan.

Aurreko ebaluazioetan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* emaitzetan etxeko hizkuntzaren eta eskolatuta dagoen hizkuntza-ereduaren eragin argia identifikatu dute. Hurrengo grafikoan, D ereduiko ikasleen banaketa ikus daiteke, etxeko hizkuntzaren arabera.

25. grafikoa. ED11-LH4. D ereduiko ikasleen ehunekoa errendimendu mailetan etxeko hizkuntzaren arabera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*



Etxeko hizkuntza euskara edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat denean, D ereduiko ikasleen ehunekoaren banaketan alde handia dagoela ikus daiteke. Etxeko hizkuntzaren arabera, hiru konpetentzia mailatan ehunekoak aldatu egiten dira. Etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleen kasuan (gehienetan gaztelania), hasierako mailako ehunekoa bikoitza baino gehiago da. Maila aurreratuan kokatzen da etxeko hizkuntza euskara duten D ereduiko ikasleen % 55, eta maila horretan dago etxeko hizkuntza euskara ez den beste hizkuntzaren bat duten ikasleen % 31.


g) *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Lehen Hezkuntzako 4. mailako populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.

Ondoko grafikoan *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortu den batez besteko errendimendua ageri da ikasleen ISEKek ezarritako lau mailen arabera




26. grafikoa. ED I I-LH4. Emaitzak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ISEK mailaren arabera



Ebaluazio diagnostikoko edizio honetan, zenbat eta ISEK maila altuagoa izan, gero eta puntuazio handiago lortzen dute. Mailak gora egin ahala, puntuazioan dagoen aldea adierazgarria da kasu guztietan.

Jarraian, ISEK mailaren arabera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hiru errendimendu mailetan kokatzen den ikasleen ehunekoa ageri da.

27. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen ehunekoa Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian errendimendu maila bakoitzean ISEK mailen arabera



Ikasleen maila sozioekonomikoa eta kulturala zenbat eta altuagoa izan, errendimenduko maila aurreratuan kokatzen den biztanleria kopuruak ere gora egiten du. Beraz, ez da ohikoa maila ertain-altuko eta altuko konpetentzia mailen banaketa ia berdina izatea. Arrazoia Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia besteengandik bereizten da, hizkuntza-ereduak dela eta. Itundutako A ereduak ISEK maila altua du, eta hala eta guztiz ere, konpetentzia honetako emaitzak baxuak dira (218 puntu), batez besteko orokorretik (256 puntu) nabarmen beherago daude.

10. grafikoa, 25. orrialdean, geruza bakoitzeko ikasleen banaketa erakusten da, ISEK mailaren arabera.




h) Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduen bilakaera (ED09-ED10-ED11)

Jarrian, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetan lortutako emaitzak alderatzen dira.

- **Emaitza orokorren bilakaera**

Lehen Ebaluazio diagnostikoan, ED09an, 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. ED10 edizioan, batez bestekoa 254 puntukoa izan zen Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian. Aurreko edizioarekiko 4 puntu baino gehiagoko alde hori adierazgarria da. Aldiz azken bi edizioetako 2 puntuko aldea ez da adierazgarria.


28. grafikoa. ED11-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia. Emaitzen arabera. ED09-ED10-ED11



- **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

29. grafikoa ikus daitekeen moduan, 2011ko ebaluazioan hasierako mailan kokatzen den ikasleen ehunekoa murriztu egin da 2009. urtekoarekin alderatuta, baina aurreko edizioa baino altuagoa da. Maila aurreratuko ehunekoa da orain arte egindako hiru ebaluazioetako altuena.

29. grafikoa. ED-11.LH4. Ikasleen banaketaren bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen arabera






• Emaidzen bilakaera ereduaren arabera

Hiru ebaluazioetan emaitzen bilakaera aztertzen denean, nolabaiteko hobekuntza nabari da hizkuntza-eredu guztietan. Hala ere, aurreko edizioei dagokienez, A ereduaren soilik da aldea adierazgarria. 2010eko emaitza guztiak 2009koak baino nabarmen altuagoak ziren. D ereduaren soilik kokatzen da Euskadiko batez bestekoaren gainetik hiru edizioetan

30. grafikoa. EDI I.4°EP. Emaidzen bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian hizkuntza-ereduen arabera



• D ereduko ikasleen banaketan izandako bilakaera, etxeko hizkuntzaren arabera


Bilakaera aztertzen denean ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera errendimendu maila bakoitzean kokatzen den D ereduko ikasleen ehunekoari erantzunez aztertzen denean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen % 55 kompetentzia honetan maila aurreratuan dagoela ikusten da, eta etxeko hizkuntza euskara ez den besteren bat dutenen (gehienetan gaztelania) % 31 soilik dago maila aurreratuan.

2011ko ebaluazioko Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hiru errendimendu mailetan, ikasleen ehunekoak 2009ko edizioen oso antzekoak dira.

Ikasleen etxeko hizkuntza euskara denean, ikusten da hasierako mailan ehunekoa % 12an mantendu dela hiru ebaluazioetan eta % 21 eta % 29 artean kokatzen da etxeko hizkuntza euskara ez denean.




31. grafikoa . ED I-LH4. Errendimendu mailetan, etxeko-hizkuntzaren arabera, D ereduko ikasleen banaketa bilakaera



31 bis grafikoan D ereduko ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera antolatutako informazio berbera ageri da, baita orain arte egindako ebaluazio bakoitzean horren banaketa ere hiru errendimendu mailen arabera.

31. bis grafikoa. ED09-ED10-ED11. D ereduko ikasleen banaketa errendimendu mailetan etxeko-hizkuntzaren arabera





i) EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAREN AZTERKETATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

Ikasleen banaketa hiru errendimendu mailetan.

2011ko ebaluazioan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu maila bakoitzean ikasleek duten banaketan, ikasleen % 30 hasierako mailako zereginak egitera soilik iristen da. % 33k maila aurreratuari dagozkion zereginak egiten ditu. % 37 inguru erdi-mailan kokatzen da. Hizkuntza eredu bakoitzean errendimendu mailetan ikasleen banaketa aztertzen denean, ikasleen eskolatze ereduak konpetentzia honen errendimenduan duten eragin handia antzematen dugu.

Konpetentzia osatzen duten dimentsioen arabera azterketan, hasierako mailan antzeko ehunekoa nabari da irakurmenean eta entzumenean, % 29 inguru. Idazmenak du ikasleen ehunekorik baxuena (% 22), hau da, zereginik sinpleenak soilik egiten dituztenena, baina, era berean, idazmenak du maila aurreratuan mailarik baxuena ere. Entzumenak du ehunekorik altuena maila aurreratuan, ia % 36.

Geruzen eta errendimendu mailen arabera azterketak agerian jarri ditu *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* hasierako maila gaintu ez duten A publiko (% 95,5) eta itunpeko A (% 65) ikasleen ehuneko altuak. B geruza publikoan, ikasleen % 48 ez da konpetentzia honen hasierako maila gaintuzera iristen. D publiko eta itunpeko geruzek maila aurreratuan biltzen dute ikasleen ehunekorik altuena (% 35 D publikoan eta % 47 itunpeko D ereduak).

Emaitzak geruzen arabera (sarea eta ereduak)

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortutako emaitzetako aldearen garrantziari erantzunez, geruzen arabera hau ikus daiteke:

- Itunpeko A ereduak eta A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira. Itunpeko A eredu geruzaren eta A eredu publikoaren arteko aldea ere nabaria da, itundutako A geruzarena nabarmen altuagoa da.
- Itunpeko D ereduak eta D eredu publikoak gainerako geruzek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte. Era berean, itunpeko D ereduak emaitzak nabarmen altuagoak dira D eredu publikoan baino Bi geruzak batez bestekoaren gainetik kokatzen dira.
- Hizkuntza-eredua funtsezkoa da Konpetentzia honen garapenean.

Emaitzak hizkuntza-ereduen arabera

D ereduak ikasleek (265 puntu) soilik gaintzen dute *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* batez besteko orokorra (256 puntu). B ereduak, batez bestekoa 248 puntukoa da, eta A ereduak, berriz, 209 puntukoa.

Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek etxeko hizkuntza gaztelania edo besteren bat duten ikasleek baino emaitza askoz hobekak lortu dituzte. Etxeko hizkuntza euskara duten D ereduak ikasleen % 55ek errendimenduko maila aurreratua lortu dute konpetentzia honetan.



Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura esanguratsua dago ISEK-en mailaren eta errendimenduaren artean; zenbat eta ISEK maila altuagoa izan, gero eta errendimendu handiagoa lortzen dute, eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren errendimenduan izandako bilakaera: ED2009 –ED2010- ED2011

Emaitza orokorren bilakaera

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian 2011ko ebaluazio diagnostikoan ikasleek lortutako batez bestekoa 256 puntukoa da. Aurreko edizioarekin alderatuta % 2ko aldea ez da adierazgarria. Alde hori 2009ko edizioa baino % 6 altuagoa da, eta alde hori adierazgarria da.

Ikasleen banaketaren bilakaera kompetentzia mailen arabera

2011ko ebaluazioan maila aurreratuan kokatzen den ikasleen ehunekoak (% 33) % 2 baino gehiago egin du gora 2009ko urtearekin alderatuta, eta ia % 4 2010eko edizioarekin alderatuta. Hasierako mailan (% 30) % 3ko murrizketa nabari da 2009. urtearekin alderatuta, baina 2010. urtearekin alderatuta, puntu horiek gora egiten dute. Erdi-mailan dagoen ikasleen ehunekoa (% 37) 2010eko ebaluaziokoa baino baxuagoa da eta 2009koaren antzekoa.

Emaitzen bilakaera hizkuntza-ereduen arabera

Hobekuntza txiki bat antzematen da hizkuntza-eredu guztien emaitzetan. Hala ere, A ereduak du alderik handiena; izan ere, 2010eko emaitzek 8 puntuko aldearekin gainditu dituzte 2009koak eta 2011ko emaitzek 15 puntuko aldearekin gainditzen dituzte 2010ekoak. Eredu bakoitzaren baitan, alde guztiak nabarmen handiagoak ziren 2010. urteko ebaluazioan aurreko urtekoan baino. A ereduaren soilik egin dute emaitzek nabarmen gora ebaluazio batetik bestera. B eta D ereduetan, azken bi edizioen artean ez dago alde nabarmenik.

Egindako ebaluazioetan, D ereduaren errendimenduak soilik gainditzen du Euskadiko batez bestekoa.



GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Definizioa

Gaztelaniaz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko.

Egitura

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia 5 dimentsiotan dago egituratuta eta bost horietatik hurrengo hiru hauek ebaluatu dira:

- ***Irakurmena gaztelaniaz***

Era askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai diren, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituzten, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituzten baloratzeko.

- ***Entzumena gaztelaniaz***

Mota desberdinetako testuen bidez ebaluatu da eta hurrengo hauetarako gaitasuna neurtu da: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko gaitasuna.

- ***Idazmena gaztelaniaz***

Gaztelaniazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira.

Dimentsio hori baloratzeko, Lehen Hezkuntzako 4. Mailako ikasleei 60 hitzeko idazlana eskatu zitzairen. 12 hitzetik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek baloratu dira:

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu duen ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili duen ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta kohesioa:
 - Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.
- Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.
- Oraingo ebaluazio diagnostikoan ebaluatu ez diren dimentsioak hauexek dira: mintzamena eta ahozko elkarrekintza.



a) Emaidza orokorrak

- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez besteko emaitzak**


2011ko ebaluazioan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek lortutako batez besteko emaitza 256 puntukoa da. Gehieneko puntuazioa 392 puntukoa izan da eta gutxienekoa 128 puntukoa.

Hurrengo taulan, kontuan hartu diren ikasle kopurua eta kompetentzia horretako gutxieneko eta gehieneko puntuazioak ikus daitezke.

<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. Tip.
Puntuazio orokorra	17.999	128	392	256	45

32. *grafikoan*, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren kompetentziako hiru errendimendu mailetan.

32. *grafikoa*. ED11-LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendu mailen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*



Datuak oro har aztertuz, ikus daiteke Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 11k baino apur bat gehiagok hasierako mailan deskribatutako gaitasunak soilik menderatzen dituela. Ikasleen % 61,3 kompetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 27,4k kompetentziako maila aurreraturako definitu diren zeregin konplexuagoak gauzatzera lortu du.

Ondoko taulak deskribatzen du ebaluazio honetan definitu diren errendimendu maila bakoitzean (hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua)– ikasleak zer egiteko gai diren. Hori abiapuntutzat hartuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondorioztatu dezakegu.



Konpetentzia mailen deskribapena *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan*

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak osatu gabe eta zati batean bakarrik gauzatzea ahalbidetzen diote, eta gehienetan ez du komunikazio-helburua betetzen. Hizkuntzaren funtzionamendua partzialki bakarrik menderatzen du, eta gutxitan ezagutzen eta erabiltzen ditu hizkuntza-elementuak egoki.</p> <p>Entzumenerari eta irakurmenari dagokienez, ahozko zein idatziko testu sinple baten zentzu orokorra antzemateko gai da, baldin eta modu argian aurkezten bazaio, ez baita gai zentzua ondorioztatzeko. Testuko ideia nagusia eta testuaren xedea ezagutzeko gai da, baita informazio zehatza eta esplizitua identifikatzeko ere, datuak, bereziki. Adin horretako ohiko hitz batzuen esanahia ere ezagutzen du.</p> <p>Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testu sinpleak idazteko gai da; hala ere, zailtasunak ditu emandako komunikazio egoerari dagokion hizkuntza-erregistroa erabiltzeko. Batzuetan testu motaren oinarriko ezaugarriak erabiltzen ditu, eta eskatzen zaizkion zenbait datu ematen ditu; testu mota ez du erabiltzen xedea lortzeko behar den besteko osotasunaz eta eraginkortasunaz. Ideien antolamenduaren eta garapenaren aldetik gabeziak erakusten ditu, baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideak neurri batean bakarrik menderatzen ditu eta hainbat akats egiten ditu hiztegiaren, gramatikaren eta ortografiaren.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak egoki gauzatzea ahalbidetzen diote eta gehienetan komunikazio-helburua betetzen du. Hizkuntzaren funtzionamendua menderatzen du, eta hizkuntza-elementuak adinari dagokion moduan ezagutzen eta erabiltzen ditu.</p> <p>Entzumenerari eta irakurmenari dagokienez, hasierako mailan deskribatutakoaz gain, testuko ideia ezberdinak bereizteko gai da, baita eskatutako informazio gehiena (datuak, ideiak...) aurkitzeko ere. Irakasmailari dagozkion maiztasun handiko hitzen edo esapideen esanahia ezagutzen du; zenbait ondorioztatze sinple egiteko gai da.</p> <p>Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, testuak komunikazio-xedea kontuan izanik, erregistro egokia erabiltzaile eta testu motaren oinarriko ezaugarriak errespetatuta idazteko gai da. Ideiak nolabaiteko koherentziarekin aurkezten ditu testuaren xedea lortzeko. Testu-kohesioari laguntzen dioten hizkuntza-baliabide batzuk erabiltzen ditu. Arau gramatikal, lexiko eta ortografikoak neurri handian betetzen ditu.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikaslearen diskurtso-trebetasunek adinari dagozkion komunikazio-ekintzak eraginkortasun maila altuarekin gauzatzea ahalbidetzen diote eta gehienetan komunikazio-helburua betetzen du. Hizkuntzaren funtzionamendua menderatzen du, eta hizkuntza-elementuak adinari dagokion moduan ezagutzen eta erabiltzen ditu.</p> <p>Entzumenerari eta irakurmenari dagokienez, hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoaz gain, testuko ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai da, baita informazio zehatzak aurkitzeko eta testuaren pasarteren bat laburtzeko ere. Halaber, informazioa eta ezagupen pertsonala erlazionatzeko gai da. Informazio inplizitu edo anbiguorik gehiena identifikatzen du, eta bere irakasmailan maiztasun handikoak ez diren hitzen esanahia ezagutzen du.</p> <p>Testu idatzien ekoizpenari dagokionez, xedea argi erakusten duten testuak idazteko gai da, erregistro egokia erabiltzen du eta testu motaren oinarriko ezaugarriak errespetatzen ditu. Ideiak koherentziarekin aurkezten eta garatzen ditu testuaren xedea lortzeko. Ideiak adinari dagozkion etorriarekin, zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin adierazteko gai da.</p>

b) *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera*

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ebaluatu diren hiru dimentsioetan lortutako batez besteko emaitzak aztertzen baditugu, honako hau ikusten da: Entzumenean puntuaziorik handiena 403 puntukoa izan da, eta txikiena, 118 puntukoa. Irakurmenean puntuaziorik handiena 384 puntukoa izan da eta txikiena, 98 puntukoa. Idazmenean puntuaziorik handiena 381 puntukoa izan da, eta txikiena, 117 puntukoa.


<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. Tipikoa
Entzumena		118	403	257	46,8
Irakurmena	17.999	98	384	255	52,2
Idazmena		117	381	250	50

Idazmeneko emaitzak ez dira aurreko ebaluazioetan lortutakoekin alderagarriak

Ondoko grafikoan ikasleen banaketa ageri da konpetentzia mailen arabera eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ebaluatu diren hiru dimentsioetan.



33. grafikoa. ED I-LH4. Ikasleen errendimendu-maila bakoitzean *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* dimentsioen arabera



Hiru dimentsioek antzeko jokoera erakusten dute ezarritako hiru mailetan; hala ere, *Idazmenean* dago erdi-mailako ikasle-ehunekorik handiena. Irakurmenak du ikasle kopuru handiena maila aurreratuan, % 31ko kopurua, hain zuzen.

Ondoko taulak ebaluzio honetan definitu diren kompetentzia maila bakoitzean (hasierakoa, erdikoa eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

***Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* errendimendu mailen deskribapena hiru dimentsioetan**

	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren zentzu orokorra nekez identifikatzen du. Testuko ideiarik garrantzitsuena antzematen du. Testuan erabilitako hiztegiaren parte bat antzematen du. Testuko informazio esplicitua aurkitzen du (datuak).</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du. Eskatutako informazio zehatz gehiena aurkitzen du. Testuko informazio garrantzitsua bereizten du. Testuaren xedea identifikatzen du. Testu-generoa antzematen du. Testuko berariazko hiztegia antzematen du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <p>Emandako informazioa finkatutako xederako erabiltzen du. Testuko hiztegia eta esapideak antzematen ditu. Esanahi biko esapideen esanahia interpretatzen du. Igorlearen asmoa identifikatzen du. Testuaren edukia bere ezagupenetan oinarrituta interpretatzen du. Testuaren edukiari buruzko inferentzia zuzenak egiten ditu.</p>
Irakurmena	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren zentzu orokorra nekez laburtzen du. Testuaren gaia identifikatzen du. Testuko ideiarik garrantzitsuena antzematen du. Eskatutako informazio zehatz batzuk aurkitzen ditu (datuak). Sarri erabiltzen den hiztegia antzematen du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <p>Idea nagusiak bereizten ditu. Testuko informazio garrantzitsuaren parte handi bat bereizten du. Eskatutako informazio zehatz gehiena aurkitzen du (datuak, ideiak...) Testu-generoa antzematen du. Narrazio testuetan igorlea antzematen du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren xedea identifikatzen du. Testuaren gai nagusia parafraseatzen du. Idea nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu. Testuko ideien arteko erlazioa antzematen du. Testuaren igorlea antzematen du. Testuko hizkuntza-elementuak eta hizkuntzaz kanpokoak integratzen ditu. Testuko informazioa bere ideia propioekin interpretatzen eta integratzen du. Testuaren edukiari buruzko inferentzia zuzenak egiten ditu.</p>



Idazmena	Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte: <i>Finkatutako helbururako egokiak ez diren testuak idazten ditu. Gaiaren garapena eskasa da. Ahozko hizkuntzako esapideak dituen diskurtso arrunta erabiltzen du. Ideiak ez daude egoki ordenatuta, eta informazioa errepikatua eta koherentziarik gabekoa da. Eskatutako testu-motaren antolamendu-egitura ez da ikusten. Hiztegi gabezia nabarmena da, eta errepikapen gehiegi egiten ditu. Gramatikaren erabileran hutsuneak ditu, batzuetan komunikazioa oztopatzen dutenak. Era guztietako ortografia akatsak egiten ditu.</i>	Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte: <i>Finkatutako helbururako egokiak diren testuak idazten ditu. Hizkuntza idatziari dagokion diskurtso formal samarra erabiltzen du. Errepikapenak, inkoherentziak eta informazio garrantzitsuaren hutsak gutxi dira. Informazioa egoki garatzen du testuan zehar. Nolabaiteko antolamendu-egitura ikusten da. Ideiak edo testuaren atalak ez ditu nahasten. Esaldien joskeran ez du ia akatsik egiten. Testuaren ulergarritasuna oztopatzen duen ortografia akatsik ez du egiten..</i>	Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte: <i>Finkatutako helburuari dagozkion testuak idazten ditu. Hizkuntza idatziari dagokion diskurtso aski formala erabiltzen du. Informazioa egoki garatzen du testuan zehar, eta irakurleak testuaren zentzu orokorra ulertzen du. Eskatutako testu-motaren ezaugarriak errespetatzen ditu. Hiztegi egokia eta askotarikoa erabiltzen du. Era askotako perpausak erabiltzen ditu, esaldien joskeran akatsik egin gabe. Irakasmilari eta adinari dagozkien ortografia arauak errespetatzen ditu.</i>
-----------------	---	---	---

Hauek dira dimentsioen arabera erabilitako testuak:

- Entzumena: dibulgazio-testua, narrazio testua.
- Irakurmena: literatura-testua, informazio testua, dibulgazio testua.
- Idazmena: gutxienez 60 hitz dituen abeturazko kontakizuna.


c) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera

Ondoko taulan eta grafikoan, ebaluazioan geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lotutako puntuazioak ageri dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko puntuazioan txertatu diren ikasle kopurua ageri da.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako emaitzak geruzen arabera

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	A.T.
A publikoa	361	226	2,08
B publikoa	1.181	251	1,33
D publikoa	7.516	251	0,50
Itunpeko A	936	269	1,50
Itunpeko B	3.994	267	0,73
Itunpeko D	4.011	256	0,68
GUZTIRA 17.999			

34. grafikoa. ED I I-LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian emaitzak geruzen arabera




Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroen barnean daudenetan izan



- A geruza publikoak gainerako geruzek baino emaitza baxuagoak ditu.
- B eta D geruza publikoen arteko puntuazio-aldea ez da adierazgarria.
- Itunpeko B eta D geruzen emaitzak edozein geruza publikotakoak baino altuagoak dira.

35. grafikoa, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* finkatutako hiru errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira geruza bakoitzean.

35. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* geruzen arabera



Ikasleek geruzen araberako konpetentzia mailetan duten banaketa aztertuz, hau nabarmen daiteke:


- Geruza publikoek Euskadiko ehuneko orokorra gainditzen dute hasierako mailari dagokionez.
- Erdi-mailako ehunekoa geruza guztietan % 55 eta % 64 artean dago.
- Maila aurreratuan itunpeko A eta B geruzek nabarmen gainditzen dute batez bestekoaren ehunekoa (% 27,4). A geruza publikoak (% 7,8) du ehunekorik baxuena aipatutako mailan.

d) *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera*

Konpetentzia honetan hiru dimentsioek duten garrantzia aintzat hartuta, hurrengo grafikoa, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten sei geruzetan *Gaztelaniazko hizkuntza*-dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak ikus daitezke.



36. grafikoa. EDII-LH4. Geruzako errendimendua dimentsioen arabera
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian




Puntuazioetako aldean adierazgarritasunari dagokionez, honako hau ikusten da:

- Geruzetan entzumenean lortutako emaitzetako aldea ez da adierazgarria B eta D geruza publikoen artean; B publiko eta itunpeko D geruzaren artean, eta itunpeko A eta B geruzen artean. Geruzen arteko gainerako aldeak adierazgarriak dira.
- Irakurmenean, emaitzen arteko aldea ez da adierazgarria B eta D geruza publikoen eta itunpeko A eta B geruzen artean. Geruzen arteko gainerako aldeak adierazgarriak dira.
- Idazmeneko emaitzetako aldea ez da adierazgarria B eta D geruza publikoen artean. Geruzen arteko gainerako aldeak adierazgarriak dira.

Azterketan sakontzeko, 36-bis grafikoa, geruza bakoitzak hiru dimentsioetan lortzen dituen puntuazioak ageri dira.

36. bis grafikoa. EDII-LH4. Dimentsioetako errendimendua geruzen arabera
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian



Hiru dimentsioetan lortutako puntuazioak nahiko homogeneoak dira geruza bakoitzaren baitan; horrek honako hau esan nahi du: hiru dimentsioei emandako garrantziaren baliokidetasunean probak berak koherentzia izateaz gain, ikastetxeek ere modu orekatuan irakasten dituzte aipatutako ebaluatutako dimentsioak.




e) *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera*

Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxean euskara erabiltzen duten ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* proban 253 puntu lortu dituztela ikusten da, eta etxeko hizkuntza euskara ez dutenek (gehienek gaztelania) 257 puntuko errendimendua lortu dutela. Aldea adierazgarria da.

Errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera


Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	4.191	253	0,65
Euskara ez dena	13.808	257	0,39

37. grafikoa. ED I I-LH4. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera*



Jarraian, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hiru errendimendu mailetan kokatzen den ikasleen ehunekoa ageri da, etxeko hizkuntzaren arabera.

38. grafikoa. ED I I-LH4. *Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian etxeko hizkuntzaren arabera*



Maila aurreratuan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoa % 24koa da; ostera, zeregin zailen maila horretan, etxeko hizkuntza euskara ez den (gehienek gaztelania) ikasleen ehunekoa % 28,5era iritsi da. Banaketa mailaka alderatzean, etxeko hizkuntzaren arabera, ikus daiteke etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehuneko handiagoa dagoela, % 5 gehiago, erdi-mailan. Hasierako




mailan ehunekoa ia-ia berdina da. Hasierako mailan dauden etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleen % 11,4k emaitza baxuak lortzen ditu ebaluatutako gainerako konpetentzietan ere.

f) *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetenziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)*

Lehen Hezkuntzako 4. mailako populazio osoa ISEKeko 4 mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua). Haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da.

39. grafikoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ikasleek lortu duten batez besteko errendimendua ageri da ezarritako lau ISEK mailen arabera.

39. grafikoa. ED11-LH4. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian errendimendua ISEK mailaren arabera*




Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, hizkuntza-ereduen arabera aztertzen denean, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian, ISEK mailen arabera ageri da konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa.



40. grafikoa. EDI I-LH4. Ikasleen ehuneko errendimendu-mailetan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* ISEK mailen arabera



ISEK maila altuenean, ikasleen % 93 errendimenduko erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 82.

Kompetentzia honetako maila aurreratua aztertzen badugu, ISEK maila altuan ikasleen % 36,4 biltzen den bitartean, ISEK maila baxuan erdiak, % 17,8, daudela ikusten da. Hasierako mailan, maila baxuko ikasleen ehuneko maila altukoaren bikoitza baino gehiago da.

g) *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* lortutako eta esperotako emaitzen arteko alderaketa, ISEKen arabera

41. grafikoa, geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa –kolore argiko zutabea- eta indize sozio-ekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen –kolore iluneko zutabea- batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, geruza berberetako ikasle guztiek ISEK berbera izango balute abiapuntu gisa.²


Hasierako puntuazioen eta geruzetan ISEKen arabera legozkiekeen puntuazioen arteko aldean adierazgarritasunari dagokionez, hau ikusten da:

- B geruza publikoa da lortutako hasierako puntuazioan ISEKen efektua kentzen denean aldea adierazgarria ez den bakarra, hau da, maila sozio-ekonomikoaren eta kulturalaren arabera dagokionean kokatzen da.
- A eta D geruza publikoak eta itundutako D ISEK mailaren arabera espero izandakoaren azpitik kokatzen dira.
- Itundutako A eta B geruzek beren ISEK mailaren arabera legozkiekeenak baino emaitza hobekak lortu dituzte; izan ere, hasierako puntuazioa ISEKen efektua kenduta lortutakoa baino altuagoa da.
- ISEK kontrolatu osteko puntuazioen arteko aldeak adierazgarriak dira geruza guztietan.

² ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdetegian indize honekin lotutako galderei erantzun dien ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



41. grafikoa. ED11-LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia batez besteko puntuazioa eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo puntuazioa




h) Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduan izan den bilakaera: ED09-ED10-ED11

- **Emaitza orokorren bilakaera**

Lehen Ebaluazio diagnostikoan, ED09an, 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. 2010 eta 2011ko edizioetako ebaluazioetan, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ikasle bakoitzak lortutako batez bestekoa 256 puntukoa izan da. Lehen edizioeko batez bestekoaren gainean sei puntuko alde hori adierazgarria da estatistikoki. ED11rekiko alderaketak ezarri dira.

42. grafikoa. ED11-LH4. Batez besteko emaitzen bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*




- **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

Hurrengo grafikoa ikus daitekeen moduan, 2011ko ebaluazioan maila aurreratuan kokatzen den ikasleen ehunekoak ia % 7 egin du behera 2010. urtearekin alderatuta eta 2009. urteko ehuneko



berberek kokatzen da. Hala ere, badu alderdi positiboa ere, hau da, hasierako mailako ehunekoa aurreko bi edizioetan baino nabarmen baxuagoa da.


43. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen banaketaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen arabera*



• Emaizten bilakaera geruzen arabera

44. grafikoa, geruza bakoitzak *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* orain arte egindako hiru ebaluazioetan lortutako emaitzak islatzen dira.

44. grafikoa. ED I I-LH4. Emaizten bilakaera geruzen arabera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*



Geruza bakoitzak orain arte egindako hiru ebaluazioetan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako batez besteko emaitzak alderatuta aztertuz gero, honakoa nabarmentzen da:

- A eta D geruza publikoek 2011ko ebaluazioan lortu dute egindako hiru edizioen artetik puntuaziorik altuena eta aldea adierazgarria da.
- B geruza publikoak aurreko ebaluazioko puntuazioa mantentzen du eta 2009ko puntuaziorekin alderatuta nabarmen hobetu du.
- Itunpeko A geruzak 2010eko edizioan lortu zuen puntuaziorik altuena. 2009 eta 2011 arteko aldea ez da adierazgarria.
- Itunpeko B geruzak, 2010eko ebaluazioarekin (2009koa baino nabarmen altuagoa izan zen) alderatuta, nabarmen egin zuen behera 2011ko edizioan.
- Itunpeko D geruzak gora egin du 2009ko edizioarekin alderatuta eta 2010eko edizioarekin aldea ez da adierazgarria.



i) GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIEN EMAITZEN AZTERKETATIK ABIATUTAKO ONDORIOAK

Ikasleen banaketa konpetentziako hiru errendimendu mailetan.

Hau da ikasleen banaketa errendimendu-mailetakoko bakoitzean: Lehen Hezkuntzako ikasleen % 11,3k *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hasierako mailari dagozkion trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 61 konpetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 27,4k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.

Ikasleen banaketa Konpetentzian ebaluatutako dimentsioen arabera

Ikasleen % 52 eta % 69 artean erdiko errendimendu mailan dago ebaluatutako hiru dimentsioetan.

Idazmenean, ikasleen % 20k maila aurreratua lortzen du, eta ia % 70 erdi-mailan daude.

Irakurmenean, % 31k maila aurreratua lortu du eta ikasleen erdia baino gehixeago (% 52) erdi-mailan dago.

Entzumenean, ikasleen % 27 maila aurreratuan dago eta % 63 erdi-mailan dago.

Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian itunpeko A eta B geruzetako emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen altuagoak dira. A eredu publikoko emaitzak, berriz, nabarmen baxuagoak dira. B eta D eredu publikoen artean ez dago alde adierazgarririk. Itunpeko D geruzaren puntuazioa sare bereko A eta B-ko puntuazioa baino baxuagoa da.

Konpetentzia mailaren araberako banaketan, hasierako mailan, itundutako geruzak batez bestekoaren behetik (% 11,3) kokatzen dira, eta B eta D geruza publikoak zertxobait gaintetik. Maila aurreratuan dago itunpeko A geruzako ikasleen % 38 eta itunpeko B geruzako % 37.

Emaitzak ikasleen etxeko hizkuntzaren arabera

Etxeko hizkuntza euskara ez duten (gehienek gaztelania) ikasleek 257 puntu lortu dituzte *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; etxeko hizkuntza euskara dutenena baino puntuazio nabarmen handiagoa, horiek 253 puntuko batez bestekoa lortu baitute.

Emaitzak indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera (ISEK)

Indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK) ikasleen emaitzetan eragina duen aldagaia da. *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta maila guztietako errendimenduaren artean; zenbat eta ISEK altuagoa, orduan eta emaitza hobeak.



ISEK maila altuenean, ikasleen % 93 kompetentzia honetako erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 82.

Geruzetan ISEK aldagaiaren efektua kontrolatzen denean, itundutako B eta D ereduaren kasuan geruzen artean aldeak adierazgarriak izango liratekeela ikus daiteke.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian errendimenduan izan den bilakaera: ED2009 –ED2010- ED11

Kompetentziako emaitza orokorren bilakaera

2011ko edizioan ikasleek lortutako puntuazioa 2010ean lortutakoaren berdina eta 2009an lortutakoa (hau izan zen baxuena, alde handiarekin) baino % 6 altuagoa da.

Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera

Ikasleak errendimendu mailen arabera banatzeak erakusten du hiru edizioen artetik ehunekorik baxuena dagoela hasierako mailan. Maila aurreratuan, ehunekoa % 6 baino gehixeago jaitsi da 2010eko urtearekin alderatua, eta 2009ko kopuruan kokatu da (% 27 gutxi gorabehera).



MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Definizioa

Matematikarako konpetentzia zenbakiak, haien oinarriko eragiketak, sinboloak eta adierazpen eta arrazoitze matematikoko formak erabiltzeko eta lotzeko gaitasuna da, bai informazio mota ugariak sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko arlo kuantitatibo eta espazialei buruzko ezagutza zabaltzeko, baita eguneroko bizitzarekin eta laneko munduarekin lotutako arazoak konpontzeko ere.

Egitura

Matematikarako konpetentzia 4 bloke edo dimentsio handitan egituratu da:

- Kopurua
- Espazioa eta forma
- Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna
- Problemen ebazpena

Ebaluazio honetan, *Matematikarako konpetentzia* orokortasunean neurtzen da, eta gainera, dimentsio bakoitzean emaitzak zehazten dira; hala ere, proba osatzen duten item kopurua ez da nahikoa emaitzak fidagarriak direla bermatzeko.

a) Emaitza orokorrak

- ***Matematikarako konpetentziako batez besteko emaitzak***


2011ko ebaluazioan, *Matematikarako konpetentzia*n, Lehen Hezkuntzako 4. mailako batez besteko emaitza 255 puntukoa da. Hurrengo taulan ikus daiteke konpetentzia honetarako aintzat hartutako ikasleen kopurua eta gehieneko (381 puntu) zein gutxieneko (95 puntu) puntuazioak.

<i>Matematikarako konpetentzia</i>	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. Tipikoa
Puntuazio orokorra	18.050	95	381	255	47,7

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren konpetentzia mailetak bakoitzean.



45. grafikoa. ED11-LH4. Ikasleen ehunekoak errendimendu mailaren arabera
Matematikarako konpetentzian



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 11,5ek hasierako mailako trebeziak soilik menderatzen ditu. Ikasleen % 49k baino gehixeago, duen konpetentzia mailaren arabera, erdi-mailan daude; aldiz, ikasmila honetako ikasleen % 39 inguruk lortzen du zeregin konplexuagoak egitea eta *Matematikarako konpetentziako* maila aurreratuan kokatzea.

Hurrengo taulan ikus daiteke ikasleak zer egiteko gai diren ebaluazio honetan zehaztutako konpetentziako maila bakoitzean: hasierako maila, erdi maila eta maila aurreratua. Hori abiapuntutzat hartuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondorioztatu dezakegu.

Matematikarako konpetentziako errendimendu mailen deskribapen-taula

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetan dagoen ikasleak zenbakiak irakurtzeko, idazteko, konparatzeko eta ordenatzeko zenbakien oinarritzko ezagupenak erabiltzen ditu. Eragiketa bateko problema oso sinpleak ebazten ditu batuketa, kenketa eta biderketa erabiliz, baina sarritan arazoak izaten ditu eragiketa bat baino gehiago eskatzen duten problemak ebazteko. Objektu ezagunen luzera-neurrien estimazioak egiten ditu eta espazioan kokagune ezberdinak antzematen ditu. Kasu gehienetan, egoera sinpleetan tauletako eta grafikoetako taulak elkartzeko gai da.</p>	<p>Maila honetako ikaslea, hasierako mailan deskribatutako trebetasunaz gain, batuketak, kenketak edo/eta biderketak egitea eskatzen duten problemak aise eta estrategia desberdinak erabiliz ebazteko gai da. Asmakizunak eta logika eta eragiketa-arrazoietako problema sinpleak ebazteko gai da. Batze- eta biderkatze-egoeren inguruko problemak bi eragiketa ezberdin erabiliz ebazten ditu. Ohiko egoeretan magnitudeei eta neurriei buruzko informazioak interpretatzen ditu, eta neurriei buruzko problemak unitate desberdinekin ebazten ditu (dirua, pisua, luzera, edukiera, denbora). Espazio-adierazpenaren oinarritzko sistemak erabiltzen ditu espazio fisikoari dagozkion informazioak interpretatzeko eta lantzeko; arrazoiketa espazialeko problema sinpleak ebazten ditu. Figura geometrikoak elkarren artean bereizten dituzten ezaugarri batzuk identifikatzen ditu. Tauletako eta grafikoetako informazioa lotzen du eta problemak ebazteko erabiltzen du. Matematika-gai desberdinen arteko loturak egiteko gai da, eta horri esker, nolabaiteko konplexutasuna duten ariketak eta problemak segurtasunez ebaztu ditzake.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikasleak, aurreko mailako konpetentziez gain, arrazoiketa landuagoak erabiltzen ditu oinarritzko lau eragiketarako batzuk (zatiketa barne) ebazteko edo magnitude bateko unitateak bihurtzea eskatzen duten problema originalak eta matematika-egoera konplexuagoak ebazteko. Oro har, egoera-arazoei aurre egiteko eta ebazteko segurtasuna du, eta baita egindako kalkuluak eta emaitza matematikoki adierazteko ere.</p>

b) Emaitzak *Matematikarako konpetentziako dimentsioen* arabera

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek *Matematikarako konpetentzian* ebaluatu diren lau dimentsioetan lortutako batez besteko emaitzak aztertzen baditugu, honako hau ikusten da: Kopuruan, puntuaziorik handiena 313 puntukoa izan da, eta txikiena, 111 puntukoa. Espazioan eta



forman, puntuaziorik handiena 344 puntukoa izan da eta txikiena, 128 puntukoa. Aldaketa, erlazioa eta Ziurgabetasunean, puntuaziorik handiena 319 puntukoa izan da, eta txikiena, 106 puntukoa. Azkenik, Problemen ebazpenean, puntuaziorik handiena 371 puntukoa izan da eta txikiena 162 puntukoa, hori da puntuazio altuenak dituen dimentsioa.


Ebaluatutako dimentsio bakoitzari dagozkion itemak erantzun zituzten ikasleak erakusten ditu ikasle kopuruak. Erantzun kopuru handiena Problemen ebazpenaren dimentsioari dagokio.

Matematikarako kompetentzia	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. Tipikoa
Kopurua	17.864	111	313	250	50
Espazioa eta forma	18.036	128	344	250	50
Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna	17.788	106	319	250	50
Problemen ebazpena	17.980	162	371	250	50

Dimentsioen batez besteko emaitzak 250 puntutan kokatzen dira ebaluazioko edizio bakoitzean eta aurreko urtekoekin ez dira alderagarriak. Dimentsio horietako bakoitza item kopuru urriekin neurtzen da.

Jarraian, ikasleen banaketa ageri da kompetentzia mailen arabera eta *Matematikarako kompetentzian* ebaluatu diren lau dimentsioetan.

46. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan *Matematikarako kompetentzian* dimentsioen arabera



Errendimendu maila bakoitzean, ikasleen banaketa nahikoa homogeneoa da lau dimentsioetan. Erdi-mailak ikasleen % 50 inguru biltzen du lau dimentsioetan eta maila aurreratuan kokatzen dira Kopuruko % 33 eta Aldaketa eta erlazioetako ikasleen % 37.

Matematikarako kompetentziako mailen adierazleak

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira, oro har: Zenbakizko asmakizun eta jolas errazak, eta logikako arrazoinamenduko problemak eta eragiketa-problemak formulatzen eta	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira, oro har: Zenbakizko testuetan (erakusleihoetako prezioak, publizitate liburuxkak, berriak...) ageri diren zenbaki naturalen eta ohiko	Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira, oro har: Nolabaiteko zailtasuneko igarkizun txikiak, zenbakizko jolasak eta zenbakizko arazoiketa eta arazoiketa logikoa eskatzen



<p>ebazten ditu. Espazioaren pertzepzio- eta diskriminazio- ariketak ebazten ditu. Kokaguneak, mugimenduak eta ibilbide errazak espazio erreal batean edo oso kale-izendegi simple (laukidun) batean identifikatu. Sarrera bikoitzeko taula baten eta barra edo marra diagrama baten oinarritzko elementuak identifikatu eta interpretatu. Eragiketa bateko edo biko biderketak egitea eskatzen duten problemak ebazten ditu.</p>	<p>zatikien balioa interpretatu. Ilgarkizun txikiak, zenbakizko jolasak eta zenbakizko arrazoiketa eta arrazoiketa logikoa eskatzen duten problemak ebazti. Ebazpen metodorik egokiena (mentala, algoritmikoa edo kalkulagailua) aukeratu, eta kalkuluak egiteko jarraitu duen prozedura modu errazean adierazi. Eguneroko testuinguruetan unitate ezberdinetako neurriei buruzko problemak ebazti (dirua, pisuak, luzerak, edukierak, orduak, minutuak eta segundoak). Eguneroko testuinguruetan magnitudeei eta neurriei buruzko informazioak eta mezuak (zenbakizko testu errazak) zentzuz interpretatu. Arrazoiketa espazialari buruzko oinarritzko problemak ebazti. Kokapenak eta mugimenduak identifikatu eta interpretatzen ditu. Kale-izendegietan eta plano (laukidun) errazetan distantziak jo eta neurtu. Figura lau edo espazial bat antzeman bere ezaugarrien ahozko deskribapenean oinarriturik. Irudi lauak eta espazioan daudenak, eta horien oinarritzko propietateak eta erlazioak identifikatzen ditu eta ikasi ditu. Sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafiko sinpleetan adierazten diren datuak identifikatzen, interpretatzen eta deskribatzen ditu, eta datuen arteko erlazioak ezartzen ditu. Eguneroko egoeretatik (kirol sailkapenak, tenperatura taulak...) hautatutako sektore-grafikoetan aurkeztutako datuen interpretazioan oinarriturik problemak ebazti. Trukea eta konbinazioa eskatzen duten batuketa-egoera konplexuetan (pentsamendu itzulgarria) eragiketa bakarreko problemak ebazti. Biderketa-egoeretan eragiketa bateko (eskalarrak) edo biko (neurrien errepikapena) problemak ebazti. Konbinazioa eta zenbaketa sistematikoa eskatzen duten problema errazak ebazti.</p>	<p>дутен problemak ebazti. Eguneroko testuinguruetan unitate ezberdinetako neurriei buruzko problemak ebazti (dirua, pisuak, luzerak, edukierak, orduak, minutuak eta segundoak), magnitude bereko unitaterik ohikoenen arteko bihurtetarako eginez. Kale-izendegietan eta planoetan distantzia errealak jo eta neurtu, erreferentzia metrikoak erabiliz. Forma eta gorputz geometrikoen elementu bereizgarriak (aldeak, aurpegiak, angeluak, erlazioak...) deskribatu, geometria hiztegi egokia erabiliz. Problemaren zenbakizko datu garrantzitsuak identifikatzeko eta problema ebaz dezaketen eragiketak antzemateko zenbait esanahi, erlazio, arrazoiketa eta estrategia erabili. Eragiketa bateko edo biko biderketak egitea eskatzen duten problemak ebazten ditu. Alderatze eta berdintze-egoera konplexuetan (pentsamendu itzulgarria) eragiketa bakarreko problemak ebazti. Behar baino datu gehiago dituen problema batean, behar diren datuak birformulatu edota erabili, eta problema ebazti.</p>
---	--	--

c) Matematikarako kompetenziaren emaitzak geruzen arabera


Ondoko taulan eta grafikoan, ebaluazioa honetan geruzen arabera lotutako puntuazioak ageri dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko puntuazioan txertatu diren ikasle kopurua ageri da.

Matematikarako kompetenziaren emaitzak geruzen arabera

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A Publikoa	372	218	2,31
B Publikoa	1.188	243	1,40
D Publikoa	7.519	251	0,56
Itunpeko A	941	263	1,48
Itunpeko B	4.017	260	0,72
Itunpeko D	4.013	263	0,73
GUZTIRA 18.050			



47. grafikoa. ED I I-LH4. Errendimendua Matematikarako konpetentzian geruzen arabera




Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik

Matematikarako konpetenziako batez besteko emaitzetan aldeak aztertu ostean, adierazgarritasunaren ikuspegitik honako hau ondorioztatzen da:

- A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira.
- Itunpeko A eta D geruzek gainerako geruzek baino emaitza nabarmen altuagoak lortzen dituzte eta horien artean ez dago alderik.
- Gainerako geruza guztien arteko aldeak adierazgarriak dira.

48. grafikoan, geruza bakoitzean Matematikarako konpetentzian finkatutako errendimenduko hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira.

48. grafikoa. ED I I-LH4. Errendimendua Matematikarako konpetentzian geruzen arabera



- Hasierako mailan, itunpeko hiru geruzek batez bestekoak baino ikasle ehuneko baxuagoa dute (% 11,5). Bestalde, hiru geruza publikoek, hasierako mailan, bestez bestekoa baino ehuneko altuagoa dute, eta zehazki, A geruza publikoak errendimendu maila horretako ikasle-ehuneko altua du (% 33,1).
- Maila aurreratuan, itundutako hiru geruzek batez bestekoa baino ehuneko altuagoa dutela ikusten da (% 39,3): Itunpeko D geruzak ia % 45; itunpeko B-k, % 43,5, eta itunpeko A-k,




berriz, % 47. Hiru geruza publikoek, maila aurreratuan, batez bestekoak baino ehunekoak baxuagoa dute.

d) Matematikarako konpetenziaren emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Ondoko grafikoan, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten sei geruzetan *Matematikarako konpetenziaren* dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak ikus daitezke.

49. grafikoa. ED I I-LH4. Matematikarako konpetenziako dimentsioetako errendimendua geruzen arabera



Dimentsioetan geruzen puntuazioen arteko aldean adierazgarritasuna alderatzean honako hau nabari da:

- A geruza publikoak gainerako geruzetakoak baino nabarmen baxuagoak diren puntuazioak lortu ditu.

Dimentsioa: *Kopurua*

- B geruza publikoak gainerako geruzek baino puntuazio nabarmen baxuagoa lortu du, A geruza publikoak izan ezik. D geruza publikoko emaitza sarekoa baino nabarmen altuagoa eta itunpekoena baino baxuagoa da.
- Itunpeko geruzek ez dute alde adierazgarririk.

Dimentsioa: *Espazioa eta forma*

- B geruza publikoko aldea A publikokoa baino nabarmen altuagoa eta gainerako geruzena baino baxuagoa da.
- D geruza publikoak itunpekoak baino alde nabarmen baxuagoa du.
- Itunpeko B geruzak alde adierazgarria du itunpeko A eta D geruzarekin alderatuta.
- Itunpeko A eta D geruzen artean ez dago alde adierazgarririk.

Dimentsioa: *Aldaketak eta erlazioak*

- B eta D geruza publikoen artean, aldeak ez dira adierazgarriak.




- Itunpeko A geruzaren puntuazioak geruza publikoak baino nabarmen altuagoak dira.
- Itunpekoen arteko aldeak ez dira adierazgarriak

Dimentsioa: *Problemen ebazpena*

- B geruza publikoko aldea A publikokoa baino nabarmen altuagoa eta gainerako geruzena baino baxuagoa da.
- D geruza publikoak itunpekoak baino alde nabarmen baxuagoa du.
- Itunpeko B geruzak alde adierazgarria du itunpeko A eta D geruzarekin alderatuta.
- Itunpeko A eta D geruzen artean ez dago alde adierazgarririk.

Emaitzetan sakontzeko, *49-bis grafikoa*, informazio berbera erakusten da, baina geruzen arabera dago antolatuta; hau da, *Matematikarako konpetentzia* ebaluatzen den lau dimentsioetan geruza bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera.

49. bis grafikoa. ED11-LH4. Matematikarako konpetentziako dimentsioetako errendimendua geruzen arabera



Lau dimentsioetan lortutako puntuazioak nahiko homogeneoak dira geruza bakoitzaren baitan; horrek honako hau esan nahi du: lau dimentsioei emandako garrantziaren baliokidetasunean probak berak koherentzia izateaz gain, ikastetxeek ere modu orekatuan irakasten dituzte aipatutako ebaluatutako dimentsioak.

Ikus daitekeen moduan, A geruza publikoak lortu ditu emaitzarik baxuenak lau dimentsioetan, eta itunpeko ikastetxeek emaitza hobekien lortu dituzte eta beren artean oso antzekoak dira.

e) Matematikarako konpetentziako emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera

Ikastetxeek bi hizkuntza-aukeren arteko hautaketa egin zezaketen *Matematikarako konpetentziako* proba egiteko: euskara edo gaztelania. A eta D ereduak ia ikasle guztiek irakas-hizkuntzan egin dute proba (gaztelania eta euskara, hurrenez hurren). B ereduaren kasuan, proba euskaraz egin dutenen ehunekoa baxua da, eta itunpeko sarean ehuneko hori sare publikoan baino altuagoa da.




PROBAKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Proba euskaraz egin zuten ikasleek 255 puntu lortu dituzte, gaztelaniaz egin zuten ikasleek lortutako puntuazio berbera. Datu honek berez ez du informazio adierazgarririk eskaintzen; beraz, beste aldagai batzuekin alderatu beharko da, analisi sakonagoa egin ahal izateko.

Matematikarako kompetentziako emaitzak probako hizkuntzaren arabera

Probako Hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	11.901	255	0,44
Euskara ez dena	6.149	255	0,60

50. grafikoa. ED1 I-LH4. Matematikarako kompetentzian errendimendua probako hizkuntzaren arabera



Geruza bakoitzean proba euskaraz eta gaztelaniaz egin duten ikasleen ehunekoak erakusten du taula honek.

Matematikarako kompetentzia proba egiteko erabili den hizkuntza, geruzen arabera

Geruza	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A Publikoa	0	0,00	372	100
B Publikoa	222	18,7	966	81,3
D Publikoa	7.404	98,5	115	1,5
Itunpeko A	0	0,00	941	100
Itunpeko B	263	6,5	3.754	93,5
Itunpeko D	4.012	99,98	1	0,02
GUZTIRA:	11.901	(% 65,9)	6.149	(% 34,1)

2011. urteko Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 66k proba euskaraz egin dute: D ereduko ia ikasle guztiak. B ereduko ikasleen % 76k baino gehixeagok gaztelaniaz egin dute, baita A ereduko ikasleen % 100ek ere.



ETXEKO HIZKUNTZAREN ARABERA

Ikasleen etxeko hizkuntzaren analisiak erakusten du familian euskaraz hitz egiten duten ikasleek *Matematikarako konpetentzian* 270 puntu lortu dituztela, eta familian gaztelaniaz hitz egiten dutenek 251 puntu. Aldea adierazgarria da.

Matematikarako konpetentziako emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera.


Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	4.207	270	0,70
Euskara ez dena	13.843	251	0,40

51. grafikoa. EDI I-LH4. Matematikarako konpetentzian errendimendua etxeko hizkuntzaren arabera



51. bis grafikoa, *Matematikarako konpetentzian* hiru errendimendu mailetan ikasleen banaketa ageri da; alde batetik, etxeko hizkuntza euskara dutenak eta bestetik euskara ez dutenak (batez ere gaztelania) ageri dira. Etxeko hizkuntza euskara denean. Ikasleen % 50 baino gehiago maila aurreratuan kokatzen da, eta etxeko hizkuntza beste bat duten ikasleen portzentajea % 35,5koa da.

51. bis grafikoa. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Matematikarako konpetentzian etxeko hizkuntzaren arabera



Jarraian ageri den taulak geruza bakoitzean etxeko hizkuntzaren araberrako ikasleen ehunekoa erakusten du.


Ikasleak eta etxeko hizkuntza geruzen arabera *Matematikarako kompetentzian*

Geruza	Euskara		Euskara ez dena	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A Publikoa	0	0,00	372	100
B Publikoa	28	2,4	1.160	97,6
D Publikoa	2.224	29,6	5.295	70,4
Itunpeko A	13	1,4	928	98,6
Itunpeko B	264	6,6	3.753	93,4
Itunpeko D	1.678	41,8	2.335	58,2
GUZTIRA:	4.207 (% 23,3)		13.843 (% 76,7)	

Matematikarako kompetentziako proba egin duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 23k baino gehiagoren etxeko hizkuntza euskara da.

Jarraian, B eta D ereduak emaitzak aztertu dira bi aldagaiak batera kontuan hartuz: probako hizkuntza eta ikaslearen etxeko hizkuntza.

B EREDUA

B ereduan sare publikoko ikasleen % 19k eta itunpeko sareko ikasleen % 7k kompetentzia honetako proba euskaraz egin zuten. Beraz, ehuneko handi batek proba gaztelaniaz egin zuten.

Probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean, *Matematikarako kompetentziako* emaitzak nabarmen altuagoak dira hizkuntza-aldaketa (euskara eta gaztelania ia kasu guztietan) dagoenean baino. Beste zenbait egoeratan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. Adibidez, B ereduan etxeko hizkuntza euskara zuten ikasleen artean 139k bakarrik egin zuten proba euskaraz, eta euskaldunak izanik 153k egin zuten gaztelaniaz.


Etxeko hizkuntza euskara ez denean (gehienetan gaztelania) eta probakoa gaztelania denean, emaitzak nabarmen altuagoak dira. Kontuan izan behar da B ereduetan *Matematika-kompetentziarako* irakas-hizkuntza gehienetan gaztelania izaten dela.

B ereduko ikasleen errendimendua etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntza / Etxeko hizkuntza	Batez bestekoa	Ikasle kop.	AT
Gaztelania/Euskara ez dena	257	4.567	0,68
Euskara/Euskara ez dena	238	346	2,66



52. grafikoa. ED I I-LH4. B ereduko emaitzak *Matematikarako konpetentzian* probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera



Datuak ikusirik, esan daiteke *Matematikarako konpetentzian* B ereduan etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen artean, emaitza hobeak lortu dituztela proba gaztelaniaz egin dutenek euskaraz egin dutenek baino. Emaitzek hipotesi hau egiaztatzen dute: emaitzak hobeak dira proba etxeko hizkuntzan egiten denean.

D EREDUA

D ereduan ikasle gehienek *Matematikarako konpetentziako* proba irakas-hizkuntzan erantzun zuten, hots, euskaraz.

Eredu honetan, probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat datozenean, hots, euskara denean, emaitzak nabarmen hobeak dira etxeko hizkuntza gaztelania (gehienetan) eta probako hizkuntza euskara direnean baino.


Etxeko hizkuntza gaztelania duten 116 ikaslek proba gaztelaniaz egin dute, baina ikasle horien emaitzak ez dira kontuan hartu, kopurua ez baita nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko.

D ereduko ikasleen errendimendua etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Probako hizkuntza / Etxeko hizkuntza	Batez bestekoa	Ikasle kop.	AT
Euskara/Euskara	270	3.902	0,73
Euskara/Euskara ez dena	248	7.514	0,55



53. grafikoa. ED I I-LH4. D ereduko emaitzak *Matematikarako kompetentzian* probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera




D ereduan ere badirudi hainbat ikerlanetan aipatu den hipotesia egiaztatzen dela: probako emaitzak hobeak dira etxeko hizkuntza mantentzen denean.

f) *Matematikarako kompetentziako emaitzak, indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)*

Populazio osoa 4 ISEK mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da.

Ondoko grafikoa lau ISEK mailatan lortutako batez besteko puntuazioa ageri da.

54. grafikoa. ED I I-LH4. Emaitzak *Matematikarako kompetentzian* eta ISEK maila




Matematikarako kompetentzian lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua orduan eta hobeagoa izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarriaian kompetentzia-mailatan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira ISEK maila bakoitzaren arabera.

ISEK maila altuenean, ikasleen % 93,3 kompetentzia honetako erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 78,8.



55. grafikoa. EDI I-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan
Matematikarako konpetentzian ISEK mailen arabera



Konpetentzia honetako maila aurreratua aztertzen badugu, ISEK maila altuan ikasleen % 49 biltzen dela eta ISEK maila baxuan ikasleen % 25 dagoela ikusten da.

g) Matematikarako konpetentzian lortutako eta esperotako emaitzen arteko alderaketa, ISEKen arabera, geruzaka

56. grafikoa, geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa –kolore argiko zutabea- eta indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen –kolore iluneko zutabea- batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiek antzeko ISEK izango balute abiapuntu gisa.³


Aldeen adierazgarritasuna aztertu ostean, ondorio gisa esan daiteke indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina ezeztatuko balitz, honako hau gertatuko litzatekeela:

- Itunpeko A eta B geruzek ez dute alde adierazgarririk hasierako puntuazioko emaitzen eta ISEK kontrolatutako ateratako puntuazioaren artean; ISEK mailaren arabera esperotako lekuan kokatzen dira.
- Itunpeko D geruzak ISEKen arabera legokioketena baino puntuazio nabarmen altuagoa lortu du, esperotakoaren gaineratik dago.
- Geruza publikoak ISEKen arabera esperotakoaren azpitik kokatzen dira.
- ISEKen efektua kontrolatuta dagoenean (zutabe urdina), geruzen balioen arteko aldeak adierazgarriak dira geruza guztien artean.

³ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdetegian indize honekin lotutako galderei erantzun dien ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



56. grafikoa. ED I I-LH4. Matematikarako kompetentziako batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu ondorengo puntuazioa




h) Matematikarako kompetentziaren errendimenduaren bilakaera: ED09–ED10–ED11

Jarraian, egindako hiru ebaluazio diagnostikoetan *Matematikarako kompetentzian* lortutako emaitzak alderatzen dira.

- **Emaitza orokorren bilakaera**

Lehen Ebaluazio diagnostikoan, ED09an, 250 puntuko batez bestekoa ezarri zen kompetentzia guztietarako. 2010eko edizioan, *Matematikarako kompetentzian* ikasleek lortutako batez besteko emaitza 248 puntukoa izan zen eta 2011n, puntuazioa 255 puntukoa izan da. Azken edizio honetan lortutako emaitza aurreko bietan lortutakoa baino nabarmen altuagoa da.

57. grafikoa. ED I I-LH4. Emaitzen bilakaera Matematikarako kompetentzian




ED11rekiko alderaketak ezarri dira



• **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera**

Hurrengo grafiko honetan ikus daitekeen moduan, 2011ko ebaluazioan maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoak gora egin du joan den urteko bi edizioekin alderatuta, eta hasierako mailan, ehunekoa hiru urtetako baxuena da.


58. grafikoa. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimenduen-mailetan Matematikarako konpetentzian



• **Emaitzen bilakaera geruzen arabera**

A geruza publikoan izan ezik (aldeak ez du esanahi estatistikorik), gainerako geruzetan, Ebaluazio diagnostikoko 2011ko edizioan lortutako puntuazioak 2010ean lortutakoak baino nabarmen altuagoak dira. 2011ko puntuazioak 2009ko ebaluaziokoekin alderatuta, aldeak nabarmen altuagoak dira D geruza publikoan eta itunpeko B eta D geruzetan.

59. grafikoa. ED11-LH4. Emaitzen bilakaera geruzen arabera Matematikarako konpetentzian







i) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZEN AZTERKETATIK ATERATAKO ONDORIOAK

Ikasleen banaketa hiru errendimendu mailetan.

Hau da ikasleen banaketa errendimendu-mailetak bakoitzean: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 11,5ek *Matematikarako konpetentziako* hasierako mailari dagozkion trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 49 inguru konpetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 39k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.

Ikasleen banaketa errendimendu mailen eta konpetentziako dimentsioen arabera aztertuz gero, ikusten da dimentsio guztiek antzeko joera dutela. Lau dimentsioetan, erdi-mailan dago ikasleen % 50 inguru, eta % 33k maila aurreratua gainditzen du.

Geruzen arabera banaketan, hasierako mailan, itunpeko sareko hiru ereduak batez bestekoaren ehunekoak duten ikasle kopurua baino gutxiago dute (% 11,5); era berean, maila aurreratuan ikasleen ehunekorik altuenak dituzten geruzak dira (% 39 baino gehiago).

Geruza publikoek erdi-mailan gutxi gorabehera % 51k dute. Hala eta guztiz ere, A publikoak ditu ehunekorik altuenak hasierako mailan, eta baxuaenak maila aurreratuan.

Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Matematikarako konpetentziako batez besteko emaitzetan aldeak aztertu ostean, adierazgarritasunaren ikuspegitik honako hau ondorioztatzen da:

- A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira.
- Itunpeko A eta D ereduaren geruzek gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu dituzte.
- Itunpeko sarearen geruzak batez besteko orokorraren gainean kokatzen dira konpetentzian (255 puntu).
- Hizkuntza-eredu bakoitzean, sare publikoari dagozkien geruzek itunpeko sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte eta batez besteko orokorraren azpitik kokatzen dira.

Emaitzak probako hizkuntzaren eta ikaslearen etxeko hizkuntzaren arabera

Emaitzak ikusirik, esan daiteke B ereduan *Matematikarako konpetentzian* etxeko hizkuntza gaztelania duten eta proba etxeko hizkuntzan egiten duten ikasleek puntuazio nabarmen altuagoak lortu dituztela etxeko hizkuntza gaztelania duten eta proba euskaraz egiten duten ikasleek baino.

Era berean, D ereduan etxeko hizkuntza eta probakoa euskara denean emaitzak nabarmen altuagoak dira hizkuntza-aldaketa (euskara/gaztelania) dagoenean baino.

Badirudi hipotesi hau egiaztatzen dela: emaitzak hobek izaten dira proban etxeko hizkuntza mantentzen denean.



Emaitzak indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabera (ISEK)

ISEK indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaiak eragin nabaria izaten du ikasleen emaitzetan. *Matematikarako kompetentzia* lotura zuzena dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean maila guztietan: ISEK indizea zenbat eta altuagoa izan, emaitzak orduan eta hobeak dira. Aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

ISEK maila altuko ikasleen % 93 kompetentziako erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen da, eta ISEK maila baxuko ikasleen % 79 dago maila horietan.

Kompetentzia honetako maila aurreratua aztertzen badugu, ISEK maila altuan ikasleen % 49 biltzen dela eta ISEK maila baxuan ikasleen % 25 dagoela ikusten da.

Emaitzak aztertzean ISEK indizearen aldagaiaren eragina kontrolatzen denean, honako hau ikusten da:

- Geruza publikoetan, puntuazioek gora egingo lukete ISEKaren eragina kenduz gero, hala ere, esperotakoaren azpitik kokatzen dira.
- Itunpeko A eta B geruzak ISEK mailaren arabera esperotakoaren arabera kokatzen dira. Itunpeko D geruzak esperotakoa baino puntuazio altuagoa lortu du.
- ISEK kontrolatuz emaitzen arteko aldea nabaria da geruza guztien artean.

Matematikarako kompetentziaren errendimenduaren bilakaera: ED2009–ED2010-ED2011

2011ko Ebaluazio diagnostikoan *Matematikarako kompetentzia* ikasleek lortutako batez bestekoa ebaluazioko hiru edizioetako nabarmen altuena da.

Ikasleak errendimendu mailen arabera banatzeari dagokionez, hasierako mailan kokatzen da hiru edizioetako ehunekorik baxuena eta maila aurreratuan kokatzen da ehunekorik altuena.

A geruza publikoan izan ezik (aldeak ez dira esanguratsuak), gainerakoan, ebaluazio diagnostikoko 2011ko edizioan lortutako puntuazioak 2010ean lortutakoak baino nabarmen altuagoak dira. 2011ko puntuazioak 2009ko ebaluaziokoekin alderatuta, aldeak nabarmen altuagoak dira D geruza publikoan eta itunpeko B eta D geruzetan 2011n.



INGELESEZKO HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Definizioa

Ingeles-hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko.

Egitura

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia hiru dimentsiotan egituratu da:

- **Entzumena ingelesez**

Mota desberdinetako testuen bidez ebaluatzen da; horien gainean, aukera anitzeko galdera sorta bat egiten da, eta horiek, beste hainbat alorren artean, hauetarako gaitasuna neurtzen dute: testuen esanahi orokorra identifikatzeko, helburua ezagutzeko, informazio zehatza identifikatu edo aukeratzeko eta berezko ezagutzetatik testua interpretatzeko.

- **Irakurmena ingelesez**

Ezagarri eta luzera desberdinetako testuen bidez ebaluatzen da. Horien gainean, ideia garrantzitsuenak ezagutzeko, testuaren helburua eta generoa ezagutzeko eta informazio zehatzak identifikatzeko gaitasuna neurtzen duten aukera anitzeko hainbat galdera egiten dira.

- **Idazmena ingelesez**

Ingeleseko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira.

Dimentsio hau baloratzeko, LH 4ko ikasleei 30-40 hitzeko idazlana eskatu zitzaion. Horretarako, ikasleek eredu bat dute. 12 hitzetatik abiatutako testu guztiak zuzendu dira eta alor hauek baloratu dira:

- Gaiaren egokitasuna eta garapena:
 - Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
 - Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili duen ala ez.
 - Aditz-pertsonari eutsi dion.
- Testuaren koherentzia eta koherentzia:
 - Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
 - Eskatutako testuaren egitura errespetatzen duen eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
 - Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.
- Lexikoa, gramatika eta ortografia:
 - Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
 - Erabilitako esaldi motak.
 - Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

Emaitza orokorraz gain, dimentsio bakoitzean lortutako emaitzak erakusten dira.



a) Emaidza orokorrak

- **Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez besteko emaitzak**


Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia lehen aldiz ebaluatuenez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen batez besteko emaitza 250 puntutan ezarri da. Ondoko taulan konpetentzia honen ebaluazioa egitean kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, lortutako gehieneko puntuazioarekin (382 puntu) eta gutxieneko puntuazioekin batera (93 puntu).

Lehen Hezkuntzako 4. maila ED 2011

<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	N	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tipikoa
Puntuazio orokorra	18.073	92	385	250	50

60. grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazioan definitu diren hiru konpetentzia mailetak bakoitzean.

60. grafikoa. ED11-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian



Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ia %23k *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen %53 inguru konpetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen %24k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menderatzen ditu.

Hurrengo taulan ikus daiteke ikasleak zer egiteko gai diren ebaluazio honetan zehaztutako konpetentziako maila bakoitzean: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Hori abiapuntutzat hartuta, ikasle bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta dezakegu.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako errendimendu mailetak gaitasunen deskribapena.

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Maila honetako ikasleek komunikazio-ariketa sinpleak eta testuinguruan oso sartutako komunikazio-ariketak modu autonomoan garatzeko oso diskurtso-trebezia mugatuak dituzte. Gehienek proposatutako komunikazio-helburuak erdiesteko arazoak dituzte. Oso maiz erabiltzen diren hizkuntza-elementu solteak eta isolatuak erabiltzen ditu	Maila honetako ikasleek komunikazio-ariketa sinpleak eta testuinguruan kokatutakoak egiten dituzte. Gehienetan, proposatutako komunikazio-helburua lortzen dute. Komunikatzeko estrategia eraginkorrak (informazioaren tratamendua, irudien irakurketa, testuinguruaren interpretazioa...) erabiltzen dituzte. Bere ikasmalarekin	Maila honetako ikasleek komunikazio-ariketa sinpleak egiteko (eraginkortasuna maila altuarekin) diskurtso-trebeziak erakusten dituzte. Proposatutako komunikazio-helburua arrakastaz lortzen dute. Trebeziak erabiltzen dituzte komunikatzeko estrategia eraginkorrak (informazioaren tratamendua, irudien irakurketa, testuinguruaren



<p>ikasgelan eta proposatutako ariketak egiteko laguntza behar du. Linguistikoak ez diren estrategiak (informazioaren tratamendua, irudien irakurketa, testuinguruaren interpretazioa...) ia-ia ez ditu erabili ere egiten eraginkortasunez komunikatzeko.</p> <p>Entzumenean eta irakurmenean zentzu orokorra identifikatzen dute, baita testu sinple eta hurbilekoen testu-generoa ere, betiere, irudien laguntzarekin eta beste hizkuntza batzuen ezagutzarekin. Testu etenetan informazio zehatzen bat ere kokatzen du, baita ikasgelan landutako gai buruzko ohiko erabilerrako adierazpenak ere.</p> <p>Idatzizko ekoizpenetan, eredu baten laguntzarekin, oso ulergarria ez den testua egiten dute, ez dituzte gauzak oso ondo adierazten, askotan, beste hizkuntza batzuetara jotzen dute ingelesezko ezagutza mugatuak konpentsatzeko eta ez dute eskatutako komunikazio-helburua lortzen. Oro har, hitz solteak erabiltzen dituzte edo ereduaren kopia literala eginez erantzuten dute.</p>	<p>egokiak diren eta ikasgelan modu autonomoan ohikoak diren elementuak erabiltzen dituzte.</p> <p>Entzumenean eta irakurmenean, hasierako mailako konpetentziez gain, testuaren helburua eta ideia nagusia ezagutzen dituzte. Informazio zehatza eta garrantzitsua kokatzen dituzte alor akademikoko testuetan eta beren ezagutzetatik abiatuta, edukia interpretatzeko gai dira.</p> <p>Idatzizko ekoizpenetan, eredu baten laguntzarekin, komunikazio-helburua lortzen dute. Oro har, ereduaren informazioa modu koherentean ordezkatzen dute edo eruditik urruntzen saiatzen dira ekoizpen originalagoa egiteko. Idatzi ulergarria egiten dute ereduko hizkuntza-egiturak eta bereak erabiliz. Batzuetan, beste hizkuntza batzuetako lexikoa erabiltzen dute esan nahi dutena ulertzera emateko. Akats gramatikalak eta ortografikoak egiten dituzte, baina ez dute ulermena zailtzen.</p>	<p>interpretazioa, aurrerapenak, inferentziak...). Hainbat hizkuntza-elementu modu autonomoan eta eraginkorrean erabiltzen dituzte ikasmalarekin kontuan hartuz.</p> <p>Entzumenean eta irakurmenean, aurreko mailako konpetentziez gain, ezagutzen dute testua laburtzen duen sekuentzia eta edukiari buruzko inferentziak eta aurrerapenak egiten dituzte. Era berean, beren ezagutzekin jasotako informazioa interpretatu eta txertatzeko gai dira.</p> <p>Idatzizko ekoizpenean, ereduaren laguntzarekin, eraginkortasunez lortzen dute komunikazio-helburua. Ikasle hauen testua erraz ulertzen da, informazio asko ematen dute eruditik abiatuta, eta gainera, idatzia aberasten duten ideia originala barneratzen dituzte. Hizkuntza-egitura egokiak erabiltzen dituzte, lexiko aberatsa dute eta ia-ia ez dituzte akats ortografikoak egiten.</p>
---	--	---

Hauek dira dimentsioen arabera erabilitako testuak:

- **Entzumena:** Narrazio-testua (ipuina), elkarrizketa-testua, narrazio-testu laburra.
- **Irakurmena:** Azalpen-testua (fitxa teknikoa); dibulgaziozko testua, azalpen-testua (gonbidapena); -publizitate-testua
- **Idazmena:** 30 edo 40 hitzeko deskribapen-testua.

Ondoko taulak ebaluazioan definitu diren hiru dimentsioetako konpetentzia maila bakoitzean (hasierakoa, erdi-maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian errendimendu mailen deskribapena

	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Entzumena	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren zentzu orokorra gutxi gorabehera identifikatzen dute.</p> <p>Testu sinpleen eta familiarren sekuentzia ezagutzen dute.</p> <p>Testu-generoa ezagutzen dute irudien laguntzarekin edo beste hizkuntza batzuen ezagutzarekin.</p> <p>Eskatutako informazio zehatz batzuk kokatzen dituzte.</p> <p>Testuan ohiko adierazpen batzuk ezagutzen dituzte.</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren zentzu orokorra identifikatzen dute.</p> <p>Testuaren ideia nagusia identifikatzen dute.</p> <p>Testuaren sekuentzia ezagutzen dute.</p> <p>Testu-generoa ezagutzen dute norbere ezagutzetatik abiatuta.</p> <p>Eskatutako informazio zehatz gehienak kokatzen dituzte.</p> <p>Proposatutako helbururako jasotako informazioa erabiltzen dute.</p> <p>Testuko informazio garrantzitsu gehiena bereizten dute.</p> <p>Testuaren edukia interpretatzen dute beren ezagutzetatik abiatuta.</p> <p>Testuko ohiko adierazpen gehienak identifikatzen dituzte.</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren sekuentzia ezagutzen dute.</p> <p>Testuko igorlea ezagutzen dute.</p> <p>Testuaren generoari antzematen diote.</p> <p>Testuko informazio garrantzitsua bereizten dute.</p> <p>Testuko ohiko adierazpenak ezagutu eta identifikatzen dituzte.</p> <p>Testuaren edukiaren gainean aurrerapenak egiten dituzte.</p>
Irakurmena	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testu-generoa ezagutzen dute irudien laguntzarekin edo beste hizkuntza batzuen ezagutzarekin.</p> <p>Testu etenetan informazio zehatzen bat kokatzen dute.</p> <p>Proposatutako helbururako jasotako informazioa erabiltzen dute</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuko edukiaren laburpena identifikatzen dute.</p> <p>Testuko helburua identifikatzen dute beren ezagutzen laguntzarekin.</p> <p>Testuko informazio garrantzitsu gehiena bereizten dituzte.</p> <p>Eskatutako informazio zehatz</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren edukiaren laburpena eta horren helburua zailtasunik gabe identifikatzen dituzte.</p> <p>Testuaren helburua identifikatzen dute.</p> <p>Testuko informazio garrantzitsua bereizten dute.</p> <p>Proposatutako helbururako jasotako</p>



	<p>laguntzarekin. Testuko informazioa interpretatzen dute laguntzarekin, norbere ideietatik abiatuta.</p>	<p>gehienak kokatzen dituzte. Proposatutako helbururako jasotako informazioa erabiltzen dute. Testuko informazioa interpretatzen dute norbere ideietatik abiatuta.</p>	<p>informazioa erabiltzen dute. Beren ideiekin testuaren informazioa interpretatu eta osatzen dute. Testuaren edukiaren gainean inferentziak egiten dituzte.</p>
Idazmena	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren helburua bete ere ez dute egiten ia-ia: Emandako informazioa eskasa da. Adierazten dituzten ideiak ez dira oso ulerkorrak eta emandako eredutik literalki kopiatzeko joera dute.</p> <p>Testu-generoko oinarrizko ezaugarri batzuk errespetatzen dituzte, eredu bati jarraituz.</p> <p>Ideiak ez daude logikarekin antolatuta.</p> <p>Askotan, beste hizkuntza batean hitz egiten dute edo eredu koherentziarik gabe kopiatzen dute.</p> <p>Errore gramatikalak eta ortografikoak ugariak dira eta testuaren ulermena zailtzen dute.</p> <p>Lexikoa pobrea da eta beste hizkuntza batzuetara jotzen dute maiz.</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Testuaren helburua betetzen dute: oro har, ariketan eskatutako informazioa eskaintzen dute eta testua erraz ulertzen da. Ereduko informazioa datu egokiek eta batez ere testuinguruarekin koherenteak direnekin ordezkatzeko dute.</p> <p>Testu-generoaren egitura errespetatzen dute ereduari jarraituz. Ideiak modu logikoan ordenatzen dituzte eta ordena mantentzen dute eredu paragrafoetan. Informazioa elkartzeko gutxien testu-konektore bat erabiltzen dute.</p> <p>Akats gramatikalak eta ortografikoak egiten dituzten arren, akats horiek ez dute testuaren ulermena zailtzen. Proposatutako egoerarekin egokia den lexikoa erabiltzen dute. Batzuetan, hitzen bat beste hizkuntza batean erabiltzen dute komunikazioa bermatzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak honako hauek egiteko gai dira:</p> <p>Komunikazio-helburua lortzen dute eredu jarraibidea jarraituz. Eskatutako informazioa eskaintzen dute eta ariketari egokitutako ideiak gehitzen dituzte. Eredua erabiltzen dute ordezkapen koherenteak eginez eta ideia berriekin osatuz. Idatzia oso ondo ulertzen da.</p> <p>Testu-generoko oinarrizko ezaugarri batzuk errespetatzen dituzte, eredu zabalago bati jarraituz. Ideiak modu logikoan eta paragrafoetan ordenatuta antolatzen dituzte. Informazioa batzako testu-konektore bat baino gehiago erabiltzen dituzte.</p> <p>Testua egokia da gramatikaren eta ortografiaren erabilerari dagokionez, hala ere, akatsen bat ere izan dezake. Proposatutako egoerarako egokia eta ikasmalarako aberatsa den lexikoa erabiltzen dute.</p>

b) Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako dimentsioen arabeko emaitzak

Aurretik adierazi den moduan, Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta horren dimentsioak lehen aldiz ebaluatu denez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen batez besteko emaitza 250 puntutan ezarri da. Ondoko taulan konpetentzia honen ebaluazioa egitean kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, baita dimentsio bakoitzean lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioa ere.

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak dimentsioen arabera


Dimentsioak	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tipikoa
Entzumena	18.073	101	382	250	50
Irakurmena		107	368	250	50
Idazmena		141	360	250	50

Jarraian, Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ebaluatu diren hiru dimentsioetan errendimendu mailen arabeko ikasleen banaketa konpetentzia mailen arabera grafikoki adierazten da.

Ingeleseko entzumena eta irakurmena dimentsioek ikasleen ehunekoari dagokionez, antzeko jokaera erakusten dute hiru mailetan. Idazmena da hasierako mailan ehunekorik baxuena (% 18,3) eta maila altuan ehunekorik altuena duena, ia ikasleen % 30.



61. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian dimentsioen arabera



c) Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera


Ondoko taulan eta grafikoa, ebaluazioa honetan geruzen arabera lotutako puntuazioak ageri dira. Horrekin batera, geruza bakoitzeko puntuazioan txertatu diren ikasle kopurua ageri da.

Ingeleseko hizkuntza-komunikazioko emaitzak geruzen arabera

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A Publikoa	380	203	2,12
B Publikoa	1.197	235	1,38
D Publikoa	7.591	241	0,53
Itunpeko A	864	278	1,87
Itunpeko B	3.997	259	0,80
Itunpeko D	4.044	261	0,75
GUZTIRA:	18.073		

62. grafikoa, geruza bakoitzeko ikasleek lortutako batez besteko emaitzak, eta puntuazio baten eta bestearen arteko aldean adierazgarritasuna ikus daitezke. Grafikoa koadroan, estatistika-adierazgarritasunik gabeko puntuazioak dituzten geruzak (itunpeko B eta D) biltzen dira. Gainerako guztien artean, aldeak adierazgarriak dira.

62. grafikoa. ED I I-LH4. Ingelesazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzien emaitzak geruzen arabera




Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik



63. grafikoan, geruza bakoitzean Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian finkatutako errendimenduko hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira.

63. grafikoa. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa konpetentzian



Geruzetako ikasleen banaketa hiru konpetentzia mailetan aztertzean honako hau nabarmendu behar da:

- Hasierako mailan, itunpeko hiru geruzek batez bestekoak baino ikasle ehuneko baxuagoa dute (% 22,7).
- Maila aurreratuan, itunpeko A, B eta D geruzek batez bestekoa baino ehuneko altuagoa dutela ikusten da (% 24): Itunpeko D geruzak % 30,5; itunpeko B-k % 30,3 eta itunpeko A-k, berriz, % 47.
- A geruza publikoan, ikasleen % 62,4k hasierako mailari dagozkion ariketa sinpleak egiten ditu.


d) Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Ondoko grafikoan, Euskadiko hezkuntza-sistema osatzen duten 6 geruzetan Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak ikus daitezke. Sei geruzen arteko aldean adierazgarritasunari dagokionez, honako hau ikusten da:

- Geruza guztien artean, entzumen dimentsioan aldea adierazgarria da.
- Irakurmenean, adierazgarria da guztien artean, itunpeko B eta D geruzen artean izan ezik.
- Idazmeneko emaitzen aldea adierazgarria da geruza guztien artean.




64. grafikoa. EDII-LH4. Dimentsioetako emaitzak Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian geruzen arabera



Azterketan sakontzeko, 64. bis grafikoan, geruza bakoitzak hiru dimentsioetan lortzen dituen puntuazioak ageri dira. Hiru dimentsioen barne emaitzak nahikoa homogeneoak dira; horrek honako hau adierazten du: hirurei emandako garrantzien baliokidetasunean probaren beraren koherentziaz gain, ikastetxeek modu orekatuan irakasten dituztela ebaluatutako dimentsioak.

64. bis grafikoa. EDII-LH4. Emaitzak Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan geruza bakoitzean




e) Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako emaitzak hizkuntza-ereduen arabera

Euskal hezkuntza sistema osatzen duten hizkuntza-eredu bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak aztertuz, eta grafikoan erakusten den moduan, D ereduak A eta B ereduak baino puntuazio nabarmen baxuagoa lortu du Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




65. grafikoa. ED I I-LH4. Emaitzak Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentian hizkuntza-ereduen arabera



f) Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

Populazio osoa 4 mailatan banatu da (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua) eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera. Honako grafikoa lau ISEK mailatan lortutako batez besteko puntuazioa ageri da.

66. grafikoa. ED I I-LH4. Emaitzak Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailaren arabera




Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian, ISEK maila bakoitzean hiru kompetentzia mailatan dagoen ikasleen ehunekoa agertzen da.



67. grafikoa. EDII-LH4. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK mailen arabera



ISEK maila altuenean, ikasleen % 87,5 kompetentzia honetako erdi-mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aitzitik, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 62.

Kompetentzia honetako maila aurreratua aztertzen badugu, ikus dezakegu ISEK maila altuan ikasleen % 37,4 biltzen dela, eta ISEK maila baxuan, berriz, % 9. ISEKeko erdi-mailan, hasierako mailan eta maila aurreratuan ehunekoetan dauden aldeak % 5 ingurukoak dira.

g) Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian lortutako eta esperotako emaitzen alderaketa ISEK mailaren arabera

Azterketa hau egiteko, ikasleen galdetegian indize honen kalkulua egiteko aukera ematen duten galderak erantzun dituzten ikasleak soilik hartzen ditu kontuan.

Hasierako hipotesia hau da: Ikasleen indize sozioekonomiko eta kulturalaren eragina kontrolatzen denean, zenbait geruzatako ikasleen emaitzen arteko aldeen zati bat desagertu egiten dira.

ISEKen kalkuluarekin zerikusia duten galderei erantzun dien ikasleak soilik kontuan hartuz geruza bakoitzak lortzen dituen emaitzak, Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, 68. grafikoa daude islatuta; bertan ageri da geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa -kolore argiko zutabea- eta horietako bakoitzak lortuko lukeen batez besteko puntuazioa -kolore iluneko zutabea- indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz; hau da, geruza berberetako ikasle guztiek ISEK berbera izango balute.⁴


Itunpeko sareko geruzek, Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian, ISEKen mailaren arabera esperotakoa baino puntuazio nabarmen hobeak lortu dituzte; hau da, hasierako puntuazioak ISEKen efektua kontrolatuz lortuko lituzkeenak baino altuagoak dira.

ISEK kontrolatuz lortutako puntuazioen arteko aldea adierazgarria da geruza guztietan.

⁴ ISEK indizeak emaitzetan izan duen eragina galdetegian indize honekin lotutako galderei erantzun dien ikasleekin soilik kalkulatu da; ikasle batzuei buruz ez dugu informazio hori eta ikasle horiek ez daude kalkulu honetan sartuta.



68. grafikoa. ED I I-LH4. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia betez besteko puntuazioa eta ISEK indizea kontrolatu ondorengo puntuazioa




h) Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen arabera

Oro har, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea kompetentzietako emaitza negatiboekin lotzen da; izan ere, ekintza horietara, batez ere, eskatutako mailak erdiesteko ahalegina behar duten ikasleak joaten direla uste izaten da. Hala ere, "ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea" aldagaia aztertzen denean, emaitzetan eragin positiboa duela dirudi; horren ondorioz, jarduera hauetan parte hartzen duten ikasleek hizkuntza honen ezagutzan sakontzea dute helburu, eta ez eskatutako gutxienekoetara iristea.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan kompetentzia honen proba egin zuten ikasleen % 30 ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretara joaten da.

Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretara joaten den edo joaten ez den ikasleen emaitzen aldeak esanahi estatistikoak ditu.

69. grafikoa. ED I I-LH4. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen arabera






i) Ingeleseko eskolaz kanpoko jarduerak eta ebaluatutako beste kompetentzia batzuetako emaitzak

Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleek ezagutzak hobetzeko egiten duela aintzat hartuta, eta ez eskatutako gutxienekoak erdiesteko, jarraian, jarduera horietan parte hartzen duten eta parte hartzen ez duten ikasleen ebaluatutako beste oinarritzko kompetentzietako emaitzak erakusten dira.

70. grafikoa. ED I I-LH4. Kompetentzietako emaitzak ingelesezko kanpoko jardueretan parte hartzen duten ala ez kontuan hartuta




Ingeleseko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleek lortzen dituzten emaitzetatik ondoriozta daiteke emaitza akademiko onak dituzten ikasleak direla; guztietan Euskadiko batez bestekoaren gainetik kokatzen dira eta.

Ikasleak Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailetan eta ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan banatzea

Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako hiru mailetan, ikasleen ehunekoa, hizkuntza horrekin zerikusia duten eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen edo ez hartzearen arabera, grafiko honetan ageri da.

71. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen ehunekoa Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailetan, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten kontuan hartuta





Errendimenduko maila aurreratuan, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleen % 34,2 kokatzen da, eta hori egiten ez duen ikasleen % 20 inguruk lortzen du maila hori.

Hasierako mailan, jardueretan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa % 14,8koa da, eta parte hartzen ez dutenen ehunekoa % 26koa da.

j) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleen ISEK maila


Azterketa honen helburua ingelesezko eskolaz kanpoko eskoletan parte hartzen duten ikasleek, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan arazoak ez izateaz gain, maila sozio-ekonomiko eta kultural jakin bati dagokion. *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* puntuazioan sartu den ikasleen ikastetxeko ISEKen gainean egiten da kalkulua.

72. grafikoan ikus daitekeen moduan, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duen maila sozio-ekonomiko eta kultural baxuko ikasleen ehunekoa (% 19,5) ehunekoa maila altuko ehunekoa (% 35 baino zertxobait gehiago) baino ia 16 puntu baxuagoa da.

Maila ertain-altuan eta altuan jarduera hauetan parte hartzen duten ikasleen arteko aldea % 2,6koa da.

Maila ertain-baxuan, % 27 inguruk ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan hartzen du parte, maila sozioekonomiko baxuko ikasleen % 7,4k baino gehiagok.

72. grafikoa. ED11-LH4. Ikasleen ehunekoa eta ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea ISEK mailaren arabera




k) Ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa geruzen arabera

Jarraian, 73. grafikoan, ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen eta ikasleak eskolatuta dauden geruzen arteko lotura aztertzen da.



73. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasleen ehunekoa eta eskolaz ingelesezko kanpoko jarduerak geruza bakoitzean



Itunpeko B eta D geruzetako ikasleak, % 33 gutxi gorabehera, dira ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretara gehien joaten direnak; oso hurbil daude itunpeko A geruzako eta D geruza publikoko ikasleen % 28. B geruza publikoko ikasleen % 25ek ere hartzen du parte. A geruza publikoa ingelesezko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duen ikasleen ehunetik baxuenean kokatzen da, % 15ekin.





I) INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAREN AZTERKETATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

Ikasleen banaketa hiru errendimendu mailetan

Hau da ikasleen banaketa errendimendu-mailetako bakoitzean: 4. mailako Lehen Hezkuntzako ikasleen % 23 inguruk *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hasierako mailari dagozkion trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 53 inguru konpetentziako erdi-mailan dago, eta ikasleen % 24k konpetentziako maila aurreratuari dagozkion zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.

Konpetentziaren dimentsioen araberako banaketan, Entzumenean, % 21 hasierako mailan kokatzen da eta % 22 aurreratuan. Irakurmenean, hasierako mailan kokatzen da % 23 eta maila aurreratuan % 24 baino zertxobait gehiago. Idazmenean, gehienera jota % 30ek lortzen dute maila aurreratua eta % 18 baino zertxobait gehiago hasierako mailan kokatzen da.

Geruzen araberako banaketan, itunpekoek, hasierako mailan, batez bestekoa baino ikasle ehuneko baxuagoa dute (% 22,7) eta maila aurreratuan hori baino ehuneko altuagoa dute: Itunpeko D geruzak % 30,5; itunpeko B-k % 30,3 eta itunpeko A-k, berriz, % 47. A geruza publikoan, ikasleen % 62,4k hasierako mailari dagozkion ariketa sinpleak egiten ditu.

Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian sei geruzen batez besteko emaitzetan aldeak aztertuz gero, adierazgarritasunaren ikuspegitik ikusten da puntuazioko alde guztiak adierazgarriak direla itunpeko B eta D geruzetakoak izan ezik. Itunpeko geruzak 250 puntutan ezarritako batez bestekoaren gainean kokatzen dira.

Itunpeko A geruzak gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu ditu.

Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

ISEK indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaiak eragin nabaria izaten du ikasleen emaitzetan. *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lotura zuzena dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean maila guztietan: ISEK indizea zenbat eta altuagoa izan, emaitzak orduan eta hobekiago dira. Aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

ISEK maila altuko ikasleen % 37k baino gehixeago konpetentziako maila aurreratuan biltzen da, eta ISEK maila baxuko ikasleen artean, maila honetako ehuneko % 9koa da. Erdi-mailan biltzen da maila sozioekonomiko eta kultural ertain-altuko eta ertain-baxukoen % 55.

ISEK aldagaiaren efektua geruzetan kontrolatzen denean, itunpeko sareko geruzek konpetentzian beren ISEK mailaren arabera esperotakoa baino emaitza nabarmen hobekiago lortu dituztela ikusten da; hau da, hasierako puntuazioak ISEK-en efektua kontrolatuz lortuko zituzketenak baino altuagoak dira. Geruza guztien artean ISEK kontrolatuz puntuazioen aldea adierazgarria da.

Emaitzak ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzearen arabera

Ingelesezko jardueretan parte hartzen duten ikasleen % 30ek lortzen duten batez bestekoak 250 puntuko batez besteko orokorra gainditzen du eta mota honetako jardueretan parte hartzen ez duten ikasleek



lortzen dutena baino nabarmen altuagoa da. Oro har, beste eremu batzuetan eskolaz kanpokoetara joatea ez dator bat lortutako emaitzekin; beraz, ondorioztatzen da eskatutako gutxienekoak lortzeko sustapen-eskolak direla, baina ez dirudi ingelesezko eskolaz kanpokoaren kasua denik.

Mota honetako eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duten ikasleek badirudi ez duela arazo akademikorik; izan ere, ebaluatutako gainerako konpetentzietan ere batez bestekoaren gainetik dauden puntuazioak lortzen ditu.

Aipatutako jardueretan parte hartzen duen ISEK maila altuko ikasleen ehunekoa % 35 baino zertxobait altuagoa da, aldiz, ISEK maila baxukoaren artetik % 19,5ek hartzen du parte.



3. B. GERUZEN EZAUGARRIAK ISEK-EN ARABERA





GERUZEN EMAITZAK ETA EZAUGARRIAK ISEK INDIZEAREN ARABERA

Arestian aipatu denez, oso estu lotuta daude ikasle edo ikastetxe batek ebaluazio honetan lortutako emaitza eta bere maila sozioekonomikoa eta kulturala. Hala eta guztiz ere, txosten honetan ikusi ahal izan denez, ezaugarri horrek ez ditu ezeztatzen geruzen arteko ezberdintasun guztiak, ISEK-en azaltzeko gaitasuna, handia bada ere, mugatua delako.

Emaitzetan eragin argia duten beste faktore eta aldagai batzuk ere badaude. Horien artean, “balio erantsia” izeneko aipatu behar dugu ikastetxeak duen hezkuntza-ekintza dela eta. Balio horrek honako aldea erakusten du: benetan lortutako emaitzen eta ezaugarri sozialen, ekonomikoen eta kulturalen arabera, talde edo ikastetxe jakin baterako aurrez ikusitako lorpenaren arteko aldea. Erantzun nahi den galdera da ikastetxe batek bere ikasleen maila sozioekonomikoa eta kulturala kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza hobek lor ditzakeen.

Balio horrek ikastetxeen zenbait gaitasun adierazten ditu, besteak beste, ikasleei beren ingurua kontuan izanik espero baino garapen-aukera handiagoak eskaintzeko gaitasuna, edo ikastetxea ikasle guztiak garapen-aukera berdinak edukitzeari begira antolatzeko gaitasuna.


Ondoren, barriadura-grafiko bat ageri da. Grafikoan datoz, alde batetik, ikastetxeetako maila sozioekonomikoa eta kulturala, ardatz horizontalean adierazitakoa, eta bestetik *Matematikarako konpetentziako* puntuazioa⁵, ardatz bertikalean adierazita. Grafikoan bi aldagai horien gurutzatzea erakusten da, bi lerro etenekin batera: bata *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa adierazten du, eta besteak etapa horretan ebaluatutako populazio osoaren batez besteko indize sozio-ekonomikoa eta kulturala adierazten du. Grafikoan ageri den lerro diagonalak bi aldagaien arteko erlazioa adierazten du. Ikastetxe edo ikastalde bat bere ezaugarri sozio-ekonomikoa eta kulturalaren arabera dagokion puntuaren gainera edo azpitik dagoen adieraziko luke.

Grafikoan, 2011ko aplikazioan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako 524 ikastetxe daude ordezkaturak. Puntu bakoitzak ikastetxe bat ordezkatzeko du. Puntuaren kolorea ikastetxe batez besteko ISEKi dagokiona da -baxua, ertain-baxua, ertain-altua edo altua-. Horrela, ikastetxe berberetako ebaluatutako talde guztiak hizkuntza-eredu berbera izan ez arren, ikastetxe hori puntu bakar batek ordezkaturako du eta ikastetxe batez besteko ISEK-en kolorea izango du. Ikastetxe bakoitza ordezkatzeko duen puntuaren tamainak Lehen Hezkuntzako 4. mailan eskolatutako eta *Matematikarako konpetentziako* proba egin duten ikasleen kopuruarekin du lotura.

⁵ *Matematikarako konpetentzia* erabiltzen da; izan ere, egindako analisien arabera, konpetentzia horretako emaitzek gainerako konpetentzietako emaitzekiko korrelazio mailarik altuena erakusten dute. Gainera, konpetentzia ez-linguistikoa denez, hizkuntza-eredua, etxeko hizkuntza edo antzeko alderdiek hein txikiagoan eragiten diote.



74. grafikoa. EDII-LH4. Ikastetxeko ISEK eta Matematikarako kompetenziako emaitzen arteko lotura



Grafikoaren irakurketatik hainbat ondorio atera daitezke:

- 1. ISEK mailaren eta emaitzen arteko lotura baieztatu egiten da.** Grafikoak argi erakusten du joera hori eta diagonalaren inklinazioan edo erregresio-zuzenean ikus daiteke: zenbat eta inklinazio handiagoa, orduan eta lotura handiagoa emaitzen eta ISEKen artean. Horrekin batera ikus daiteke emaitzen barreiadura handiagoa dela ISEK maila baxuko ikastetxeetan gainerako mailetako ikastetxeetan baino. Maila horietan kontzentrazioa handiagoa izaten da.
- 2. Ikastetxe gehienak ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzetatik hurbil daude.** % 6,7 erregresio-zuzenaren inguruan daude (ISEKen arabera esperotako puntuazioa). Ehuneko hori esperotako puntuazioaren gaineratik edo horren azpitik 15 puntu inguru dituzten ikastetxeekin kalkulatu da, eta ondorioz, zuzenaren inguruan pilatzen dira.

Ebaluatutako ikastetxe guztien % 6k ikasleen ezaugarri sozio-ekonomikoak eta kulturalak kontuan hartuta espero zitezkeen emaitzak 25 punturekin edo gehiagorekin gainditzen dituzten batez besteko emaitzak lortu dituzte, eta % 7,7 erregresio-zuzenaren azpitik kokatzen da; izan ere, esperotakoa baino gutxienez 25 puntu gutxiago lortu ditu.

Ikastetxeen % 10ek esperotakoa baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzte; ondorioz, ISEKen arabera esperotako puntuazioa irudikatzen duen zuzenaren gainean kokatzen dira. Ikastetxeen 9,4k, puntu horiekin, ez du lortzen bere indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera esperotakoa; ondorioz, zuzenaren azpitik kokatzen da.



ISEKen arabera lortutako eta esperotako puntuazioaren arteko aldea	Ikastetxe kop.	Ikastetxeen ehunekoa
Esperotakoak baino 25 puntu edo gehiago lortu dituzte	32	6,14
Esperotakoa baino 15-25 puntu gehiago lortu dituzte	51	9,79
Esperotako puntuak lortu dituzte (aldea +/- 15 puntu)	349	66,99
Esperotakoa baino 15-25 puntu gutxiago lortu dituzte	49	9,40
Esperotakoak baino 25 puntu edo gutxiago lortu dituzte	40	7,68

Ez dago 3 ikastetxetako ISEKi buruzko informaziorik; izan ere, ez zuten ikasleen galdetegia bete.

- 3. Ikastetxeek ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren ezaugarriak gainditzea lor dezakete** beren hezkuntza-ekintzaren bidez. Grafikoan ikus daiteke zenbait ikastetxek ISEK maila berbera izan arren oso emaitza desberdinak lortu dituztela. Horrek adierazten du ikastetxearen irakaslana eta antolamendua giltzarria dela ikasleen ISEK mailak ikastetxearekiko izan ditzakeen mugak gainditzeko ala ez gainditzeko. Gainera, hori ISEK maila guztietan gertatzen da: ikastetxea edonolakoa izanik ere, bere esku hartzeak onerako ala okerrerako eragina izan dezake.
- 4. Lehen Hezkuntzako 4. mailan, oro har, ikastetxeen tamaina ISEK mailarekin lotuta dago.** ISEK maila altuko ikastetxeak besteak baino handiagoak dira *Matematikarako konpetentziako* proban.





a) A GERUZA PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

A geruza publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 2,5 eta ikastetxe publiko guztien % 4,9 biltzen du. Sexuen arabera, % 53,4 mutilak ziren eta % 46,6 neskak. *Matematikarako konpetentziako* proba egin zituen ikasleen datuak kontuan hartuz, geruza honetako ikasleen jatorria etxeko hizkuntza euskara ez den beste bat da, gehienetan gaztelania.

75. grafikoa. ED11-LH4. A publikoa. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera




76. grafikoa. ED11-LH4. A publikoa. Ikasleen ehunekoa adinaren eta ikasmailaren egokitasunaren arabera



Adin-egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekorik altuena duen geruza da, ikasleen % 37,1. Eskolatzearen hasieran gertatutako atzerapen baten eraginez edo ikasturte bat errepikatzeagatik izan daiteke.

Azkenik, ikasleen % 83,4 indize sozioekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator, eta geruza guztien artetik, hau da maila honetan ehunekorik altuena duena; era berean, ISEKeko maila altuan honek du mailarik txikiena, % 0rekin.


77. grafikoa. A publikoa. Ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera



78. grafikoa ikus daitekeen moduan, diagonalaren inguruan dauden ikastetxeak edo taldeak dituen geruza da; horrek adieraziko luke haien ISEK-en arabera esperotako puntuazioa lortu dutela, baina era berean, ikastetxe batzuk diagonaletik behera edo gora daude urrutiratuta. Geruza honetan, aintzat har dezakegu zenbait ikastetxek edo taldek, ISEK berbera partekatu arren, oso emaitza desberdinak lortzen dituztela, 113 puntuko aldearekin, geruza guztien artetik handiena.




78. grafikoa. ED I I-LH4. A PUBLIKOA.
ISEK indizea eta Matematikarako kompetenziako emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, kompetentzia edo errendimendu mailen arabera ehunekoak 79. grafikoa ageri dira.

79. grafikoa. ED I I-LH4. A publikoa. Ikasleen ehunekoak kompetenzietako errendimendu-mailen arabera





A geruza publikoan, ez dago *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* maila aurreratua lortu duen ikaslerik; aldiz, beste 3 kompetentzietan maila aurreratuan dagoen populazioaren ehunekoak % 4 eta % 14 artekoa da. Erdi-mailan dagoen biztanleriaren ehunekoak % 33 eta % 63 artekoa da, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* izan ezik; bertan, ikasleen % 95ek baino gehixeagok hasierako mailako trebeziak soilik ditu.






b) B GERUZA PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak


B geruza publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 6,9 eta ikastetxe publiko guztien % 13,5 biltzen du. Sexuen arabera, % 53,7 mutilak ziren eta % 46,3 neskak. *Matematikarako konpetentziako* proba egin zuten ikasleen datuak kontuan hartuz, geruza honetako ikasleen jatorria etxeko hizkuntza euskara ez den beste bat da, gehienetan gaztelania, ia % 98. Ehuneko horretan daude euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat duten ikasleak ere.

Adin-egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekorik altuena duen bigarren geruza da, ikasleen % 19,1. Eskolatzearen hasieran gertatutako atzerapen baten eraginez edo ikasturte bat errepikatzeagatik izan daiteke.

80. grafikoa. ED I-LH4 . B publikoa.
Ikasleen ehunekoa etxeko
hizkuntzaren arabera




81. grafikoa. ED I-LH4. B publikoa.
Ikasleen ehunekoa adinaren eta
ikasmailaren egokitasunaren arabera



Azkenik, ikasleen % 46 indize sozioekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator. % 12,1 ISEKeko maila altuan kokatzen da eta ehuneko horrek A geruza publikoa soilik gainditzen du.


82. grafikoa. ED I-LH4. B publikoa. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan ISEK indizearen arabera





83. grafikoa ikus daitekeen moduan, diagonalaren inguruan dauden ikastetxeak edo taldeak dituen geruza da; horrek adieraziko luke haien ISEK-en arabera esperotako puntuazioa lortu dutela, baina era berean, ikastetxe batzuk diagonaletik behera edo gora daude urrutiratuta. Oso interesgarria da aintzat hartzea ISEK berbera duten zenbait taldek edo ikastetxek oso emaitza desberdinak lortzen dituztela, 95 puntuko aldearekin.

83. grafikoa. ED I I-LH4. B PUBLIKOA.
ISEK indizea eta Matematikarako konpetentziako emaitzen arteko erlazioa




Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako konpetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabeko ehunekoak 84. grafikoa ageri dira:



84. grafikoa. EDI I-LH4. B publikoa. Ikasleen ehunekoak konpetentzietako errendimendu-mailen arabera



B ereduko geruza publikoan ikasleen % 18k soilik lortu dute maila aurreratua *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ehuneko baxuago batek lortu du (% 14,6), eta beste bi konpetentzietan, maila aurreratua lortu dutenen kopurua % 34 eta % 61 artekoa izan da.






c) D GERUZA PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak

B geruza publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 41,6 eta ikastetxe publiko guztien % 81,6 biltzen du. Sexuen arabera, % 51,8 mutilak ziren eta % 48,2 neskak. *Matematikarako konpetentziako* proba egin zuten ikasleen datuak kontuan hartuz, geruza honetako ikasleen jatorria etxeko hizkuntza euskara ez den beste bat da, gehienetan gaztelania, ia % 70,5. Ehuneko horretan daude euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat duten ikasleak ere; % 29,5ek euskara du etxeko hizkuntza gisa.

Geruza honetan, adin-egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekoa % 10,1 da. Eskolatzearen hasieran gertatutako atzerapen baten eraginez edo ikasturte bat errepikatzeagatik izan daiteke.

85. grafikoa. ED11-LH4. D publikoa. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera




86. grafikoa. ED11-LH4. D publikoa. Ikasleen ehunekoa adinaren eta ikasmailaren egokitasunaren arabera



Ikasleen % 19,2 indize sozioekonomiko eta kultural baxua duten familietatik datoz, sare publikoko geruzen artetik baxuena. Familien % 14 ISEKeko maila altuan kokatzen da.


87. grafikoa. ED11-LH4. D publikoa. Ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera





88. grafikoa ikus daitekeen moduan, diagonalaren inguruan ikastetxe edo talde ugari dituen geruza da; horrek adieraziko luke haien ISEKen arabera esperotako puntuazioa lortu dutela, baina era berean, ikastetxe batzuk diagonaletik behera edo gora daude urrutiratuta. Geruza honetan, aintzat hartu behar da zenbait ikastetxek edo taldek, ISEK berberarekin, oso emaitza desberdinak lortzen dituztela, 108 puntuko aldearekin. Hori A geruza publikoak soilik gainditzen du.

88. grafikoa. ED11-LH4. D PUBLIKOA.
ISEK indizea eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko erlazioa




Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabeko ehunekoak 89. grafikoa ageri dira:



89. grafikoa. ED I I-LH4. D publikoa. Ikasleen ehunekoak kompetentzietako errendimendu-mailen arabera



D geruza publikoan, % 17 (*Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa*) eta ia % 36 artean (*Matematikarako kompetentzia*) maila aurreratuan dago kompetentzia guztietan. Erdiko errendimendu maila lortu duten ikasleen ehunekoa % 39 eta % 64 artekoa da.






d) ITUNPEKO A GERUZA

Geruzaren ezaugarriak


Itunpeko A ereduko ikastetxeetan daude eskolatuta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 5,1 eta itunpeko ikastetxeen % 10,4 biltzen du. Sexuen arabera, % 48,7 mutilak ziren eta % 51,3 neskak. *Matematikarako konpetentziako* proba egin zuten ikasleen datuak kontuan hartuta, familian gaztelania hitz egiten duten ingurunean jatorria duten geruza honetako biztanleria % 98,6 da. Ehuneko honetan daude euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza bat duten ikasleak.

Geruza honetan, adin-egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekoa % 6 da. Eskolatzearen hasieran gertatutako atzerapen baten eraginez edo ikasturte bat errepikatzeagatik izan daiteke.

90. grafikoa. ED I I-LH4. Itunpeko A. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera




91. grafikoa. ED I I-LH4. Itunpeko A. Ikasleen ehunekoa adinaren eta ikasmailaren egokitasunaren arabera



Azkenik, ikasleen % 5,1 indize sozioekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator, ehunekorik txikiena duen geruza da. Geruza guztien artetik, hau da ISEKeko maila altuan ikasleen ehunekorik altuena duena, % 77,5.


92. grafikoa. ED I I-LH4. Itunpeko A. Ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera





93. grafikoa ikus daitekeen moduan, diagonalaren inguruan ikastetxe edo talde ugari dituen geruza da; horrek adieraziko luke haien ISEKen arabera esperotako puntuazioa lortu dutela, baina era berean. Ikastetxe batzuk diagonaletik behera edo gora daude urrutiratuta. Geruza honetan, aintzat hartu behar da zenbait ikastetxek edo taldek, ISEK berberarekin, oso emaitza desberdinak lortzen dituztela, 60 puntuko aldearekin. Geruza guztien artean txikiena.


93. grafikoa. ED I I-LH4. ITUNPEKO A.
ISEK indizea eta Matematikarako kompetentziako emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabera ehunekoak 94. grafikoa ageri dira:

94. grafikoa. ED I I-LH4. Itunpeko A. Ikasleen ehunekoak kompetentzietako errendimendu-mailen arabera





Geruza honetan, hau nabarmendu behar da: *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* biztanleriaren % 5,8 soilik dago maila aurreratuan, eta beste hiru kompetentzietan maila aurreratuan daudenen ehunekoa % 38,5 eta % 47,1 artekoa da.






e) ITUNPEKO B GERUZA

Geruzaren ezaugarriak


Itunpeko B ereduko ikastetxeetan daude eskolatuta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 22 eta itunpeko ikastetxeen % 44,9 biltzen du. Sexuen arabera, % 51,2 mutilak ziren eta % 48,8 neskak. *Matematikarako konpetenziako* proba egin zuten ikasleen datuak kontuan hartuta, familian gaztelania hitz egiten duten ingurunean jatorria duten geruza honetako biztanleria % 93,4 da. Ehuneko honetan daude euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza bat duten ikasleak.

Geruza honetan, egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekoa % 7,7 da. Eskolatzearen hasieran gertatutako atzerapen baten eraginez edo ikasturte bat errepikatzeagatik izan daiteke.

95. grafikoa. ED11-LH4. Itunpeko B. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera




96. grafikoa. ED11-LH4. Itunpeko B. Ikasleen ehunekoa adinaren eta ikasmailaren egokitasunaren arabera



Azkenik, ikasleen % 8,9 indize sozioekonomiko eta kultural baxuko familietatik dator. % 48,8 ISEKeko maila altuan kokatzen da eta ehuneko hori itunpeko A eta D geruzek soilik gainditzen dute.

97. grafikoa. Itunpeko B. Ikasleen ehunekoa ISEK mailaren arabera




98. grafikoa ikus daitekeen moduan, diagonalaren inguruan ikastetxe edo talde ugari dituen geruza da; horrek adieraziko luke haien ISEKen arabera esperotako puntuazioa lortu dutela, baina era berean, ikastetxe batzuk diagonaletik behera edo gora daude urrutiratuta. Geruza honetan, aintzat



hartu behar da zenbait ikastetxek edo taldek, ISEK berberarekin, oso emaitza desberdinak lortzen dituztela, 91 puntuko aldearekin.


98. grafikoa. ED I I-LH4. ITUNPEKO B.
ISEK indizea eta Matematikarako konpetentziako emaitzen arteko erlazioa



Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako konpetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabera ehunekoak 99. grafikoa ageri dira:

99. grafikoa. ED I I-LH4. Itunpeko B. Ikasleen ehunekoak konpetentzietako errendimendu-mailen arabera





Geruza honetan, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* % 37 maila aurreratuan kokatzen da, eta *Euskarazkoan* % 27,5 soilik dago maila horretan. *Matematikarako kompetentzia*, ikasleen % 43,5 inguru mailarik altuenean dago. Ikasleen % 41 eta % 55 artean errendimenduko erdi-mailan dago kompetentzia guztietan.






f) ITUNPEKO D GERUZA

Geruzaren ezaugarriak


Itunpeko D ereduko ikastetxeetan daude eskolatuta Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien % 21,9 eta itunpeko ikastetxeen % 44,7 biltzen du. Sexuen arabera, % 51,9 mutilak ziren eta % 48,2 neskak. *Matematikarako konpetenziaren* proba egiten zuten ikasleen datuak kontuan hartuta, etxeko hizkuntza euskara den ingurunetik datozen geruza honetako biztanle kopurua % 41,8koa da. % 58,2ren etxeko hizkuntza gaztelania da batik bat, baina ehuneko honetan sartzen dira etxeko hizkuntza gaztelania ez den beste hizkuntza bat duten ikasleak ere.

Adin-egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekorik baxuena duen geruza da, ikasleen % 4,4. Eskolatzearen hasieran gertatutako atzerapen baten eraginez edo ikasturte bat errepikatzeagatik izan daiteke.

100. grafikoa. ED11-LH4. Itunpeko D. Ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera




101. grafikoa. ED11-LH4. Itunpeko D. Ikasleen ehunekoa adinaren eta ikasmilaren egokitasunaren arabera



Indize sozioekonomiko eta kultural baxuarekin ikasle ehunekorik baxuena duen geruza da, % 1,2, eta ISEKeko maila altuan ehunekorik altuena duen bigarrena; ehuneko hori itunpeko A geruzak soilik gainditzen du.


102. grafikoa. Itunpeko D. Ikasleen ehunekoa ISEK indizearen arabera





103. grafikoa ikus daitekeen moduan, diagonalaren inguruan ikastetxe edo talde ugari dituen geruza da; horrek adieraziko luke haien ISEK-en arabera esperotako puntuazioa lortu dutela, baina era berean, ikastetxe batzuk diagonaletik behera edo gora daude urrutiratuta. Geruza honetan, aintzat hartu behar da zenbait ikastetxek edo taldek, ISEK berberarekin, oso emaitza desberdinak lortzen dituztela, 71 puntu baino gehiagoko aldearekin. Hori itunpeko A geruzaren kasuan soilik da txikiagoa.


103. grafikoa. ED I I-LH4. ITUNPEKO D.
ISEK indizea eta Matematikarako kompetenziako emaitzen arteko erlazioa



Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako kompetentzia bakoitzean, errendimendu mailen arabera ehunekoak 104. grafikoa ageri dira:

104. grafikoa. ED I I-LH4. Itunpeko D. Ikasleen ehunekoak kompetentzietako errendimendu-mailen arabera





Geruza honetan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, ia ikasleen % 47 kokatzen da maila aurreratuan eta % 27 eta % 45 artean ebaluatutako beste hiru konpetentzietan. % 36 eta % 63 artean errendimenduko erdi-mailan kokatzen da (104. grafikoa).





**4. ALDAGAIEN AZTERKETA LEHEN
HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO IKASLEEN
EMAITZETAN DUTEN ERAGINA**





4. ALDAGAIEN AZTERKETA

Ebaluatutako oinarritzko konpetentzietako ikasleen errendimendua hainbat faktorek eragiten dute: ez ikasgelako prozesu didaktikoek edo ikastetxeko eta heziketa-sistemaren kudeaketa-ezaugarriek, bakarrik, baita ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonal eta familiarrekoak ere.

Familiarekin eta ikaslearen ezaugarri pertsonalekin lotutako faktoreak ikastetxearen kanpoko eraginak dira eta hezkuntza-prozesuak baldintzatzen dituzten *input* gisa hartu behar dira. Hala eta guztiz ere, ez da erraza parte hartzen duten faktore guztiak ezagutzea, ezta benetan zenbaterainoko eragina duten jakitea ere; gainera, askotan, zaila izaten da aldagaiaren eta errendimenduaren arteko kausa-efektua harremana egiaztatzea.

Ikasle bakoitzak familia bat du eta maila sozioekonomiko eta kultural jakina du, jatorri bat eta egitura- eta hizkuntza-ezaugarri espezifikoak ditu, baliabide material eta ondasun kultural jakinekin. Ikasleen galdetegiaren bidez, txosten honen helburua den azterketa egiteko informazio egokia bildu nahi da honako alderdiei buruz: familiarrekoak, ikasleen aurreikuspenak eta abar, baita ikaslearen sexuaren arabera ezaugarriak, adinaren eta ikasmilaren arteko egokitzapena, eskolatzearen hasierako adina eta abar ere.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan garrantzitsuak izan daitezkeen alorrak aztertzeke, banaka hartutako aldagai jakin batzuen eragina aztertzeaz gain, indizeak sortu dira balio estandarizatuekin, eta horiek ikasleek galdera-sortan erantzun dituzten zenbait galdera biltzen dituzte. Indize horien bidez, banakako edo testuinguruko egoera jakin batzuen deskribapenez eta emaitzetan duen eraginaren azterketaz gain, errendimenduaren eta elkartutako aldagaien artean egon daitezkeen loturaren analisia ere eskaintzen da, baita elkartutako aldagai horiek aldatzeko ahalmena duten eta zer neurritan egiten duten ere.

Faktore sozioekonomikoaren eta kulturalaren eragina neurtzeko ISEK indizea sortu da. Indizeak aldagai jarraitu baten forma hartzen du, eta bertan balio guztiak posible dira eta tipifikatuta daude (batez bestekoa 0 da eta desbideratzea 1 ekoa).

Azterketa aldagaien eta konpetentzietan errendimendurekin duten loturaren arabera egiteko, dagokion konpetentziako proba egin eta bere puntuazioa errendimendu orokorrerako hartu den ikasleak soilik hartu dira kontuan; gainera, ikasle horiek ikasleari aurkeztutako galdera-sortan kasu bakoitzean egokiak diren galderari erantzun die.

Ebaluazio honetan, aldagairik adierazgarrienak aukeratu dira azterketarako, eta Ebaluazio diagnostikoaren aurreko edizioarekin alderaketa ezartzea ahalbidetzen dutenak.

Hauek dira txosten honetan aztertu diren aldagaiak:



Familiako eta norbanakoaren aldagaiak

- ✓ Ikasleen sexua
- ✓ Adinaren eta ikasmilaren arteko egokitasuna
- ✓ Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza
- ✓ Aitaren eta amaren ikasketa maila
- ✓ Familiaren jatorria
- ✓ Aurreikuspen akademikoak
- ✓ Laneko ohiturak etxean
- ✓ Norberaren ezaugarriak (h.p.b.)
- ✓ Indize sozioekonomiko eta kulturala:
 - Indize sozioekonomiko eta laborala
 - Familiako ikasketak
 - Liburuak izatea
 - Etxean ordenagailua eta Internet izatea

Ikastetxearen aldagaiak

- ✓ Geruza: hizkuntza-eredua eta heziketa-sarea
- ✓ Ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko korrelazioa.
- ✓ Ikastetxeen eraginkortasuna emaitzen arabera
- ✓ Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak (Ikastetxeetako galdetegia).
- ✓ Elkarbizitza-ikaskuntza alorrak (Ikastetxeetako galdetegia).

Azterketarako aukeratu diren aldagai bakoitzean, analisi-metodologia hau jarraitu da:

1. Aldagaiaren zentzua eta garrantzia definitzen da, baita beste ebaluazio batzuetan –baldin badago- azterketarekin duen lotura eta datuak lortzeko erabili den iturria ere.
2. Lortutako erantzunen zuzeneko maiztasunak aztertzen dira, eta ondoren, ikuspegi estatistikotik zentzua izango duten taldeetan kategorizatzen dira.
3. Aldagaien definitutako kategoriekin ebaluatutako oinarrizko lau konpetentzietako errendimendu mailak batzen dira eta aldeak adierazgarriak diren ikusten da.
4. Ahal den kasuetan, aurreko urteetako ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatzen da.
5. Azkenik, egindako azterketatik abiatuta, zenbait ondorio eskaintzen dira.

Konpetentzietako bakoitzean emaitzen analisia egiteko, konpetentzia horretan proba egin duten eta puntuazio probako emaitza orokorretan kontuan hartu zaien ikasle kopurua hartu da kontuan.

Familia arloko aldagai, aldagai pertsonal eta bestelako aldagaiekin lotutako datuak kalkulatzeko, ikaslearen galdera-sortan kasu bakoitzean egoki den informazioari dagokion itemak erantzun dituzten ikasleak hartu dira erreferentzia gisa.

Ikastetxeen galdetegitik (Zuzendaritza Taldeek beteta) ateratzen da elkarbizitzari eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei buruzko deskribapen-azterketa.



a) EMAITZAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA

Euskara eta ingelesa hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, nesken errendimendua mutilena baino nabarmen altuagoa da. Gaztelania hizkuntza-komunikazioan ez dago alderik. Matematikarako konpetentzian, mutilek lortutako puntuazioa nabarmen altuagoa da.

Ikasleen sexuaren araberako emaitzetan, neskek mutilek baino askoz ere emaitza hobek sortu dituzte *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, bai euskaraz, bai ingelesez. Aldiz, ez dago alderik *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* emaitzetan. Hala eta guztiz ere, *Matematikarako konpetentzian*, mutilen errendimendua neskena baino nabarmen altuagoa da.


Hurrengo taulak Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilek ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioa erakusten du, baita emaitzen adierazgarritasuna ere. Itzaldura ilunak emaitzak aztertutako konpetentziaren batez bestekoaren berdina edo altuagoak direla esan nahi du.

Ikaslearen sexuaren arabera ebaluatutako konpetentzietan lortutako puntuazioak				
Konpetentziak	Nesak	Mutlak	Aldea	Adierazgarritasuna
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	261	251	10	bai
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	256	256	0	ez
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	255	245	10	bai
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	252	258	6	bai

BAI: % 95eko alde adierazgarria

Aurreko datuetan ikusten den moduan, alderik handiena *Euskarazko eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari* dagozkion puntuazioetan gertatzen da; hain zuzen ere, neskek 10 punturekin gainditzen dituzte mutilak. *Matematikarako konpetentzian*, mutilen taldeak neskenak baino 6 puntu gehiago lortzen ditu eta alde hori ere adierazgarria da.

105. grafikoa. ED1 I-LH4. Konpetentzietako emaitzak ikaslearen sexuaren arabera







105. grafikoa bi taldeek ebaluatutako bi konpetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak erakusten dira; gezi baten bidez adierazten da zein taldek dituen puntuazio altuenak eta berdin ikurra ageri da aldea adierazgarria ez denean.

Jarraian, bi sexuen banaketari dagozkion grafikoak aurkezten dira; ebaluatutako konpetentzia bakoitzean errendimendu mailen arabera daude banatuta.


106. grafikoa. ED I I-LH4. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendi-mailetan sexuaren arabera




107. grafikoa. ED I I-LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendi-mailetan sexuaren arabera



108. grafikoa. ED I I-LH4. Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendi-mailetan sexuaren arabera



109. grafikoa. ED I I-LH4. Matematikarako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan sexuaren arabera



Oro har, hasierako mailetan dauden nesken ehunekoa mutilena baino baxuagoa da *Matematikarako konpetentzian* izan ezik, ia-ia berdina baita. Maila aurreratuan, nesken ehunekoa altuagoa da *Euskarazko eta Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; ehunekoa berbera da *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta *Matematikarako konpetentziaren* maila honetan, mutilek neskek baino % 5 maila altuagoa dute.

- **ED09-ED10-ED I I ebaluazioetan emaitzen bilakaera sexuen arabera**


Orain arte egindako Ebaluazio diagnostikoko hiru edizioetako hiru konpetentzia egonkorretako emaitzen bilakaerari erantzunez, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* joera berbera nabari da; hau da, neskek emaitza hobekak dituzte eta *Matematikarako konpetentzian* mutilek nesken



emaitzak gaitzen dituzte; hala eta guztiz ere, edizio honetan, bi sexuek puntuazio berbera lortu dute *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*.

Aipagarria da bi sexuek, hiru kompetentzietan, nabarmen hobetu dituztela emaitzak 2009ko lehen ebaluazioarekin alderatuta.

110. grafikoa. ED11-LH4. Emaitzen bilakaera kompetentziaren eta ikasleen sexuaren arabera. ED09-ED10-ED11



Ardatz bertikala 200 puntuan hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezten.





b) EMAITZAK IKASMAILAKO ADIN-EGOKITASUNAREN ARABERA

Adin-egokitasun-egoeran dauden ikasleak (2001. urtean jaiotakoak) kompetentzia guztietan errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 92 dagokien mailan daude. Ehuneko hori ebaluazioaren aurreko edizioetan baino % 1 baxuagoa da.


Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle gehienak, proba bat gutxienez egin dutenak, adinarekin bat datorren mailan daude; ikasleen % 8 soilik jaio da lehenago, eta beraz, adin egokiarekiko -2001. urtean jaiotakoak- urtebeteko atzerapena du. Oro har, atzerapena irakasmila bat errepikatu izanaren ondorioa izan daiteke edo ikaslea urte bat beranduago eskolatu delako. Ikasle multzo horrek adin egokiko ikasleek baino emaitza nabarmen apalagoak lortu ditu kompetentzia guztietan.

Talde horiek ebaluatutako kompetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak hurrengo taulan ageri dira. Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleak soilik daude batez bestekoaren gainetik kompetentzia guztietan.

	<i>Matematikarako kompetentzia</i>	<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa</i>
Jaiotze-urtea 2001 baino lehenagokoa	213	225	213	208
Jaiotza-urtea: 2001 (adin-egokitasuna)	259	259	260	254

2001. urtean jaiotako ikasle egokiek lortutako eta urte hori baino lehen jaiotakoaren puntuazioaren arteko alderik handienak *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (47 puntu), eta *Matematikarako kompetentzian* eta *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (46 puntu) gertatu dira. *III. grafikoak* jaiotza-urtearen arabera ikasleen errendimendua erakusten du.

III. grafikoa. Emaitzak kompetentzietan adin-egokitasunaren arabera






Emaitzen aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan; hau da, 2001. urtean jaiotako eta dagokion mailan dauden ikasleek 2000. urtean jaiotakoek baino emaitza askoz hobekak lortu dituzte.


Ondorio hori bat dator, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, 2009 eta 2010 urteetako Ebaluazio diagnostikoarekin eta PISA 2003, PISA 2006, PISA 2009 eta TIMSS 2007 moduko beste ebaluazio batzuekin bat dator. Aurreko urteetako txostenetan aipatu genuen moduan, *Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaita errepikatzeak duen eragina ikerlanaren sorburua izan zen*⁶.

Hurrengo grafikoetan, konpetentzietan errendimendu mailen arabera ikasleen banaketa ageri da, ikasle adinaren eta ikasmaitaren egokitasunaren arabera.


112. grafikoa. ED11-LH.4. Matematikarako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendu mailetan egokitasunaren arabera




113. grafikoa. ED11-LH4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendu mailetan egokitasunaren arabera



114. grafikoa. ED11-4°EP. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendu mailetan egokitasunaren arabera



115. grafikoa. ED11-LH4. Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ikasleen ehunekoa errendimendu mailetan egokitasunaren arabera



Adin-egokitasun-egoeran dauden ikasle ia % 10 hasierako errendimendu mailan kokatzen da, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, eskolatzeko hizkuntza-ereduek oso baldintzatuta, eta *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* izan ezik, ehunekoa bikoiztu egiten baita. Maila aurreratuan, ehunekoa aldatu egiten da, hain zuzen ere, % 29 *Gaztelaniazko eta Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta % 42 *Matematikarako konpetentzian*.

⁶ www.isei-ivei.net. Argitalpenak atala: PISA 2003. PISA 2006. Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004. TIMSS 2007. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmaita errepikatzeak duen eragina. <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/Final_euskara_3.pdf>




Emaitzen bilakaera jaiotza-urtearen eta ikasmilaren arabera. ED09-ED10-ED11

Ebaluazio diagnostikoko edizio guztietan hiru kompetentzia egonkorretan emaitzek izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu, joera berbera antzematen dugu; hau da, adinaren arabera dagokion ikasturtean (egokitasuna) kokatutako ikasleek emaitza askoz hobekak lortzen dituzte kompetentzia guztietan.

Aipagarria da bi taldeek nabarmen igo dituztela puntuazioak 2009. urteko ebaluazioari dagokionez.

116. grafikoa. ED11-LH4. Kompetentzietako emaitzen bilakaera ikasmilarekiko egokitasunaren arabera. ED09-ED10-ED11



Orain arte egindako hainbat azterketatan egiaztatu da ikaslearen adinari eta egiten ari den ikasmilari dagokion aldagaia izan dela lortutako emaitzetan eragin handienetakoa izan duten aldagaietako bat.





c) ETXEKO HIZKUNTZA ETA PROBAKO HIZKUNTZA

Proba etxeko hizkuntzan egin ez duten ikasleek proba etxeko hizkuntzan egin dutenek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte *Matematikarako konpetentzian*.

Orain arte egin diren hainbat ebaluaziok eta ikerlanek adierazi duten bezala, bigarren hizkuntzaren ikaste-prozesuan dauden ikasleek ez dute jaiotzetiko hiztunen maila bera hizkuntza horretan, eta horrek eragin handia du bigarren hizkuntzan egiten dituzten probetako emaitzetan.

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, aurrekoetan bezala, hizkuntzaren aldetiko alderdiak aztertzean bi elementu hartu ziren kontutan:

- Batetik, proba aplikatzeko erabilitako hizkuntza: Ikastetxeek aukeratu ahal izan zuten ikasleek zer hizkuntzatan erantzungo zituzten *Matematikarako konpetentziako* ariketak. Erabaki horren inguruko datuek hau adierazten dute:
 - A ereduko ikasle gehienek *Matematikarako konpetentziako* proba gaztelaniaz erantzun zuten.
 - D ereduko ikasle gehienek euskaraz egin zuten.
 - B eredu publikoko ikasleen % 19k eta itundutako % 7k euskaraz erantzun zuten.
 - *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* probak bakoitzari zegokion hizkuntzan egin ziren (euskara, gaztelania eta ingelesa).
- Beste aldetik, ikasle bakoitzaren etxeko hizkuntza nagusia: dagokionez, beste ebaluazio batzuetako ondorioetatik (PISA, TIMSS, Euskara B2, ED09, ED10) badakigu etxeko hizkuntzak zer nolako eragina izaten duen emaitzetan, etxeko hizkuntza eta proba aplikatzeko hizkuntza bat ez datozenean.

Emaitzak ondo azaldu ahal izateko, bi aldagaiak –probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza– erlazionatu behar dira proba euskaraz edo gaztelaniaz egin zuten ikasleen hizkuntza-ereduetako bakoitzean, hau da, B eta D ereduetan.

- ***Matematikarako konpetentziaren emaitzak hizkuntza-ereduen arabera***

Hurrengo tauletan, ebaluazio honetan parte hartu duten B eta D ereduetako ikasle guztien probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren araberako *Matematikarako konpetentziako* emaitza orokorrak islatzen dira.⁷

⁷ Gainerako egoera posibleetan ez dago ikasle kopuru nahikorik emaitzen fidagarritasuna bermatu ahal izateko. Adibidez, familia euskalduneko 139 ikaslek bakarrik egin zuten *Matematikarako konpetentziako* proba euskaraz B ereduan; edo etxean gaztelaniaz hitz egiten duten 116 ikaslek bakarrik egin zuten konpetentzia horretako proba gaztelaniaz D ereduan.




B EREDUA		<i>Matematikarako konpetentzia</i>	
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa
Gaztelania	Euskara ez dena	4.567	257
Euskara	Euskara ez dena	346	238

D EREDUA		<i>Matematikarako konpetentzia</i>	
Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza
Euskara	Euskara	3.902	270
Euskara	Euskara ez dena	7.514	248

Aurreko emaitzetatik, bi hizkuntza-ereduetan, ondorio hau ateratzen da:


- Ikasleek proba egiteko erabilitako hizkuntzak eragin nabarmena du emaitzetan. Aplikazioko hizkuntza eta etxeko hizkuntza bat ez datozenean, emaitzak nabarmen baxuagoak dira.
- Gainera, bi hizkuntza-ereduetan, proba etxeko hizkuntzan egin duten ikasleak soilik kokatzen dira Euskadiko batez besteko puntuazio orokorraren gainetik (255 puntu).
- D ereduko ikasleen *Matematikarako konpetentziako* emaitzak etxeko hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera.

117. grafikoa. ED I I-4^oEP. B ereduko ikasleen *Matematikarako konpetentzian* emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera





117. bis. grafikoa. ED11-LH4. D ereduko ikasleen *Matematikarako kompetentzian* emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera



Bi hizkuntza-ereduetako *Matematikarako kompetentziako* emaitzak alderatuz, ikusten da aldeak adierazgarriak direla hizkuntza aldatu ez duten (euskara) D ereduko ikasleen eta hizkuntza aldatu ez duten (gaztelania) B ereduko ikasleen artean. Proba euskaraz egin eta etxeko hizkuntza gaztelania duten ikasleen emaitza nabarmen altuagoa da D ereduan B ereduan baino.

Matematikarako kompetentziako emaitzen bilakaera probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera


Emaitza orokorren bilakaera hizkuntza-ereduen eta proba egin den hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera aztertuz, hau ondorioztatzen da:

B EREDUA

○ **ED10-ED11**

118. grafikoa erakusten den moduan, proba etxeko hizkuntzan egin duen B ereduko ikasleek hizkuntza aldatu duten ikasleek (hau da, etxeko hizkuntza gaztelania izanik, proba euskaraz egin dutenak) baino emaitza hobeak lortu dituzte *Matematikarako kompetentzian*. Egoera hori gertatzen da 2010eko ebaluazioan eta 2011ko ebaluazioan. Aldeak adierazgarriak dira bi ebaluazioetan eta 2011. urtean puntuazio hobeak lortu dituzte.

118. grafikoa. LH4. ED10-ED11. B ereduko emaitzen bilakaera *Matematikarako kompetentzian* probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera






○ ED09-ED11

B ereduko datuak alderatzen direnean (119. grafikoa) ikusten da 2009 eta 2011 arteko aldeak ikasleak hizkuntza aldatzen ez duenean bakarrik direla adierazgarriak, hobekuntza nabari da azken ebaluazioan, eta proba euskaraz egin duen gaztelania hitz egiten duten ikasleek puntuazio berbera lortu dute muturreko bi urteetan.

119. grafikoa. 4°EP. ED09-ED11. B ereduko emaitzen bilakaera Matematikarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera




D EREDUA

○ ED10-ED11

120. grafikoa, 2010 eta 2011ko ebaluazioetan Matematikarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera D ereduko ikasleek lortu dituzten emaitzak erakusten dira. Alde guztiak adierazgarriak dira; 2011ri dagokion ebaluazio honetan emaitza hobekia lortu ditzute. Hizkuntza aldatzen ez duten ikaslearen puntuazioak nabarmen altuagoak dira.

120. grafikoa. LH4. ED10-ED11. D ereduko emaitzen bilakaera Matematikarako kompetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera






○ **ED09-ED11**

2009 eta 2011ko urteetako ebaluazioei (121. grafikoa) dagozkien D ereduko ikasleen emaitza orokorrak aztertzean, ikusten da alde guztiak adierazgarriak direla eta 2011ri dagokion ebaluazioan emaitza hobekak lortu dituztela. Alde guztiak adierazgarriak direla eta.

121. grafikoa. LH4. ED09-ED11. D ereduko emaitzen bilakaera Matematikarako konpetentzian probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera







d) IKASLEAREN GURASOEN IKASKETA MAILA

Aitaren eta amaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta puntuazio altuagoak lortzen dituzte seme-alabek ebaluatutako konpetentzietan.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen aiten % 67k eta amen % 72k Batxilergoko ikasketak edo ikasketa altuagoak dituzte. Ehuneko hori Ebaluazio diagnostikoko aurreko edizioetako antzekoa da.

Orain arte egindako azterketetan⁸ argi geratu da gurasoen ikasketa mailak eragin argia duela ikaslearen ebaluazioen eta eskolako kalifikazioen emaitzetan.

Ikasketa maila lau taldetan sailkatu da: derrigorrezko hezkuntza amaitu ez dutenak (oinarrizko ikasketak); DBH edo ikasketa baliokideak amaitu dituztenak; Batxilergoa edo Lanbide Heziketa amaitu dituztenak eta unibertsitateko ikasketak amaitu dituztenak.

Aipatutako lau kategorietako gurasoen ehunekoa biltzen da taulan.

Ikasleen ehunekoa gurasoen ikasketa mailaren arabera

	Oinarrizkoak		DBH		Batxilergoa / LH		Unibertsitatea	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Aita	1.572	9	4.173	23,9	6.858	39,2	4.893	28
Ama	1.280	7,1	3.791	21,1	6.540	36,5	6.315	35,2

2010eko Ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako amen % 71,7k eta aiten % 67,2k adierazi dute Batxilergoko ikasketak, Lanbide Heziketakoak edo unibertsitatekoak amaituta dituztela. Amen % 7k eta aiten % 9k ez dute gutxieneko titulazioa lortu eta oinarrizko ikasketak soilik dituzte.

Aitaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen gurasoek lortutako ikasketen gehieneko mailak seme-alabek lortzen dituzten emaitzetan izan dezaketen eragina aztertu egin da. Taulan eta grafikoan, ikasleen gurasoek lortutako ikasketa mailen eta ikasle horiek 2011eko Ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako konpetentzia bakoitzean lortutako puntuazioen artean dagoen lotura ikus daiteke.

Ikaslearen emaitzak eta aitaren ikasketa maila

	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa / LH	Unibertsitatea
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	231	248	259	269
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	235	247	258	271
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	230	245	257	272
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	221	237	251	271


⁸ ISEI-IVEI. PISA 2003 Ebaluazioaren bigarren txostena. Emaitzak Euskadin. www.isei-ivei.net
ISEI-IVEI. Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak. 2006ko apirila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net



Ebaluazio honetan honako hau ere egiaztatzen da: aitaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, seme-alabek konpetentzia guztietan orduan eta puntuazio altuagoa lortuko dute. Ikasmaila bakoitzeko emaitzen eta hurrengoaren arteko aldeak adierazgarriak dira.

Aitek oinarrizko ikasketak dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketak dituzten beste ikasleen baten arteko puntuazioko aldea 36 eta 50 puntu artekoa da, konpetentziaren arabera. Batxilergoko titulazioa edo altuagoa duten aiten seme-alabak ezarritako batez besteko puntuazioaren gainera kokatzen dira ebaluatutako konpetentzia guztietan. Egoera hori bera gertatzen zen aurreko urteko ebaluazioan ere.

122. grafikoa. ED11-LH4. Aitaren ikasketa maila eta konpetentzietako emaitzak



Ardatz bertikala 200ean hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezten.

Amaren ikasketa maila eta ebaluatutako konpetentzietako puntuazioa

Hurrengo taulan eta horri dagokion grafikoen ikus daitekeen moduan, kasu honetan ere, amek zenbait eta prestakuntza maila altuagoa izan, seme-alabek ere orduan eta puntuazio altuagoa lortuko dute konpetentzia guztietan.

Ikaslearen emaitzak eta amaren ikasketa maila

	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa / LH	Unibertsitatea
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	223	244	256	271
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	232	244	255	270
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	223	242	254	271
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	217	234	248	270

Ikasketa maila aitek dutenean ikusten dena baino alde handiagoa da.


Unibertsitateko ikasketak dituzten amen eta oinarrizko ikasketak soilik dituztenen seme-alaben arteko puntuazioko aldea 38 eta 53 puntu artekoa da, konpetentziaren arabera. Konpetentzia guztietan, aldeak handiagoak dira ikasketa batzuk edo besteak dituen aita izan ohi denean baino (36



eta 50 puntu arteko aldea). Ikasketa maila bakoitzaren emaitzen eta hurrengoaren arteko aldeak adierazgarriak dira.

Amek unibertsitateko ikasketak dituzten seme-alabek ezarritako batez bestekoa baino puntuazio altuagoa lortzen dute 2011n ebaluatutako lau konpetentzietan. Amaren ikasketa maila Batxilergokoa edo Lanbide Heziketakoa denean, puntuazioa batez bestekoaren gainean dago *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta puntu batera geratzen da *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta *Matematikarako konpetentzian*, eta bi puntura *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*.

123. grafikoa. EDI I-LH4. Aitaren ikasketa maila eta konpetentzietako emaitzak



Puntuazioen alderaketa gurasoek lortutako ikasketak kontuan hartuta ezartzen baldin bada, honako hau ondorioztatzen da:

- Amek oinarrizko ikasketak soilik dituzten ikasleek lortu ohi dituzte puntuazio baxuenak konpetentzia guztietan.
- Ikasketa maila bakoitzaren emaitzen eta hurrengoaren arteko aldeak adierazgarriak dira.
- Aitak eta amak lortutako ikasketa maila unibertsitatekoa denean, seme-alabek ebaluazioan lortutako puntuazioan ia-ia ez dago alderik, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* soilik da nabarmen altuagoa.
- Antzeko ondorioak atera dira 2010eko Ebaluazio diagnostikoko azterketatik eta 2011ko 2. DBHkoekin bat datoz.





e) FAMILIAREN JATORRIA: ATZERRIKO JATORRIA DUTEN IKASLEAK

Ikasle etorkinak Lehen Hezkuntzako 4. maila egiten duten populazioaren % 6,7 dira. Ebaluazio diagnostikoetako 2009 eta 2010 edizioetako ehuneko mantentzen da. Ikasle etorkinen % 70 adin-egokitasun egoeran dago, baina ez da batez bestekora iristen kompetentzia batean ere.

Ikastetxeen % 77k % 10 baino ikasle etorkin gutxiago du.

Ikastetxean ikasle etorkinak egoteak ez du eraginik bertako ikasleen emaitzetan, baina egoera hori negatiboa izan daiteke ikasle etorkinentzat eurentzat.

Ikasle etorkinen pilaketa handiena batez bestekoa baino ISEK maila baxuagokoetan gertatzen da.

Lehenago adierazi den moduan, 2011ko Ebaluazio diagnostikoan hartu dute parte Euskadiko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek. Hala eta guztiz ere, oso egoera berezietan, horien artean betebeharrak jakin batzuk betetzen ez zituen hezkuntza-sisteman sartu berri den ikasle etorkinarekin lotutakoetan, salbuespenak egin dira parte-hartzearen baldintzetan.

Ikasle etorkinaren kategorizazioa ikasleak galdera-sorta betetzean eskaintzen zuen informaziotik abiatuta egin da. Hala eta guztiz ere, ikastetxeak hezkuntza-sistema honetan urtebete baino gutxiagoz eskolatutako ikasleei buruzko datuak eman zituen aurretik; gainera, ikasle horiek ez zekiten proba egin ahal izateko hizkuntzetako bat. Bi informazio-iturrien artean desadostasuna egonez gero, ikastetxeak emandakoa errespetatu da.

Ikasle etorkinari buruzko datuak aztertzeko, baldintza hauek hartu dira kontuan:

- Jatorriz atzerritarra izanik hezkuntza-sisteman sartu berri den (urtebete baino gutxiago) eta probaren aplikazioko bi hizkuntzak ezagutzen ez dituzten ikasleak. Probak egin ahal izan dituen arren, ikastetxeak hala erabakita, emaitzak ez dira batez bestekoan sartu.
- Jatorriz atzerritarra izanik hezkuntza-sisteman sartu berriak diren ikasleak, baina etxeko hizkuntza gaztelania dutenak eta proba hizkuntza horretan egin dutenak. Kasu horietan, emaitzak batez besteko orokorraren parte dira.
- Guraso bat edo biak atzerritarrak dituzten ikasleak. Hezkuntza-sisteman urtebete baino gehiago baldin badarama, batez besteko orokorra osatzen dute.

2011ko Ebaluazio diagnostikoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle etorkinen guztizkoa 1.292 ikaslekoa da; horien artetik 899, hau da, % 69,6, titulartasun publikoko ikastetxeetan daude eskolatuta, eta 393, hau da, % 30,4, itunpeko ikastetxeetan; ehuneko horiek aurreko ebaluaziokoaren berdinak dira. Geruzen arabera, ikasle etorkinen banaketa honakoa da:



Ikasle etorkinak geruzen arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
176	13,6	229	17,7	494	38,2	58	4,5	198	15,3	137	10,6
Ikastetxe publikoko ikasleak guztira, 899 (% 69)						Itundutako ikastetxeko ikaslea guztira, 393 (% 31)					
Ikasle etorkinak guztira, 1.292											

Hizkuntza-ereduen arabera esan dezakegu ikasle etorkinen % 18 A ereduari dagoela eskolatuta, % 33 B ereduari eta ia % 49 D ereduari. 2010eko edizioari datuei dagokienez, D ereduari egindako matrikulazioak % 6,4 egin du gora eta ehuneko berberetan egin du behera beste bi hizkuntza-ereduetan ere.

Ikasle etorkinak eta eskolatu-ereduak. LHko 4. maila

A ereduari		B ereduari		D ereduari	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
243	18,1	427	33	631	48,8

Neska eta mutil etorkinen ehunekoak berberak dira, % 50, gutxi gorabehera.

Ikasle etorkinaren sexua. LHko 4. maila

Mutila		Neska	
Kopurua	%	Kopurua	%
683	50,4	673	49,6

Ikaslearen jaiotza-urtearen arabera ondorioztatzen dugu ikaslea adin-egokitasun-egoeran dagoen edo ikasturteren bat errepikatu duen; hala ere, ikasle etorkinen kasuan baliteke eskolatu berantiarra edo hezkuntza-sistema desberdinen arteko egokitzapena gertatzea.

Ikasle etorkinaren jaiotza-urtea. LHko 4. maila

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 2001 (egokitasuna)	871	67,4
Jaiotza-urtea: 2000	414	32

Ikasle etorkinen % 67 baino zertxobait gehiago adin-egokitasun-egoeran dago; hau da, bere adinari dagokion ikasmailan.

Guztizko biztanleria etorkinaren azterketa osagarri gisa, jarraian, talde hau 2011ko Ebaluazio Diagnostikoko Lehen Hezkuntzako 4. mailako eskola-biztanleria orokorraren baitan kokatzen da.



Ikasmaila honetan, etorkinak, 1.292 ikasle, guztizko biztanleriaren % 6,7 dira. Hezkuntza-geruzen arabera, biztanleriaren banaketa honakoa da:

Etorkinen eta bertakoen ehunekoak geruzen arabera. LHko 4. maila

	Bertako ikasleak		Etorkinak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A publikoa	307	63,6	176	36,4
B publikoa	1.098	82,7	229	17,3
D publikoa	7.513	93,8	494	6,2
Itunpeko A	928	94,1	58	5,9
Itunpeko B	4.038	95,3	198	4,7
Itunpeko D	4.078	96,7	137	3,3
Guztira	17.962	93,3	1.292	6,7

Geruzen araberako azterketan, A geruza publikoan eskolatutako ikasleen % 36,4 etorkinak direla nabarmendu behar da. Ikasle etorkinen % 17,3 dago B geruza publikoan eskolatuta. Gainerako geruzetan, etorkinen ehunekoa % 5 eta % 6 artekoa da gutxi gorabehera. Itunpeko D geruzan eskolatzen dira etorkin gutxien, % 3,3 hain zuzen ere.

Hala eta guztiz ere, datu orokor horiek ez dute ikasle etorkinaren eskolatzearen errealitatearen irudia osoa ematen. Egoera hobeto ulertzeko, bi ikuspegitatik aztertu behar da: batetik, ikasleak modu orekatuan banatzen diren jakin behar da, eta bestetik, ikasle hauen kontzentrazio-egoerak dauden.

Etorkinen guztizko ehunekoa eta eskolatzen diren ikastetxe kopurua

Ikasle etorkinak eskolatzen dituzten ikastetxeen kopurua	Ikasle etorkinen guztizko ehunekoa
10	12,9
21	22,1
45	36,7
86	53,5
184	78,9

Aurreko taulan ageri diren datuak metagarriak dira; hau da, bertako bi muturrak erreferentzia gisa hartuta ikus daiteke ikasle etorkinak dituzten 342 ikastetxetatik % 22k eskolatzen dituela ikasle horiek; ia % 37, 45 ikastetxetan daude eskolatuta; ikasle etorkinen % 53, berriz, 86 ikastetxetan dago eskolatuta (horietan daude sartuta aurrekoak).

Era berean, eskolatzen diren ikastetxeetako ikasle-proporzioa aztertuz, ondoriozta daiteke bakoitzean dagoen ehunekoa ez dela homoginoa, nabarmen aldatzen da, hurrengo taulako datuek erakusten duten moduan.



Ikastetxe kopurua, eskolatzen duen ikasle etorkinen ehunekoaren arabera

Ikasle etorkinaren eskolatze ehunekoaren arabera ikastetxe kopurua	Ikastetxeetako ikasle etorkinen ehunekoa
406	% 10 baino gutxiago
61	% 10 eta % 20 artean
28	% 20 eta % 30 artean
13	% 30 eta % 40 artean
7	% 40 eta % 50 artean
3	% 50 eta % 60 artean
6	% 60 baino gehiago

Ikasle etorkin kopuru handieneko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean, 12 ikastetxetan, eskolatutako populazioaren % 40 eta % 50 artean jatorri horretakoa da. Era berean, 406 ikastetxetan, ikasle etorkinen ehunekoa % 10 baino baxuagoa da. 6 ikastetxetan, jatorri horretako ikasleen kopuruak % 60a gainditzen du.

Ikasle etorkinen emaitzak eta bertako ikasleekin egindako alderaketa

Probetan parte hartu zuten ikasle guztien puntuazioak ez dira kontuan hartzen ikasleen batez besteko orokorra lortzeko garaian. 1.292 ikasle etorkinen artean, 895 ikaslek -% 69,3- egin zituzten 4 konpetentzietako probak.

Hurrengo taulan, konpetentzia bakoitzean batez besteko orokorrean kontuan hartu den ikasleen kopurua eta horietako bakoitzean ikasleek lortutako batez bestekoak deskribatzen dira. Ikasle etorkinek konpetentzia bakar batean ere ez dute batez besteko orokorra lortzen.

Proba egin zuten eta konpetentzien arabera batez besteko orokorrean kontuan hartu den ikasle etorkinak

	Ikasle etorkinak		Bertako ikasleak	
	Kopurua	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Kopurua
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	931	223	258	16.925
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	1.085	240	257	16.914
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	1.052	228	257	16.998
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	1.101	226	252	16.972

Ikasleen errendimendua ikastetxean dagoen ikasle etorkinen ehunekoaren arabera


Dagoeneko azaldu dugun moduan, ikasle etorkinek bertako ikasleek baino emaitza baxuagoak lortzen dituzte eta aldeak handiak dira. Ikasleek ikastetxeetan duten banaketa ere erakutsi da, baita Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasle etorkinek duten ehunekoa ere.

Azterketa honekin, ikasle etorkinen pilaketak banako mailan eta ikastetxe mailan duen eragina eman nahi dugu ezagutzera.




124. grafikoan, 2011ko Ebaluazio diagnostikoko Lehen Hezkuntzako 524 ikastetxetan ikasle etorkinen ehunekoa ageri da. Ikus daitekeen moduan, ikastetxe horien artetik ia % 78ek ez du biztanleria etorkinik edo horien ehunekoa ez da % 10 baino handiagoa. Ikastetxeen % 11,6ean, eskolatutako ikasle etorkinak % 10 eta % 20 artean kokatzen dira. Ikastetxeen % 3,1k jatorri etorkinezko ikasleen % 40 edo gehiago du.

124. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasle etorkinen ehunekoa ikastetxeetan



Informazio honen osagarri gisa, hurrengo grafikoan, ikasle etorkinen ehunekoaren arabera ikastetxe kopurua ageri da.

124. bis. grafikoa. ED I I-LH4. Ikastetxe kopurua, bertan eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoaren arabera




182 ikastetxetan ez dago ikasle etorkinik eskolatuta. 16 ikastetxetan etorkinen % 40 baino gehiago dago eskolatuta. (124. bis. grafikoa).

Jarraian, 125. grafikoan, ebaluazio honetan, Matematikarako kompetentzian, ikastetxeko errendimenduko erdi-mailan eskolatutako jatorri etorkineko ikasleen ehuneko altuagoak edo baxuagoak duen eragina aztertzen da.




125. grafikoa. EDII-LH4. Matematikarako konpetentziako emaitzak ikastetxeko etorkinen ehunekoaren arabera



Grafikoan ikus daitekeen moduan, *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioak murriztu egiten dira ikastetxeetako ikasle etorkinen ehunekoak gora egiten duen heinean. % baino gehiago izatearen eta ez izatearen artean aldeak adierazgarriak dira. Ikasle etorkinen % 30etik aurrera puntuazioan ez dago alderik (229 puntu).

126. grafikoa, *Matematikarako konpetentzian* bertako ikasleek eta ikasle etorkinek lortutako emaitzak ageri dira, ikastetxean eskolatuta dagoen ikasle etorkinen ehunekoaren arabera.

126. grafikoa. Ikasle etorkinen eta bertako ikasleen *Matematikarako konpetentziako* emaitza ikastetxeko ikasle etorkinen ehunekoaren arabera



Ikasle etorkinak eskolatzen dituzten ikastetxeen artean ikusten da horiek lortzen dituzten emaitzak bertako ikasleek lortzen dituztenak baino baxuagoak direla, eta gainditzen ez duten etorkinen ehunekoak % 40koa da. Ehuneko hori handiagoa denean, ikasle etorkinen emaitzak bertako ikasleen emaitza gainditzen du. Datu horrek azterketa zehatzagoa bat eskatzen du.



Ikasle etorkinen ehunekoak Matematikarako konpetentziako eta ISEKen emaitzetan duen eraginari buruzko azterketa


Hau da zenbait ikerketatan (Calero 2010, 28)⁹ eta ebaluazio-txostenetan mahai ganean jartzen den gaia: ikastetxe batean etorkin asko biltzeak emaitzetan eragina duen eta atalase batetik aurrera (batzuek % 20an kokatzen dute) ikastetxeko emaitzak okertu egiten diren.

Orain arte ikusi dugu ikasle etorkinek bertako ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortzen dituztela eta ikastetxe batean etorkinen ehunekoak gora egin ahala, emaitzek okerrera egiten dutela.

Jarraian, ikasle etorkinen pilaketa handiak bertako ikasleen emaitzetan eraginik izango duen ("lagunaren efektua" deitzen zaiona) edo pilaketa handiko egoera hori duten ikastetxeetako emaitza baxuak beste aldagai batzuekin lotuta dauden aztertzen da.

127. grafikoan ikasle guztien emaitzak ageri dira eta ikasle etorkinek lortutakoen (puntu urdinak) eta bertako ikasleek (puntu laranja) lortutakoen artean bereizten dira; horrez gain, ikasleen banakako ISEKekin duten lotura ere ageri da.

127. grafikoa. ED I I-LH4. Banakako ISEK eta ikasleen emaitzen arteko lotura Matematikarako konpetentzian



Erregresio-zuzena adierazten duten lerro diagonal etenek, Matematikarako konpetentzian, esperotako emaitzak erakusten dituzte bi taldeetarako, ISEK maila kontuan hartuta.

127. grafikoan ikus daiteke ikasle etorkinen pilaketa handiena batez bestekoa baino baxuagoko ISEK mailatan gertatzen dela (lerro bertikal etenaren ezkerretara). Bertako ikasleek edo ikasle etorkinek lortutako emaitzei dagokienez, ondoriozta daiteke ISEK maila zenbat eta baxuagoa izan,

⁹ Calero, Jorge (2010): El rendimiento educativo del alumnado inmigrante analizado a través de PISA 2010. Colección de estudios Create nº 5 Ministerio de Educación, Madrid.




emaitzak orduan eta baxuagoak direla, baina bi taldeetan, ISEK berberaren baitan, puntuazio-sakabanaketa handia gertatzen da.

Grafiko honetan ere bi egoera ikusten dira: lehenengoa: ikasle etorkin batzuek beren ISEK mailaren arabera esperotakoa baino emaitza nabarmen altuagoak dituzte; bigarrena: ikasle etorkin ehuneko batek batez bestekoa baino ISEK altuagoa du, baina horien emaitzak batez bestekoa baino baxuagoak dira *Matematikarako kompetentzian*.

128. grafikoan, ikastetxeko batez besteko emaitzen eta ikasle etorkinen ehunekoaren arteko (% 20 baino gutxiago eta % 20 baino gehiago) lotura erakusten da. Ardatz horizontalean, ikastetxeko ikasle etorkinen ehunekoa ageri da, eta bertikalean, ikastetxeko batez besteko puntuazioak.

128. grafikoa. ED11-LH4. Ikasle etorkinen ehunekoaren eta ikastetxeko batez besteko puntuazioaren arteko lotura *Matematikarako kompetentzian*




Ikus daitekeen moduan, ikastetxeen pilaketa handiena gehienera jota ikasle etorkinen % 20 dutenen artean gertatzen da. Lerro jarraituaren edo erregresio-zuzenaren (gorria) inklinazioak adierazten du esperotako emaitzek behera egiten dutela ikastetxeetako ikasle etorkinen kopuruak gora egin ahala. Ikastetxe asko esperotako emaitzen gainetik kokatzen diren arren, zazpi bakarrik daude Euskadiko ikastetxeen batez besteko puntuazioaren gainetik.

129. grafikoan, ikastetxeko bertako ikasleek *Matematikarako kompetentziako* puntuazioaren eta ikastetxeko batez besteko ISEKen artean dagoen lotura (bertako ikasleena) erakusten da, bertan eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoaren arabera.



129. grafikoa. ED11-LH4. ISEK eta bertako ikasleen emaitzen arteko harremana ikastetxeetako etorkinen ehunekoaren arabera




Laranja koloreko puntuek guztizko ikasleen % 20 baino gutxiagoko ikasle etorkinen ehunekoa eskolatzen duten ikastetxeek irudikatzen dute. Biribil berdeek % 20 baino ikasle etorkin gehiago dituztenak irudikatzen dituzte. Lerro jarraitu gorriak *Matematikarako konpetentzian* (inklinatua) bertako ikaslearentzat esperotako emaitzak erakusten ditu, ikasle horien ISEK-en batez besteko mailaren arabera.

Ikasleak erregresio-zuzenaren inguruan pilotzeak (esperotako emaitzak) esan nahi du ikastetxeetan etorkin jatorriko ikasleak pilotzeak ez diela bertako gelakideen emaitzari eragiten. Puntuazioak ISEK-en aldagaiekin lotuta daude.

Jarraian, azterketa berbera egin da ikasle etorkinen pilaketak ikasle etorkinen *Matematikarako konpetentziako* emaitzetan eraginik baduen jakiteko (130. grafikoa).



130. grafikoa. ED I I-LH4. Matematikarako kompetentzia Ikastetxeko ikasle etorkinen puntuazioaren eta ikastetxeko batez besteko ISEKen arteko lotura



Ikastetxeko ikasle etorkinen Matematikako puntuazioa

Aurreko grafikoarekin, 129.arekin alderatuta, ikus daiteke % 20koa baino pilaketa handiagoko ikastetxeetan erregresio zuzena (lerro berdea) ia-ia laua dela; horrek esan nahi du ez dagoela loturarik ikastetxeko ISEKen eta jatorri etorkineko ikasleen % 20 baino gehiago duten ikastetxeetan ikasle etorkinek lortzen dituzten emaitzen artean.

Bi grafikoetan ikus daitekeen moduan, ikastetxean ikasle etorkinak pilatzeak ez du eragiten bertako gelakideek lortzen dituzten emaitzetan, baina pilaketa % 20 baino handiagoa denean, eragin negatiboa du ikasle etorkinek lortutako puntuazioetan.

Atal honetan bildutakotik ondoriozta daiteke ikastetxean ikasle etorkinak egoteak ez duela eraginik bertako ikasleen emaitzetan, baina ikastetxean ikasle etorkinen ehunekoa zenbat eta handiagoa izan, jatorri etorkineko ikasleen emaitzak okerragoak izango dira. Ondorio horiek berak bildu ziren Francisco Luna Arcos-en txostenean.¹⁰

Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera


2009, 2010 eta 2011 urteetako Ebaluazio diagnostikoetan ikasle etorkinek lortutako emaitzak alderatuz, bertako populazioaren joera berbera antzematen da. *Hizkuntza-kompetentzietan* emaitzen gorakada gertatu da sistematikoki ebaluatutako hiru kompetentzietan. Horietan guztietan, emaitzek nabarmen gora egin dute ebaluazio batetik bestera; hala ere, inola ere ez dute batez besteko orokorra lortu.

¹⁰ Deustuko Unibertsitatea (2011). Ikasle etorkinaren hezkuntza-errendimendua Euskal Hezkuntza Sistemaren ebaluazioetan (88. orrialdetik aurrera), Hizkuntzak, Curriculum eta Ikasle Etorkinei buruzko III. Jardunaldietan aurkeztutako Hitzaldien baitan. Deustuko Unibertsitatean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera ospatuta.



Ebaluazio diagnostikoko edizio honetako puntuazioak alderaketa egin den lehen edizioekoak baino nabarmen altuagoak dira.

131. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera




Ardatz bertikala 200en hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezten.

Bertako ikasleen eta ikasle etorkinen arteko puntuazioetako aldeen bilakaera

132 grafikoa, ebaluatutako hiru kompetentzietan eta orain arte egindako hiru ebaluazioen artean bertako ikasleek eta ikasle etorkinek lortutako puntuazioen arteko aldeak nabari dira.

132. grafikoa. ED-I I-LH4. Bertako ikasleen eta ikasle etorkinen arteko puntuazioetan duden aldeak. ED09-ED10-ED11



Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian aldea murriztu egin da; 2009ko Ebaluazioko 48 puntutik lortu ziren, eta oraingoko, 35ra. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian 24 puntutik 17ra murriztu da eta Matematikarako kompetentzian 29 puntutan mantentzen da aurrena eta azkena egindako ebaluazioan.



Laburbilduz, jatorri etorkineko ikaslearen puntuazioek hobera egin dute ebaluazio bakoitzean, eta gainera, bertako ikasleek lortutako emaitzekin dituzten aldeak murriztu egin dira; hala ere nabarmen baxuagoak dira konpetentzia guztietan.

Ikasle etorkinei emandako hezkuntza-erantzunari buruz ikastetxeek duten pertzepzioa

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek betetzeko galdetegian proposatutako ataletako batek Ebaluazio diagnostikoa egiten duten etapetako bakoitzean ikastetxean *ikasle etorkinen hezkuntza-erantzunari* egiten dio erreferentzia. Lehen Hezkuntzan, 524 ikastetxetatik 512k erantzun zieten galdera hauei.

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek % 83ren ustez, haien ikastetxean ikasle etorkinen hezkuntza-beharretara nahiko ondo edo oso ondo egokitzen den tratamendua ematen da.

Galdera	Batere egokia edo oso egokia ez	% Nahiko egokia	% Oso egokia
Ikasle etorkinen beharrei tratamendu egokia eman zaie	8,6	53,9	29,3

Ikastetxeen % 8 inguruk ez daki edo ez du erantzuten

Hurrengo koadroan, ikasle etorkinekin lotutako galdera batzuei emandako erantzunen ehunekoa ageri da:

Galderak	% Oso txarra eta txarra	% Ona	% Oso ona
Ikasle etorkinei erantzuteko irakasleen prestakuntza maila	31,4	49,2	6,8
Ikasle etorkinak ikastetxera egokitzea	1,4	63,7	26,6

Ikastetxeen % 12 inguruk ez daki edo ez du erantzuten

Ikasle etorkinen beharrei aurre egiteko irakasleen prestakuntza mailari buruzko taulan ageri den moduan, % 56ren ustez prestakuntza ona edo oso ona den arren, % 31 zuzendaritza-talde baino gehiagoren ustez, prestakuntza eskasa edo oso eskasa da. % 90 baino gehiagoren ustez, ikasleek ikastetxera duten egokitzapen maila ona edo oso ona da.

Haien ustez ikasle etorkinei eskolatzean gehien eragiten dien aldeak zein diren galdetu ostean, taulako ehunekoek erantzunak erakusten dituzte:

Eskolatzeari eragiten die:	Batere ez/Gutxi	Nahikoa	Asko
Aldeak hizkuntzan	20,1	26,8	47,1
Alde kulturalak	42,1	34,4	17
Beren herrialdeko ikasketa-mailan aldeak	24,6	37,9	29,9
Alde erlijiosoak	78,3	8,8	3,3

Ed/Ede erantzun duten ikasleek ehunekorik ez da bildu. % 6 eta % 9 artean daude

Lehen Hezkuntzako 4. mailako zuzendaritza-taldeek arabera, hizkuntza-aldeak eta herrialdeen arteko ikasketa mailen egokitzapenari buruzkoak dira eragin handiena dutenak.



f) IKASLEAREN AURREIKUSPEN AKADEMIKOAK

Ikasleek dituzten ikasketa-aurreikuspenen eta Ebaluazio diagnostikoan dituzten emaitzen arteko harremana positiboa da, zenbat eta aurreikuspen handiagoak, emaitzak orduan eta altuagoak izango dira. 2009ko ebaluazioan aldagai honekin egindako egiaztapena berretsi da.

Orain arte egindako azterketa ugari berretsi dute ikasleen emaitzen eta ikasketen aurreikuspenen (hau da, bai ikasleak berak, bai bere familiak lortzea espero duten maila akademikoa) artean dagoen harreman positiboa.

Ikasle bakoitzak lortzea espero duen ikasketa maila buruzko aurreikuspenak bete behar zuten galdetegian biltzen zen. Ehunekoak taulan ageri dira:

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoa ikasketa-aurreikuspenen arabera

DBH amaitzea		Batxilergoa		Lanbide Heziketako heziketa-zikloa		Unibertsitatea	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1.705	9,1	1.871	10,0	2.223	11,9	12.525	67,2

312 ikasle daude, % 1,7k ez daki edo ez du erantzuten

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 67 baino zertxobait gehiagok unibertsitateko ikasketak egitea pentsatzen du, 2009ko urteko Ebaluazio diagnostikoaren (ED09) ehuneko berbera. Ia % 12k Lanbide Heziketako heziketa Zikloko maila lortuko duela uste du (% 3,5 gehiago ED09an).

Ikasketa-aurreikuspenak eta ebaluazioan lortutako emaitzak


Amaitzea espero duten ikasketen eta ebaluatutako kompetentzia bakoitzean lortutako puntuazioen arteko harremana taulan eta grafiko hauetan islatzen da:

Ikasketa-aurreikuspenak eta emaitzak 2011ko Ebaluazio diagnostikoko kompetentzietan

	DBH amaitzea	Batxilergoa amaitzea	Lanbide Heziketako heziketa zikloa amaitzea	Unibertsitatea amaitzea
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	237	246	251	261
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	237	246	249	262
<i>Matematikarako kompetentzia</i>	235	247	251	260
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	229	239	240	256



133. grafikoa . EDII-LH4. Ikasketa aurreikuspenak eta ebaluazio diagnostikoan konpetenzien arabera izandako emaitzak



Ardatz bertikala 220an hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezten.

Lehen Hezkuntzako 4. maila egiten ari diren arren, elkarrekotasuna dago lortutako puntuazioen eta lortu nahi dituzten ikasketa mailen artean, eta hori ebaluatutako konpetentzia guztietan gertatzen da.

Unibertsitateko ikasketak egin nahi dituen ikasleak batez bestekoaren gainetik kokatzen dira nabarmen konpetentzia guztietan.

Ikasleak ikasketa maila bat edo hurrengoa amaituko duela diotenaren arabera puntuazioen arteko aldeak nabariak dira kasu guztietan, *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* izan ezik; hori puntu bateko aldea dago batxilergoa edo Lanbide Heziketako heziketa-ziklo bat amaitzearen aurrean.

ED09-EDII arteko alderaketa, azterketa-aurreikuspeni eta emaitzei dagokienez

Hurrengo taulan, aldagai hau aztertu den bi ebaluazioetan lortutako emaitzak erakusten dira; egindako lehen ebaluazioari eta edizio honetakoari dagozkie.



	DBH amaitzea		Batxilergoa amaitzea		Lanbide Heziketako heziketa-zikloa amaitzea		Unibertsitatea amaitzea	
	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	228	237	242	246	247	251	258	261
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	226	237	237	246	243	249	260	262
Matematikarako kompetentzia	229	235	240	247	247	251	259	260
Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa	--	229	--	239	--	240	--	256
Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren ingurukoa	228	--	238	--	246	--	259	--

Ikus daitekeen moduan, ebaluazio honetako puntuazioak kompetentzia guztietan lehen edizioan lortutakoak baino altuagoak dira, eta bietan, unibertsitateko ikasketak amaitu nahi dituzten ikasleak (kolorez margotutako zutabea) soilik kokatzen dira batez bestekoaren gainetik.

Ikasmaila bat eta bestea amaitzea espero duten ikasleen ehunekoari dagokionez, bilakaera taula honetan aurkezten da:

DBH amaitzea		Batxilergoa		L.H.ko / heziketa zikloa		Unibertsitatea	
ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11	ED09	ED11
11,7	9,1	12,6	10,0	8,4	11,9	67,3	67,2

Lehen ebaluazioan % 75ek Lanbide Heziketako heziketa-ziklo bat behintzat amaitzea espero zuten; edizio honetan, ehunekoa % 79koa da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzea besterik espero ez duten ikasleei dagokienez, ehunekoak % 2,6 egin du behera.

Ehunekoek behera egin dute prestakuntza mailetan (DBH eta Batxilergoa) eta gora egin du Lanbide Heziketako heziketa-zikloak.





g) LANERAKO OHITURAK ETXEAN

Konpetentzia guztietan emaitza onenak lortzen dituzten ikasleek etxerako lanak egunero egiten dituzte ordubetez edo zertxobait gutxiagoz, ikasleen % 60k. Bi eta hiru ordu artean behar dituztela dioten ikasleak, % 30 inguru, jarraian haren azpitik kokatzen dira. 2009ko ebaluazioan gertatzen zen moduan, etxeko lanak ez dituela egiten dioten ikasleek, % 1,5ek, lortzen dituzte puntuaziorik okerrenak.

Ikasketetan laguntzarik behar ez duten ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik onenak ebaluazioan; jarraian, aitak edo amak laguntzen dietenak datoz.

Aldagai honen azterketarako informazioa ikasleek bete beharreko galdetegian bildutakotik dator. Hurrengo taulan ikasleen ehunekoak ageri dira, etxeko lanak egiten pasatzen duten denboraren arabera.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoak etxeko lanen ohituren arabera

Ez du etxeko lanik		Ez ditu etxeko lanak egiten		Ordubetez edo gutxiagoz		1 eta 2 ordu artean		2 ordu baino gehiago	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
463	2,5	287	1,5	11.093	59,5	5.524	29,6	1.022	5,5

247 ikasle daude, % 1,3k ez daki edo ez du erantzuten

Ikasleen % 89k baino zertxobait gehiagok ordubete inguru edo zertxobait gehiago pasatzen du etxean etxeko lanak egiten. % 1,5ek dio ez duela ezer egiten, 2009ko ebaluazioko ehuneko berberak. % 2,5ek dio ez dizkietela etxeko lanak agintzen.

A. Etxean etxeko lanak egitea eta ebaluazioan lortutako emaitzak

Orain arte egindako azterketa eta ebaluazio batzuetan biltzen den moduan¹¹, etxean ikasketei eskainitako ordu kopuruak eragina du emaitzetan, baina denbora jakin batetik aurrera koefizientea negatiboa da. Ebaluazio honetan, etxeko lanak egiten 2 ordu baino gehiago ematen dituztela dioten ikasleek denbora gutxiago pasatzen duela diotenek baino puntuazio baxuagoa lortzen dute, hurrengo taulan biltzen den moduan.

Ordubete edo gutxiagoko tartean, ikasleek batez bestekoa baino puntuazio nabarmen altuagoak lortzen dituzte, eta 1 eta 2 ordu artean pasatzen dituzten ikasleak batez bestekoa kokatzen dira, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* izan ezik, puntuazio nabarmen baxuagoa lortzen baitu. Taulako zutabeetako itzalek adierazten dute puntuazioak batez bestekoa edo nabarmen horren gainetik kokatzen direla.

¹¹ ISEI-IVEI. PISA 2003 ebaluazioaren bigarren txostena. Euskadiko emaitzak. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net
ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen eta aldagaien azterketa, Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net




Etxean etxerako lanak egitea eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoan lortutako emaitzak

	Ez du etxeko lanik	Ez ditu etxeko lanak egiten	Ordubetez edo gutxiagoz	1 eta 2 ordu artean	2 ordu baino gehiago
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	241	219	261	254	236
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	251	231	258	256	244
<i>Matematikarako kompetentzia</i>	251	231	258	256	244
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa</i>	245	211	253	249	236

Etxeko lanak egiteari denborarik eskaintzen ez dioten ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik baxuenak, eta jarraian, etxerako lan horiek egiten bi ordu baino gehiago igarotzen dituztela diotenek.

Ikasleek etxerako lanik ez dutela diotenean, ikastetxean eskolaz kanpo egiteko lanik emateko ohiturarik ez dutelako izan ohi da. Ikastetxe horietako ikasleek batez bestekoa baino baxuagoko emaitzak lortzen dituzte kompetentzia guztietan.

134. grafikoa. ED11-LH4. Etxean etxeko lanak egiteko denbora eta ebaluazioko emaitzak



Ardatz bertikala 200en hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezten



B. Autonomia etxerako lanak egitean

Ikasleei galdetu zaie eskolaz kanpo norbaitek laguntzen dien etxerako lanak egiten, eta erantzuna baiezkoa izanez gero, nork laguntzen dion. Ehunekoak taula honetan ikus daitezke:

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ehunekoak ikasketako autonomiaren arabera¹²

Laguntzarik gabe		Irakasle partikularra		Akademia batera joaten da		Aitak edo amak laguntzen dio		Anaiak/arrebak laguntzen dio		Beste pertsona batek	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
7.054	37,8	1.819	9,8	1.015	5,4	12.012	64,5	3200	17,2	629	3,4

Ikasle gehienek (% 64,5) familiaren baitan jasotzen dute laguntza etxeko lanak egiteko (aitak edo amak ematen die laguntza); gainera % 17 ikasle baino gehiagori anaiak edo arrebak ematen die laguntza. Ia % 39k ez du inolako laguntzarik jasotzen, baina behean ageri diren emaitzak kontuan hartuta, badirudi ez dituztela behar.

Autonomia etxerako lanak egitean eta ebaluazioan lortutako emaitzak


	Laguntzarik gabe	Irakasle partikular bat	Akademiara joaten da	Aitak edo amak laguntzen dio	Anaiak/arrebak laguntzen dio	Beste pertsona batek
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	264	225	234	259	251	228
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	264	231	242	257	251	236
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	266	223	237	256	252	231
<i>Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa</i>	259	220	233	252	244	226

Etxerako lanak laguntzarik gabe egiten dituzten ikasleek (% 38 gutxi gorabehera) eta aitaren edo amaren laguntzarekin egiten dituztenek (% 65 inguru) batez bestekoa baino emaitza nabarmen altuagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan (kolorez ageri diren zutabeak). Gainerako emaitza guztiak batez bestekoaren azpitik kokatzen dira nabarmen. Etxerako lanak egiteko irakasle partikularrarengana jotzen duten ikasleek (% 10 gutxi gorabehera) lortzen dituzte emaitzarik baxuenak ebaluazioan, seguruenik ikasketzako hainbat zailtasun dituzten ikasleak izango dira. Tutorengandik edo gizarte zerbitzuetako beste pertsona batzuegandik babesa lortzen duten ikasleen emaitzak ere nabarmen baxuagoak dira.

¹² Ehunekoak 100 baino handiagoak da, erantzunak ez baitira baztertzailak, eta ikasle bakoitzak bat baino gehiago aukeratu ahal izan ditu, laguntza pertsona ugariengandik jaso baitezakete.



135. grafikoa. EDI I-LH4. Etxerako lanak egiteko laguntza eta ebaluazioan izandako emaitzak



Ardatz bertikala 200n hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezzen

ED09-ED11 arteko alderaketa etxerako lanak egiteari eta laguntzari dagokienez

Hurrengo tauletan “etxeko lanen ohitura” aldagaia aztertu den bi ebaluazioetako batez besteko puntuazioetan lortutako emaitzak erakusten dira. Egindako lehen ebaluazioari eta edizio honi dagozkie.

Etxerako lanak egitea eta emaitzak Ebaluazio diagnostikoetan

	Ez du etxeko lanik		Ez ditu etxeko lanak egiten		Ordubetez edo gutxiagoz		1 eta 2 ordu artean		2 ordu baino gehiago	
	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	235	241	216	219	256	261	252	254	231	236
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	241	251	221	231	254	258	254	256	239	244
Matematikarako konpetentzia	242	251	218	231	255	258	254	256	235	244
Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa	--	245	--	211	--	253	--	249	--	236
Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren ingurukoa	238	--	217	--	255	--	254	--	236	--



Ikus daitekeen moduan, 2011ko ebaluazioan puntuazioek gora egin duten arren, bi edizioetan jokaera berbera da, hau da, ordubete baino gutxixeagoz eta bi orduz etxeko lanak egiten dituzten ikasleak eta laguntzarik gabe edo aitaren edo amaren laguntzarekin egiten dituztenak kokatzen dira oro har nabarmen batez bestekoaren gainetik konpetentzia guztietan. Hori gertatzen da datuak ditugun bi ebaluazioetan.

Laguntza etxerako lanak egiteko eta emaitzak Ebaluazio diagnostikoetan

	Laguntzarik gabe		Irakasle partikular bat		Akademiara joaten da		Aitak edo amak laguntzen dio		Anaiak/arrebak laguntzen dio		Beste pertsona batek	
	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11	ED 09	ED 11
<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>	259	264	214	225	220	234	251	259	238	251	219	228
<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>	256	264	220	231	227	242	252	257	244	251	224	236
<i>Matematikarako konpetentzia</i>	258	266	217	223	225	237	252	256	242	252	224	231
<i>Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa</i>		259	--	220	--	233		252	--	244	--	226
<i>Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren ingurukoa</i>	256		217	--	223	--	253		241	--	223	--





h) KORRELAZIOA MATEMATIKAN IKASGELAN IZANDAKO KALIFIKAZIOEN ETA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOKO EMAITZEN ARTEAN

Korrelazio positiboa dago geruza guztietan matematika arloan ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnoskikoan lortutako puntuazioen artean. Ikasgelako kalifikazioa altuari, proban ere puntuazio altua dagokio.


➤ Ikasgelako kalifikazioak Matematika arloan

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 93k esan du matematika arloan ikasgelako kalifikazioetan nahikoaren eta bikainen arteko kalifikazioa lortu duela. % 56k oso ongi edo bikain lortu zuen. % 7 ez zen nahikora iritsi. Datu horiek 2010eko Ebaluazio diagnostikoarekin alderatuta (2009koen antzekoak izan ziren), gutxiegi lortu duten ikasleen ehunekoak gora (% 2 gutxi gorabehera) eta maila altuetakoek behera (% 9 gutxi gorabehera) egin duela adierazten dute.

Analisi honen helburua ikasleek ikasgelan lortu dituzten kalifikazioen eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioen artean loturarik dagoen jakitea da. Ebaluazioaren edizio honetan, Matematika aukeratu da berriro ere; izan ere, hizkuntzari dagokionez "kutsadura" gutxien duena da eta ebaluazioen arteko alderaketa ahalbidetzen du.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztien artetik % 56ri ikasgelako kalifikazioen inguruan galdetzean, Matematikan *oso ongi* edo *bikain* nota lortu dutela diote. % 7k gutxiegi lortu duela dio (136. grafikoa).

136. grafikoa. ED11.LH4. Ikasleen ehunekoa Matematikan izandako ikasgelako kalifikazioen arabera





Hurrengo taulan, joan den ikasturtean ikasgelan Matematikan kalifikazio bat edo bestea lortu zuela dioen ikasleen ehunekoaren azterketa zehatza erakusten da geruzen arabera.

Geruza bakoitzean ikasleen ehunekoa, ikasgelako kalifikazioen arabera

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
Gutxiegi	19,3	10,6	8,4	5,8	6,3	3,5
Nahikoa	23,8	16,3	15,4	11,3	12,8	11,4
Ongi	22,7	27,5	25,0	18,9	21,3	22,3
Oso ongi	22,4	28,1	32,5	33,1	36,4	39,7
Bikain	11,9	17,6	18,6	30,8	23,2	23,1


Geruzaka aztertuz, ikusten da itunpeko D geruzak dituela gutxiegi nota gutxienak eta itunpeko A geruzak dituela bikain nota gehienak Matematikako kalifikazioetan. Kalifikaziorik altuenak batuta, bi geruzetan ehuneko berbera dute, % 64 inguru oso ongi eta bikain.

➤ Ikasgelako kalifikazioa eta ebaluazioko puntuazioa geruzen arabera

Geruza guztietan, A geruza publikoan izan ezik, matematika arloan ikasgelako kalifikazioetan oso ongi edo bikain atera dutela dioten ikasleak ebaluazio diagnostikoan batez bestekoaren gainetik jarri dira. Antzeko egoera gertatzen zen 2009 eta 2010eko ebaluazioetan.

Geruza desberdinetako ikasleak emandako informaziotik abiatuta, 2011ko ebaluazioaren aurreko ikasturtean lortutako Matematikako kalifikazioaren eta konpetentzia horretan lortutako puntuazioen artean loturarik dagoen aztertu da.

137. grafikoa. ED11-LH4. Ikasleen banaketa Matematikan izandako kalifikazioen arabera, geruzak kontuan hartuta






Ebaluazioan lortutako puntuazioak eta ikasgelako kalifikazioak geruzen arabera

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
Gutxiegi	193	200	202	207	212	214
Nahikoa	198	211	218	220	225	220
Ongi	222	235	240	243	247	243
Oso ongi	240	259	267	270	270	272
Bikain	251	287	291	292	290	295

Matematikan arloan ikasgelako kalifikazioen eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoko konpetentzian lortutako puntuazioen artean korrelazio positiboa dago geruzaz guztietan. Ikasgelan zenbat eta kalifikazio altuagoa izan, Ebaluazioan diagnostikoa orduan eta puntuazioa altuagoa izango da. Ikasgelan oso ongi eta bikain nota dutela dioten geruzaz guztietako ikasleak, A geruzakoak izan ezik, ebaluazioko batez bestekoaren gaineratik kokatzen dira: *Matematikarako konpetentziako* 255 puntu.

138. grafikoa. ED I I-LH4. Ikasgelako kalifikazioa eta ED I I n Matematika arloan izandako puntuazioa



Ardatz bertikala 150ean hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezzen

➤ Ikasleen banaketa ikasgelako kalifikazioaren eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioaren arabera


Ikasgelako nota berarekin ikasle batzuk proban batez bestekoaren azpitik 100 puntu baino gehiagora jarri dira eta beste batzuk, aldiz, ikasgelako kalifikazio bera lortu dute eta ebaluazioan batez bestekoaren gaineratik jarri dira. Egoera hori bera gertatzen zen aurreko ebaluazioetan ere.

Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoan lortutako batez bestekoen arteko korrelazioa positiboa da. Interesgarria da *Matematikarako konpetentzian* ikasleen sakabanaketa ikustea ikasgelan Matematikan lortutako kalifikazioak kontuan hartuta.



2011ko Ebaluazio diagnostikoan lortutako batez bestekoaren sakabanatzea, ikasgelan lortutako kalifikazioen arabera, 139. grafikoan ikus daiteke. Ikus daitekeen moduan, ikasgelako kalifikazio berberarekin, *gutxiegi* esate baterako, ebaluazioan 112 puntuko gehieneko puntuazio-aldea dago. Hau da, ikasgelan Matematikan *gutxiegi* lortu zuen ikasleren batek ebaluazioan 144 puntuko batez besteko puntuazioa lortu du (5eko pertzentilean kokatzen dira), eta beste batek edo beste batzuek, ikasgelako kalifikazio horrekin, ebaluazioan 274 puntu lortu dituzte (95eko pertzentila), eta horien puntuazioa batez besteko orokorretik 18 puntu gora dago.

139. grafikoa. ED11-LH4. Ebaluazioko puntuazioen banaketa Matematika arloan izandako ikasgelako kalifikazioen arabera



Ikasgelako kalifikazioa erreferentzia gisa hartuta eta ikaslearen ebaluazioko puntuazioarekin alderatuta, antzematen da ikasgelako kalifikazio bakoitzaren baitan 128 eta 130 puntu arteko aldea dagoela proban puntuaziorik onena eta txarrena lortu dutenen artean.

Hainbat hipotesi daude datu horiek azaltzeko: batzuek diotenaren arabera, sakabanatze hori ikasgelan kalifikazio berbera lortzeko errendimendu maila desberdinak eskatzearen ondorioa izan daiteke. Beste batzuen arabera, ikaslearen taldeak eragina du ikasgelan kalifikazio bat edo bestea lortzeko garaian.

Hain zuzen ere, ikasturtea errepikatzeari buruzko txostenean¹³ nabarmendu zen ikasgela bateko talde batean edo beste batean egoteak emaitzan zer nolako efektua duen. Ikerketan, ikasgelako kalifikazioak DBHko 2. mailako ikasleen (Zientziak eta Matematika arloak) eta TIMSS 2007 ebaluazioan lortutakoekin alderatu ziren. 2009ko eta 2010eko Ebaluazio diagnostikoetan egindako azterketan ere egoera berbera nabarmendu zen.

¹³ ISEI-IVEI. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasturtea errepikatzeak duen eragina. 2009ko apirila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net




➤ **Ikasgelako kalifikazioaren eta ikasleak eskolatuta dauden taldearen arteko lotura**

Ikaslea eskolatuta dagoen taldearen maila akademikoak ikasgelan lortzen dituen ikasgelako kalifikazioak baldintzatzen ditu. Ebaluazio diagnostikoan emaitza bera aterata ere ikasgelako notak desberdinak izan daitezke, ikaslea eskolatuta dagoen taldea “maila altuko” edo “maila baxukotzat” hartzearen arabera. Egoera hori bera gertatzen zen aurreko ebaluazioetan egindako azterketan ere.

Azterketan sakontzeko eta ikaslea eskolatuta dagoen taldeak ikasgelako kalifikazioak baldintzatzen dituen jakiteko, parte hartu duten talde guztiak lau kuartiletan zatitu dira, 2011ko Ebaluazio diagnostikoan lortu diren puntuazioen arabera. 1. kuartilean dago emaitzarik baxuenak dituzten ikasle taldeen % 25, eta 4. kuartilean daude ebaluazio honetan emaitzarik onenak lortu dituzten ikasle taldeak. Kuartilen arabera bildutako puntuazioak aurreko ikasturtean ikasleak ikasgelan lortu zituztela dioten Matematika arloko kalifikazioekin alderatu dira.

140. grafikoa. ED11-LH4. Matematikarako konpetentziako puntuazioak, taldeek izandako ikasgelako kalifikazioen arabera



Ardatz bertikala 180an hasten da, puntuazioetako aldeak nabariak izan daitezzen

Adibide moduan, honako egoera hau aztertuko dugu: ikasgelan oso *ongi* kalifikazioa lortu duen 1. kuartileko (2011ko Ebaluazi diagnostikoan errendimendurik baxuena lortu dutenen % 25) taldean eskolatutako ikasle batek 243 puntu lortu ditu ebaluazioan, 255 puntuko ezarritako batez bestekoaren azpitik. Ikasle hori 3. kuartila osatzen dutenen taldean (puntuazio ertaina-altua) egongo



balitz, *ongi* kalifikazioa aterako luke ikasgelan, eta 4. kuartila osatzen dutenen taldean egongo balitz (ebaluazioan errendimendu altuena lortzen dutenak), *nahikoa* kalifikazioa aterako luke ikasgelan.

Badirudi ISEI-IVEIren azterketan (Zientziak eta Matematika) aipatutakoa eta Grisayk¹⁴ bildutakoari erreferentzia egiten diona berretsi egin dela berriro; hain zuzen ere, ikaslea eskolatuta dagoen taldearen mailak baldintzatu egiten dituela ikasgelan lortzen dituen kalifikazioak; izan ere, irakasleek ikasgelan ikasleen artean gertatu ohi den sakabanatzea egokitu ohi dute eta ebaluazio-irizpideak gelari edo taldeari emandako erdi-mailara moldatzen ditu. Ebaluazio diagnostikoan, emaitza berberak ikasgelako nota desberdinak izan ditzake, Ikaslearen taldea “maila altukoa” edo “maila baxukoa” izatearen arabera. 2009. urteko Ebaluazio diagnostikoak ere berresten du hipotesi hori.¹⁵

¹⁴ GRISAY ALETTA.” Les mirages de l'évaluation scolaire. Rendement en français, notes et échecs à l'école primaire”. Revue de la Direction de l'Organisation des Études, XIX, 8, 3-20. . 1984

¹⁵ ISEI-IVEI 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. “Faktoreen eta aldagaien azterketa. Lehen Hezkuntzako 4. maila”. 2010eko uztaila. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net



i) HPB-AK DITUZTEN IKASLEEN DESKRIBAPEN-AZTERKETA

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, sartzeko egokitzapen edota arloko Curriculumuma Egokitzapen Indibidualdua (CEI) baten bidez ikasketak egiten dituzten ikasleen ehunekoa populazioaren guztizkoaren % 0,9koa da, 173 ikasle. % 62 mutilak dira, eta % 38, neskek. % 67 sare publikoan eskolatuta daude, eta % 33, itunpeko sareko ikastetxeetan. % 50 D ereduan daude.

Curriculumuma CEI orokorrean biltzen zaien ikasleen ehunekoa Lehen Hezkuntzako 4. mailako biztanleriaren % 0,8koa da eta egokitzapen motaren bat behar duten hezkuntzapremia bereziak dituztenen ia % 47koa.

Ebaluazio diagnostikoa zentsu-izaerako probatzat hartzen da; bertan, bi hezkuntza mailetan eskolatutako ikasle guztiek hartzen dute parte: Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila. Azken hamarkadetan ezarritako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak hezkuntza-sisteman sartzeko planek bere ondorioa izan dute; hain zuzen ere, ohiko ingurunean hezkuntza-egoera oso desberdinak dituzten ikasleak eskolatu dira; hori dela eta, Ebaluazio diagnostikoari begira, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen parte-hartzea nolakoa izan litekeen planifikatu behar izan da.

Aztertu dugun moduko ebaluazio estandarizatuaren ezaugarriekin ezin da ikaskuntza curriculumaren egokitzapen adierazgarrien (CEI) bidez egiten duen ikasle bakoitzarentzat proba desberdina egin. Hala eta guztiz ere, hezkuntzan egiten diren egokitzapen ugariak oinarri hartuta eta ahal den neurrian hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek ebaluazioetan parte hartzeko aukera normalizatze aldera, parte hartzea posible den zenbait egoera hartu dira aintzat.

Hezkuntza-sistemako hezkuntza-premia desberdinak definitu dira eta 4 taldetan sailkatu dira; horietan, Ebaluazio diagnostikoan parte hartzea curriculumerako sarbidea izateko behar diren antzeko baldintzetan egin ahal izateko beharrezko baliabideak eta parte hartzeko baldintzak proposatzen dira.

Egoera hauek definitu dira:

1. Curriculumera sartzeko egokitzapena premiak dituzte ikasleak

Ikasle hauek (ikusmen-, entzumen- eta motore-urritasunak izan ditzakete) Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta DBHko 2. mailarako tipifikatutako proba berberak egin zitzakeen, baina ebaluazio horietarako sarbidea izateko dagozkien egokitzapenekin.

- *Ikusmen-urritasuna duten ikasleak*; ikusmen mailaren arabera (ikusmen urria edo itsutasuna), hauek behar izan zitzakeen:
 - Ebaluazio-koadernotxoak brailera itzultzea.
 - Materialak ugaritzea.
- *Entzumen-urritasuna duten ikasleak*; erabilitako komunikazio-sistemaren arabera, hauek behar izan zitzakeen:
 - Zeinu-hizkuntzako irakasleak.
 - Frekuentzia Modulatua



- *Mugimendu-urritasuna duten ikasleak*; kaltetutako mugimendu-funtzioen arabera, hauek behar izan zitzakeen:
 - Probei erantzuna emateko ordenagailua edo beste baliabide tekniko bat euskarri moduan.

Proban parte hartu duten eta horrelako beharrak dituzten ikasleak ez dira taldearen batez besteko puntuazioan sartu; izan ere, egindako egokitzapenek parte hartzea erraztu badute ere, ez da ziurtatzen baldintzak gainerakoekin alderagarriak direnik eta ez du emaitzen alderaketa ahalbidetzen.

2. Arloko Curriculum Egokitzapen Indibidualdua (CEI) duten ikasleak.

Ikasle hauek bere mailari dagokion proba gainerako ikasgelaren baldintza berberetan egin ahal izan dute. Parte hartzeko erabakia ikastetxearena izan da; hala eta guztiz ere, CEI bat duten arloekin lotutako kompetentzietako puntuazioa ez da kontuan hartu taldearen batez beste puntuaziorako.

3. Ikasgela arruntean eskolatutako CEI esanguratsu orokorra dituzten ikasleak

Curriculum CEI orokor batekin garatzen duten ikasleak, hau da, arlo guztiak hezkuntza premia bereziak dituen ikaslearen mailara egokituta baldin badaude, ez du ebaluazioa egin, ikastetxeak kontrakoa erabaki ez badu behintzat. Proba estandarizatua ez da talde honen ikaskuntzak ebaluatzeko ondo egokitu ahal izateko testuingurutzat hartzen. Iritzi berbera izan da CEI orokor garrantzitsua duten eta ikasgela egonkor batean eskolatuta dauden ikasleen kasuan ere.

Laburbilduz, adierazitako taldeetako ikasle guztiak ikastetxeko irakasleek hartutako erabakiaren arabera egin ahal izan dituzte probak; ikastetxeko irakasleek ezagutzen dute bakoitza, eta taldeko eta ikastetxeko puntuazio orokorretik kanpo gelditu dira CEI duten arloetan lortutako emaitzak edo curriculumerako sarbide-egokitzapena denean.

Erabili diren baliabideak

Hauek izan dira arloko edo sarbideko CEIren bat duten ikasleek parte hartzeko edo antolatzeko erabilitako giza baliabideak edo antolaketa-baliabideak:

- Gorreria duten ikasleak eskolatzeko lurralde mailako aholkularitzak.
- Ikaslea eskolatuta zegoen ikastetxeetako giza baliabideak edota baliabide materialak: osagarriak, Hezkuntza-laguntzarako espezialistak, Pedagogia Terapeutikoko Irakasleak, Frekuentzia Modulatuak, zeinu-hizkuntzako irakasleak.

Ondorioz, deskribapena hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleena da eta beren curriculum sartzeko edo arloko -curriculum arlo batean edo gehiagotan- Curriculum Egokitzapen Indibidualizatuan (CEI) edo sartzeko egokitzapen batean biltzen da; gainera, beharrezko baliabideekin, ikastetxeak erabaki du ebaluazioan zein ikasle parte hartuko duten. Datu horietan, ez dago curriculum CEI orokorrarekin garatzen den ikaslerik.

Populazio honen deskribapenean (lehen adierazitako egokitzapen motaren batekin ikasketak egiten dituen ikaslea) 2011ko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei dagozkien datuak aurkezten dira.



➤ **2011ko Ebaluazio diagnostikoan egokitzapen motaren bat duten ikasleen datuak**

Ebaluazio diagnostikoko edizio honetako CEI orokorra duten ikasleen kopurua 152koa da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako biztanleria guztiaren % 0,8. Dagoeneko aipatu den moduan, ez daude puntuazioan sartuta; hala ere, proban egon litezke ikastetxeak hala erabakiz gero.

2011ko Ebaluazio diagnostikoan egokitzapen motaren bat duten 4. mailako ikasleen guztizko ehunekoa % 1,7koa da; izan ere, beren curriculum a biltzen den CEI orokorra eginda duten 152 ikaslez gain, 173k sartzeko edota arloko egokitzapenak dituzte.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 2011ko ebaluazio diagnostikora aurkeztu den eta sartzeko edo arloko CEI duten ikasleen guztizkoa 173 ikaslekoa izan da; maila honetako ikasle guztien % 0,9 osatzen dute. Horien artetik 116, % 67, titulartasun publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta, eta 57, % 33, itunpeko ikastetxeetan.

Hurrengo taulan, eskola curriculumaren garapenerako egokitzapenen bat behar duten ikasleen kopurua ageri da. Egiazta daitekeen moduan, ehunekorik altuenak egokitzapen orokorrei eta arlokoiei dagozkie (% 47 eta % 45, hurrenez hurren).

2011ko Ebaluazio diagnostikoan egokitzapenen bat duten ikasleak

Sartzeko egokitzapena		Arloko CEI		Sartzeko egokitzapena + arloko CEI		CEI orokorra	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
25	7,7	145	44,6	3	0,9	152	46,8
Ikasleak egokitzapenekin: 325 (LHko 4. mailako ikasle guztizkoen % 1,7)							

Lehen Hezkuntzako 4. mailan sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleak

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen deskribapen-azterketa curriculum garapenerako sartzeko egokitzapena edo arloko CEI behar duten ikasleengan zentratutako da.

➤ **Sartzeko edo arloko egokitzapena dituzten ikasleen banatzea, geruzen eta ereduaren arabera**

Geruza desberdinetako sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleen banaketa ageri da taula honetan:

Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleak, geruzen arabera.

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kopurua	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
32	18,5	16	9,2	68	39,3	6	3,5	32	18,5	19	11
Ikastetxe publikoak, guztira: 116						Itunpeko ikastetxeak, guztira: 57					
Ikasleak CEIrekin, guztira: 173											



Guztizko 173tik 25k Sartzeko egokitzapena soilik dute; 3 ikaslek Sartzeko egokitzapena eta arloko CEI dute, eta 145ek arloko CEI soilik.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako guztizko biztanleriari dagokionez, geruza bakoitzean, sartzeko edo arloetako egokitzapena duten ikasleak honela banatzen dira.

Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleak. Konparazioa guztizko biztanleriarekin

	Ikasleak, guztira, geruzen arabera	Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleak	Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen %
A publikoa	483	32	6,6
B publikoa	1.327	16	1,2
D publikoa	8.007	68	0,8
Itunpeko A	986	6	0,6
Itunpeko B	4.236	32	0,7
Itunpeko D	4.215	19	0,5
Guztira	19.254	173	0,9

A geruza publikoan, eskolatutako ikasleen % 6,6k sartzeko egokitzapena edota arloko CEI du. B geruza publikoan, ehunekoak % 1,2 da eta gainerako geruzetan, baliabide mota hori behar duten ikasleak ez dira % 1 era iristen.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako sartzeko edo arloko CEI duten ikasleen banaketa aztertzean, hizkuntza-ereduen arabera, datu hauek ikusten dira.

Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleak, ereduaren arabera

A eredia		B eredia		D eredia	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
38	22,0	48	27,7	87	50,3

Hizkuntza-ereduen arabera sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen banaketak erakusten du D ereduak duela Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle-ehunekorik altuena, % 50 baino zertxobait gehiago, hain zuzen. B ereduaren eskolatzen da ia % 28, eta A ereduaren eskolatzen da ikaskuntza-ezaugarri horiek dituen ikasleen % 22.

➤ Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen sexua eta jaiotza-urtea

2011ko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten sartzeko edo arloko CEI duten ikasleen artean, mutilen ehunekoak neskena baino altuagoa dela ondorioztatzen da.

Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen sexua

Mutilak		Neskak	
Kopurua	%	Kopurua	%
107	61,8	66	38,2



Ikasleen jaiotza-urtearen azterketaren bidez, ondorio hauek atera daitezke: ikaslea bere adinarekiko egokitasun-egoeran dagoen, ikasturteren bat errepikatu duen, edo kasuren batean eskolatzen berantiarra gertatu den. Egokitzapena duten ikasleen jaiotza-adinari buruzko datuak hurrengo taulan ageri dira:

Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen jaiotza-urtea

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 2001 (adinegokitasuna)	39	22,5
Jaiotza-urtea: 2000	125	72,3
Jaiotza-urtea: 1999	9	5,2

Lehen Hezkuntzako 4. mailan honako hau jakinarazten da: curriculum arlo batean edo hainbatetan egokitzeaz gain, ikasleen % 72,3 eskola ikasturte bat baino gehiago ikasmila berebean egon da bere ibilbidean zehar. Hala ere, kasuren batean eskolatzeko berantiarra gertatu bada ere, gehienetan ikasmila berebean ikasturte bat baino gehiago egoteagatik gertatu ohi da. Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen % 22,5 adinaren arabera dagokion mailan dago ikasketetan; beraz, ondoriozta daiteke ikasle hauentzat egokitzapena bere adinarekin bat datorren mailari eusteko aukera eman dien baliabidea izan dela.

➤ Proba egindako sartzeko egokitzapena edota arloko CEI duten ikasleak eta konpetentzien arabera batez besteko orokorrean sartu direnak

Jarraian, ebaluatutako konpetentzia bakoitzean parte hartu zuen Sartzeko egokitzapena edo arloko CEI duten ikasleen kopurua eta ehunekoa ageri da.

Proba egindako egokitzapena duten ikasleak, batez besteko orokorrean sartuta

	Sartuta		Sartu gabe	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	26	15,0	147	85,0
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	46	26,6	127	73,4
Matematikarako konpetentzia	57	32,9	116	67,1
Ingeleseko hizkuntza-komunikazioa	83	48,0	90	52,0

Datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4. mailan:

- Ikasleen % 73 baino gehiago ez dago hizkuntza konpetentzien puntuazioetan sartuta, seguruenik *Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak (euskara, gaztelania edo biak)* direlako dagokion CEIn bildutako egokitzapenaren helburuak.
- *Matematikarako konpetentzia*, CEI duen populazioaren % 32 puntuazioan sartuta dago.
- % 48 *Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* puntuazioan dago eta arlo honetako egokitzapen kopurua askoz baxuagoa dela ondorioztatzen da.

Hurrengo taulan, 2011ko Ebaluazio diagnostikoan CEI duten ikasleak batez besteko orokorrean zenbat konpetentzian sartuta dauden erakusten da.



Egokitzapena duten ikasleak kompetentzietako puntuazioan sartuta dauden

Sartu gabe		Batean sartuta		2tan sartuta		3tan sartuta		4tan sartuta	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
78	45,1	17	9,8	39	22,5	39	22,5	0	0,0

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, probak egin zituzten ikasleen % 45 ez dago ebaluatutako kompetentzia bakar batean ere sartuta. % 10 horietako bakarrean soilik izan da kontuan hartu. Ikasleen % 45, berriz, 2 kompetentzia edo gehiagoren puntuazioan dago sartuta.



5. IKASTETXEEN BILAKAERA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA





5. IKASTETXEEN AZTERKETA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA

Txosten exekutiboan¹⁶ zein txosten honetako geruzen emaitzei eta ezaugarriari dagozkien atalean, txosten honetako ISEKen arabera, aztertuta, ebaluatutako ikastetxe bakoitza hartzen da aintzat; alde batetik, bere maila sozioekonomikoa eta kulturalari begiratzen zaio, eta bestetik, *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioa hartzen da aintzat. Zenbait ikastetxek, horien hezkuntza-ekintza dela eta, ezaugarri sozial, ekonomiko eta kulturalengatik espero zitezkeen gainetik dauden batez besteko puntuazioak lortzen dituzte. Horiei ikastetxe eraginkor deituko diegu, edo gauza bera dena, “balio erantsia” eskaintzen duten ikastetxeak.

Atal honen helburua irakaskuntzaren bidez, ikasleen garapenari dagokionez, zenbait ikastetxek gure sisteman egiten duten ekarpena azaltzea da, ingurunearen arabera eta familiako ezaugarrien arabera espero zitezkeenak baino emaitza hobeak lortuz.

Egoera horiek zehatzago azaldu nahian, bi azterketarekin lan egin da eta bien emaitzak alderatu dira:

- a. **Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeak**, zuzeneko puntuazioak kontuan hartuz, egoera sozioekonomikoa edozein izanda ere. Azterketa honen helburua honetan oinarritzen da: ikastetxe baten egoera edozein izanda ere, emaitza altuak lortzea oso zeregin konplexua da; izan ere, bertan, irakaskuntza-zeregina lantzeko moduarekin lot daitezkeen hainbat aldagaik hartzen dute parte. Bestalde, emaitza baxuagoak izateak ulertarazten du ikastetxe horietan ikasleen emaitzetan hobekuntza eragingo duten erabakiak hartu behar direla.
- b. **Ikastetxe eraginkorrak edo hain eraginkorrak ez direnak**; hau da, ikastetxe guztiek maila sozioekonomiko eta kultural berbera izango balute, esperotako emaitzekin alderatuta alderik handienak (positiboak eta negatiboak) dituzten ikastetxeak.

Emaitza altuak edo baxuak izatea ez da eraginkortasun-irizpide bat. Ikastetxe bat eraginkorra dela esateko, batez besteko orokorraren azpitik egonda ere, emaitzek esperotakoa baino altuagoak izan beharko dute, indize sozioekonomikoa eta kulturala kontuan hartuta. Gauza bera gertatuko litzateke kontrako egoeran ere, hau da, ikastetxe batek batez bestekoa baino puntuazio altuagoak izan ditzake, baina litekeena da eraginkorra ez izatea, ISEK kontuan hartuta esperotakoaren azpitik dagoelako.

Aipatu berri ditugun egoerak aztertzeko, *Matematikarako konpetentziako* puntuazioak hartu dira; izan ere, egiaztatu ahal izan den moduan, gainerako emaitzekin korrelazio maila handiena duen konpetentzietako bat da; gainera, ez da hizkuntza-konpetentzia, eta hori dela eta, hizkuntza-ereduak edo etxeko hizkuntzak ez dute hainbesteko zerikusirik.

Hain zuzen ere, ikastetxeak deskribatutako ezaugarrien arabera sailkatu ostean, egiaztatu da horien jokaera antzekoa dela ebaluatutako gainerako konpetentzietan.

Azkenik, egindako azterketak egungo egoera islatu nahi du eta ED09 eta ED10 aurreko ebaluazioetan lortutako emaitzekin alderatu nahi du. Ikastetxe batzuek jatorriko egoerak konpentsatzea zergatik lortzen duten eta beste ikastetxe batzuek zergatik ez duten lortzen xehetasun gehiagorekin sakontzeko, gai horri buruzko ikerketa garatu behar da; etorkizun hurbilean dago aurrez ikusita.

¹⁶ ISEI-IVEI. Ebaluazio diagnostikoa 2011. Txosten exekutiboa Lehen Hezkuntzako 4. maila (2011ko abendua) www.isei-ivei.net



5.1. EMAITZA ALTUENAK ETA BAXUENAK DITUZTEN IKASTETXEAK

Azterketa egiteko, emaitza altuenak eta baxuenak dituzten 30 ikastetxe eta baxuenak dituzte beste 30 ikastetxe aukeratu dira. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, emaitza baxuenen taldean biltzen diren ikastetxeek 143 puntuko gutxieneko puntuazioaren eta 215 puntuko gehieneko puntuazioaren arteko ikastetxeko batez bestekoa dute. Goyaldean daudenek gutxienez 284 puntu lortu dituzte eta gehienez 336ra iritsi dira (hori da batez besteko puntuaziorik altuena).

Ikastetxeen sailkapena puntuazioen arabera: gutxienekoak, gehienekoak eta batez bestekoak *Matematikarako konpetentzian*

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kop.	Kopuruaren %	Gutxieneko puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Batez bestekoaren inguruan	464	88,5	218	283	252
Baxuak	30	5,7	143	215	197
Altuak	30	5,7	284	336	295
Guztira	524	100	143	336	251

Hurrengo taulan, puntuazio altuak, baxuak eta batez bestekoaren ingurukoak lortzen dituzten ikastetxeetako konpetentzia guztietako emaitzak erakusten dira. Ikus daitekeen moduan, ikastetxe onek emaitza altuak lortzen dituzte ebaluatutako konpetentzia guztietan (hala ere, ez beti bikaintasun maila berebean) eta *Matematikarako konpetentzian* emaitza baxuak lortzen dituztenek halaxe dituzte beste hiru konpetentzietan ere.

EDII-LH4. Ikastetxeen batez besteko emaitzak, ebaluatutako konpetentzia guztietan


Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
Batez bestekoaren inguruan	253	252	251	244
Baxuak	189	223	215	201
Altuak	300	262	287	278

Batez bestekoaren inguruko ikastetxeetako emaitzak oso antzekoak dira konpetentzia guztietan, ingelesezkoan izan ezik, baxuagoa baita.

Grafikoan ikastetxeen banaketa (taldeak) nabari da *Matematikarako konpetentzian* lortutako emaitzen arabera:



141. grafikoa. ED I I-LH 4. Matematikarako kompetentzian emaitza altuak eta baxuak dituzten ikastetxeak eta ISEK



141. grafikoa, margotutako goiko eremua puntuaziorik altueneko 30 ikastetxeri dagokie; ondorioz, biribil berdeek lortzen dituzte emaitzarik onenak. Egoera berbera baina kontrako zentzuan gertatzen da puntuaziorik baxuenak dituzten ikastetxeekin ere; margotutako beheko zatian dauden biribil urdinak.

Bi talde horietako bakoitzaren baitan, emaitzen banaketa oso desberdina da ikastetxe bakoitzaren batez besteko ISEK maila kontuan hartzen bada; horrla, emaitza altuak dituzten ikastetxe askok ikastetxe guztien artetik ISEKeko batez bestekoa baino ISEK altuagoa dute (lerro bertikal etenaren eskuinera kokatzen dira). Egoera hori bera nabari da emaitza baxuagoak dituzten ikastetxe taldean ere, baina alderantziz, emaitza baxuak dituzten ikastetxe guztiek, batek izan ezik, batez bestekoa baino ISEK maila baxuagoa du (lerro bertikal etenaren ezkerrean kokatzen dira).

Hala eta guztiz ere, talde bakoitzean ez daude ISEK altuenak edo baxuenak dituzten ikastetxe guztiak. Hau da, ISEKeko erdi-maila duten ikastetxe batzuk emaitza altuenak dituzten 30en artean daude, eta beste batzuk, berriz, emaitza baxuenak dituztenen artean.

Emaitza altuak eta baxuak dituzten ikastetxeen azterketatik abiatuta, honako ondorioak atera daitezke:

- ✓ Emaitza altuenak eta baxuenak dituztenen artean, batez bestekoaren inguruan ISEK maila antzekoak dituzten zenbait ikastetxe dauden arren, emaitza baxuko ikastetxe gehienak batez besteko ISEK mailaren azpitik daude, eta emaitza altuko ikastetxe gehienak batez besteko ISEK



mailaren gainera daude. Hau da, baldintza sozioekonomiko eta kulturalak eragin argia dutela ondoriozta daiteke.

5.2. ERAGINKORRAK DIREN ETA HAIN ERAGINKORRAK EZ DIREN IKASTETXEAK

Ikastetxeetako emaitzak eraginkortasunaren ikuspegitik ere azter daitezke.

F.J. Murillo¹⁷ irakaslearen arabera, gaur egun, hau hartu behar da oinarri: "ikastetxea eraginkorra izateko, ikasle guztiak espero dena baino garapen integral handiagoa lortu beharko dute, aurretiazko errendimendua eta familien egoera soziala, ekonomikoa eta kulturala kontuan hartuta".

Definizio horrek hiru ezaugarri biltzen ditu: **balio erantsia**, ikastetxeak ikasleari zer eskaintzen dion jakitea izango litzateke; **ekitate**, eraginkortasunaren kontzeptuan oinarritzko elementu gisa, eta ikaslearen **garapen integrala**. Azterketa honetan, ezaugarrietako bat soilik aztertuko da, balio erantsia, hain zuzen ere, hau da, ikastetxeak ikasleari egiten dion ekarpena.

Horretarako, oraingo honetan, lortutako emaitzen eta ikastetxeko ISEKen arabera esperotakoan artean alde positibo handieneko 30 ikastetxeak aukeratu dira, baita *Matematikarako konpetentzian* alde negatibo handieneko 30 ikastetxeak ere. Analisia *Matematikarako konpetentzian* lortu duten emaitzetan oinarritzen da. Positiboenei "ekarpen handiena egiten duten ikastetxeak" deituko diegu, eta alde negatibo handiena dutenei "ekarpen txikiena egiten duten ikastetxeak".

Ikastetxeen Matematikarako konpetentziako batez besteko puntuazioa eraginkortasun mailaren arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kopurua	Kopuruaren %	Gutxieneko puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Batez bestekoa	464	88,5	174	293	252
Ekarpen txikiena egiten dutenak	30	5,7	143	251	212
Ekarpen handiena egiten dutenak	30	5,7	212	336	287
Guztira	524	100	143	336	251


Ekarpen txikiena egiten duten ikastetxeen artean, oso batez besteko desberdinak dituzten ikastetxeak daudela antzematen da, puntuazio baxuetatik hasi (143 puntu) eta *Matematikarako konpetentzian* 251 puntu duten ikastetxeetara arte. Ekarpen handiena egiten duten ikastetxeen puntuazioa gutxieneko 212 puntutatik gehieneko 336 puntura artekoa da.

ISEKen arabera ikastetxeen eraginkortasun kontzeptua hobeto jaso dadin, hurrengo grafikoan, obaloaren barnean, batez bestekoaren inguruan ISEK partekatzen duten ikastetxeen emaitzen alde handia erakusten dute.

¹⁷ Ikus www.ice.deusto/rinace/reice/vol1n1/Murillo



142. grafikoa. ED I I-LH4. Eraginkorrak eta hain eraginkorrak ez diren ikastetxeak, ISEKen arabera esperotako emaitzen arabera *Matematikarako kompetentzian*



142. grafikoa ikus daiteke antzeko ISEC maila duten ikastetxe batzuek, batez bestekoaren inguruan (-0,19), oso emaitza desberdinak lortzen dituztela. Batzuk esperotakoaren gainetik kokatzen dira eta beste batzuk esperotako puntuazioaren azpitik (lerro jarraitu gorria):

- Txosten honetan, ikastetxeen eraginkortasun gisa hartzen da ikaslearen jatorri sozioekonomiko eta kulturalarekin lotutako egoera pertsonalak hobetzeko ikastetxeek egiten duten esku-hartze positiboa, eta hori islatzen da ISEKen arabera esperotakoaren gainetik dauden (erregresio-zuzenean islatuta –lerro jarraitu gorria-) emaitzak lortzean.
- Obaloaren baitan kokatzen dira ISEC batez bestekoaren inguruan duten ikastetxeak (-0,19):
 - Biribil berdeek ikastetxe eraginkorrenak ordezkatzen dituzte; izan ere, guztiak erregresio-zuzenaren gainean kokatzen dira (ISEKen arabera esperotako puntuazioa). ISEC maila baxua duten bi ikastetxe, *Matematikarako kompetentzian* batez bestekoa lortu ez arren, eraginkorrak dira; izan ere, esperotakoak baino puntuazio altuagoak lortzen dituzte (lerro jarraitu gorriaren gainean).
 - Obaloaren baitan kokatzen dira esperotakoa baino emaitza baxuagoak dituzten ikastetxeak ere, ikaslearen maila sozioekonomikoa eta kulturala kontuan hartuta. Beheko biribil urdinek, kasu askotan, biribil berdeetan ordezkatutako ikastetxeen ISEC berbera dute eta hala eta guztiz ere, ez dira eraginkorrak haiengandik esperotako emaitzak lortzeko garaian; erregresio-zuzenaren azpitik kokatzen dira.



- Biribil gorriak eraginkorrak edo ez eraginkorrak izan daitezke, lerro jarraitu gorriaren gainean (ISEKen arabera esperotako emaitzak) edo horren azpian kokatzearen arabera.
- ✓ Beren maila sozioekonomikoari eta kulturalari dagokionez antzeko abiapuntuarekin, obaloaren baitan dauden zenbait ikastetxe esperotako puntuazioaren gaineratik kokatzen dira; hori dela eta, ikastetxe horiek ikasleen jatorriko egoera hobetzeko gaitasuna izan dutela uste da. Horiei ikastetxe eraginkorrak deituko diegu.

Taulan erakusten da kompetentzia batean ekarpenik handiena duten ikastetxeek, eraginkorrenek, gainerako guztietan ere hala egiten dutela (hala ere, ez beti bikaintasun maila berebean), eta *Matematikarako kompetentzian* emaitza baxuak lortzen dituztenek gainerako kompetentzietan ere emaitza baxuak dituzte.

Emaitzak kompetentzia guztietan eraginkortasuna mailaren arabera. Ikastetxeen batez bestekoak

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako kompetentzia	Ingelesezko hizkuntza-komunikazioa
Batez bestekoa	252	253	252	245
Ekarpen txikiena egiten dutenak	227	233	212	216
Ekarpen handiena egiten dutenak	279	246	287	255


Gaian sakonduz, *143. grafikoan*, ISEKen arabera esperotakoari dagokionez alde positibo edo negatibo handiagoa duten ikastetxeak ageri dira. Lerro etenek ikastetxea eraginkortzat (26,4 puntu esperotako puntuazioaren gaineratik) edo ez eraginkortzat (26,9 puntu esperotakoaren azpitik) hartzeko gehieneko eta gutxieneko distantziak adierazten dituzte. Grafikoko azterketatik honako hau ondorioztatzen da:

- Emaitza horien banaketa ISEK maila guztietan zehar hedatzen da. Hau da, ekarpen positiboa egiten duten batez bestekoa baino ISEK altuagoa duten (lerro eten bertikalaren eskuinetara) ikastetxe asko dago, batez bestekoa baino ISEK baxuagoa dutenen (ezkerretara) antzera, hori islatzen da ikasleen errendimenduan.
- Ekarpen handiena egiten duten ikastetxeak ISEKeko ardatzaren erdigunean daude eta ez, espero zitekeen moduan, ISEKek maila altueneko eremuetan. ISEK maila altuko ikastetxeetan, espero daitekeen puntuazioa oso altua da eta agian nahikoa zaila izan daiteke hori gainditzea.

Ikastetxe horien egoera hobeto laburbiltze aldera, *144. grafikoan*, muturrekotzat hartu diren ikastetxeak soilik ageri dira, eraginkorrenak direnak (gutxienez, ISEKeko mailaren arabera esperotakoaren gaineratik gutxienez 26,4 puntura kokatzen dira) eta eraginkortasun maila txikiena dutenak (gutxienez, ISEK mailaren arabera esperotakoa baino 26,9 puntu gutxiago lortzen dituzte).



143. grafikoa. ED I I-LH 4. Emaitzak Matematikarako kompetentzian eta ISEK (ISEKen arabera esperotakoarekin alderatuta distantzia handiena duten ikastetxeak (+ eta -)



Emaitza onak eta txarrak dituzten ikastetxeen arteko eta ikasleen errendimenduari ekarpen handiagoa edo txikiagoa egiten dioten ikastetxeen arteko aldeak hainbat arrazoi izan ditzake. Beste batzuen artean, hauek nabarmendu nahi ditugu:

- **ISEKen eragina:** aldagai honetan, bi arlo nabaritu dira:
 - batetik, ISEKek emaitzetan eragin argia du;
 - bestetik, ekarpen handiena eta txikiena egiten duten ikastetxeen artean (eraginkorrenak direnak edo hain eraginkorrak ez direnak), ISEKeko maila guztietan kokatutako ikastetxeak daude.

Horrek esan nahi du ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza-faktoreek (metodologiak, antolaketa, eskola-giroa...) modu eraginkorrean eragiten dutela ikasleen emaitzetan, beren ISEK edozein izanda ere. ISEKeko batez besteko berberarekin, zenbait ikastetxe ikasleen errendimendu hobe lortzeko gai dira, eta beste batzuek, berriz, ez dute lortzen.

Atal hau ikastetxe batzuek ikasleei eman nahi dieten ekarpenaren analisirako hurbilketa da, bertako jatorriko ezaugarri sozialak, ekonomikoak eta kulturalak neurri handiagoan edo txikiagoan konpentsatuz. Esku hartzen duten kausa posible eta aldagarri guztien azalpen zehatzerako, ikerketa egin behar da.

5.3 IKASTETXEEN BILAKAERA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA

2009 eta 2010eko ebaluazio diagnostikoko kompetentzia guztietan ikastetxeen emaitzen datuak 2011koekin alderatuta aztertzen baldin badira, horietan guztietan, % 80 inguruk antzeko puntuazioak



dituzte hiru edizioetan. Ikastetxeen % 77- % 83k emaitza berberak mantentzen dituzte, egonkortasun handia dago, beraz. Hala ere, emaitzek goranzko joera izatea izango da helburua, eta horretarako, ikastetxeko hobekuntza-planak ari dira egiten.

Hurrengo taulako datuen arabera, emaitzen ebaluazioan, 2009ko lehen ediziotik 2011ko azken ediziora arte, hainbat gertaera nabari dira:

- Konpetentzia finko guztietan, emaitzak nabarmen hobetzen dituzten ikastetxeen ehunekoa nabarmen altuagoa da puntuazioak nabarmen murrizten dituzten ikastetxeena baino. Esate baterako, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, 2009tik 2011ra % 3,3k egin dute okerrera eta % 13,3k egin dute hobera; antzeko zerbait gertatzen da *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* ere; bertan, hobera egin duten ikastetxeak okerrera egin dutenak baino ia hamar aldiz gehiago dira, edo *Matematikarako konpetentzian*; bertan, ikastetxeen % 3,3k egin dute okerrera eta % 15 baino gehiagok egin dute hobera.
- Bestalde, azken bi edizioak alderatuta, emaitzak nabarmen murrizten dituzten ikastetxeen ehunekoa puntuazioak hobetzen dituzten ikastetxeen ehunekoa baino txikiagoa den arren, bi datuen arteko aldea -murrizketa eta igoera- hiru edizioak alderatuta lortzen dena baino baxuagoa da (lehen adierazi bezala).

Ikastetxeen ehunekoa emaitzen arabera. 2011-2010-2009 alderaketa

Ikastetxeetako puntuazioa	<i>Euskarazko hizkuntza-komunikazioa</i>		<i>Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa</i>		<i>Matematikarako konpetentzia</i>	
	ED11-ED10 ikastetxeen %	ED11-ED09 ikastetxeen %	ED11-ED10 ikastetxeen %	ED11-ED09 ikastetxeen %	ED11-ED10 ikastetxeen %	ED11-ED09 ikastetxeen %
Nabarmen egin dute behera	7,5	3,3	9,1	1,6	4,5	3,3
Emaitzak mantendu egin dira	79,3	78,4	79,7	83,0	77,8	81,5
Nabarmen egin dute gora	13,2	18,3	11,2	15,4	17,7	15,2

Zenbait ikastetxe ezin dira alderatu; izan ere, ebaluazioko edizioen batean ez dute alderaketarik egin

Emaitzak eta eraginkortasuna zenbat ikastetxek mantentzen duten ikusteko helburuarekin, jarraian, egindako ebaluazioetan *Matematikarako konpetentzian* emaitza altuak eta oso altuak lortu dituzten ikastetxeak aztertu eta alderatzen dira. Azterketa hori bera egin da emaitza baxuak lortu dituzten ikastetxeekin. Era berean, bi edo hiru ebaluazioetan eraginkorrenak izan zirenak eta eraginkortasun mailarik baxuena lortu zuten 50ak alderatzen dira. Alderaketaren emaitza hurrengo taulan ageri da.

Matematikarako konpetentzian emaitza onenak eta okerrenak dituzten ikastetxe kopurua eta eraginkortasun maila: ED09-ED10-ED11 alderaketa

	Bi ebaluazioetan bat datozen ikastetxe kop.	Hiru ebaluazioetan bat datozen ikastetxe kop.
Emaitza altuak dituzten ikastetxeak	24	7
Emaitza baxuak dituzten ikastetxeak	30	9
Ikastetxe eraginkorrenak	23	5
Eraginkortasun baxuena duten ikastetxeak	22	2



Matematikarako konpetentzian emaitza altuak lortu dituzten ikastetxeen artetik 24k maila berbera mantentzen dute puntuazioetan bi ebaluazioetan eta 7 ikastetxek lortu dute puntuazio berbera hiru edizioetan. Era beran, emaitza baxuak dituzten ikastetxeen artetik 30ek ez dute egoera hobetzea lortu bi ebaluazioetan eta 9k emaitza txarretan bat egiten dute hiru ebaluazioetan.

Eraginkortasunaren ikuspegitik, ikastetxerik eraginkorrenen artetik 23k egoera hori mantentzen dute bi ebaluazioetan eta 5ek soilik mantentzen dute eraginkortasun maila altu hori 3 edizioetan. Eraginkortasun mailarik baxuena duten ikastetxeen artetik 22k ez dute lortzen bi ebaluazioetan egoera hori gainditzea, baina bi bakarrik mantentzen dira hiru ebaluazioetan; ondorioz, 48 ikastetxek hobetu dute eraginkortasun maila ebaluazioetakoren batean.

Egonkortasuna ez da altua ikastetxeetako emaitzen eta eraginkortasun mailaren muturreko mailetan. Joera hori honela azal daiteke: ikastetxe batzuek ikasle gutxi dituzte eta ikasleen multzo aldaketek ikasle horiek ebaluazio batetik bestera lortzen dituzten puntuazioetan nabarmen eragiten dute. Hau da, 6 edo 7 laguneko taldean ikasle bakoitzak duen garrantzia 25 ikasleko taldean dagoen hark duen garrantzia baino askoz ere handiagoa da. Talde txiki batean dagoen ikasleak lortutako emaitzak taldearen batez bestekoan nabarmen eragiten du.

Emaitza altuenak eta baxuenak dituen ikastetxe mota eta horren eraginkortasuna aztertuz, ikasle kopurua kontuan hartuta, ikusten da ikastetxeen % 12k 10 ikasle baino gutxiago dituztela Lehen Hezkuntzako 4. mailan. Emaitza onak dituzten ikastetxeen banaketan horiek puntuazio altuenak dituztenen % 48 dira. Antzeko ehunekoak ageri da ikastetxe eraginkor gisa. Irakaskuntzaren pertsonalizazioak azal ditzake ikastetxe txikietako eraginkortasuna eta emaitza onak.

ISEKen eragina.

ISEK aldagaiak eragina duela eta ikasleen emaitzetan garrantzia duela frogatu da berriro ere.

Ikastetxeak eskaintzen duen Balio Erantsia.

Metodologiarekin, antolaketarekin, eskola-giroarekin... lotutako hezkuntza-faktoreek modu eraginkorren eragiten dute ikasleen emaitzetan, beren ISEK edozein izanda ere. Kasu honetan, gainera, ekarpen handiena eta txikiena egiten duten ikastetxeen artean ISEK maila guztietan kokatutako ikastetxeak daudela ere egiaztatu da.

Ebaluazioetako emaitzen egonkortasuna.

Korrelazio altua dago 2009ko eta 2010eko Ebaluazio diagnostikoko *Matematikarako konpetentziako* emaitzen artean.

Ikastetxeen % 78-% 83k emaitzak berberak mantentzen dituzte eta ikastetxeen % 15ek baino gehiagok emaitzak nabarmen hobetu dituzte 2009tik 2011ra. Bestalde, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, % 1,6k eta *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta *Matematikarako konpetentzian* % 3,3k nabarmen okertu dituzte puntuazioak.





6. EMAITZETAN IZANDAKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA





6. EMAITZETAN IZANDAKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA

6.1. EMAITZEN ALDAKORTASUNAREN ANALISIA: IKASTETXEEN ARTEKO BARIANTZA

Matematikarako kompetentzian, errendimenduan izan ohi diren aldeak ikasleen banakako aldeek, familiartekoek eta sozialek azaltzen dituzte kasuen % 88etan. Ikastetxeen arteko bariantzak errendimenduaren % 12 soilik azaltzen du Matematikarako kompetentzian. 2009ko Ebaluazio diagnostikoaren oso antzeko ehunekoak dira.

Emaitzen aldagarritasunaren azterketaren helburua hezkuntza prozesuan dauden aldaga bakoitzak zein eragin maila duen bilatzea da. Azterketa hori egiteko, garrantzitsua da emaitzen bakoitzaren eragin maila zehaztu ahal izateko nahikoa informazio izatea.

Ikasle batek emaitza jakin bat lortzeko eragina duten faktoreak zein diren jakiteko, batetik, banakako aldagaiekin lan egiten da; hau da, ikaslearen ezaugarri pertsonalekin eta familiarrekin zerikusia dutenekin. Bestalde, ikastetxeko aldagaiak aztertzen dira, hau da, ikastetxe batek besteen aurrean eskaintzen dituen ezaugarriak; ikasleek ezaugarri horiek gehiago edo gutxiago aprobetxa ditzakete.

Azterketa hau egin ahal izateko, *Matematikarako kompetentzia* aukeratu da, batez ere, horretan hizkuntza ezagutzek hainbeste ez dutelako eragiten, eta gainera, luzetarako alderaketak ezartzeko aukera ematen du, aurretik egindako beste ebaluazio batzuen datuak ditugulako.¹⁸

2009 eta 2011ko Ebaluazio diagnostikoko probetan, *Matematikarako kompetentzian, Bariantza, guztira* izeneko emaitzen aldagarritasuna osagarriak diren bi alderditan aztertzen da; batetik, ikastetxeen arteko bariantza eta bestetik ikasleari dagokion bariantza. Arlo bakoitzean hau aztertzen da:

- **Ikastetxeen arteko bariantza**, bakoitzaren ezaugarriek emaitzetan duten eraginari egiten die erreferentzia (programak, ikasleen osaera, funtzionamendu-estrategiak eta abar). Ikastetxeei dagokien bariantzaren ehuneko oso altua denean; ikastetxe bakoitzak eskaintzen duena oso desberdina dela ulertzen da. Ildo horretatik, usteen arabera, ikastetxe bat edo beste bat aukeratzeak garrantzi handia du ikaslearen hezkuntza-etorkizunean.
- **Ikasleei dagokien bariantza**, banakako ezaugarriek ikasleak lortzen dituen emaitzetan duten eraginari egiten dio erreferentzia (gaitasuna, interesa, familiako laguntza, aurreikuspen akademikoak eta abar). Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikaslearen ezaugarrietara egokitzeak ikastetxeak kontuan hartu behar dituen aldagaiak dira.

¹⁸ ISEI-IVEI. PISA 2003 Ebaluazioaren bigarren txostena. Emaitzak Euskadin. Errendimenduaren aldagarritasuna ikasleen eta ikastetxearen arabera. Hemen eskuragarri: www.isei-ivei.net

ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen eta aldagaien azterketa. Lehen Hezkuntzako 4. maila



Bi alderdi horiek bateratu egiten dira. Banakako ikuspegi batetik familiaren maila sozioekonomikoa adibide gisa hartzen baldin badugu, ikaslearen egoera akademikoak bakoitzaren bariantzan eragina du. Hala eta guztiz ere, ikastetxeko edo taldeko ikasle guztien baldintza sozioekonomikoen batez bestekoak eragin desberdina du ikastetxe bakoitzean, eta beraz, ikastetxeen bariantzari eragiten dio.

Hau da Lehen Hezkuntzako 4. mailan egindako 2011ko Ebaluazio diagnostikoak eskaintzen duen *Matematikarako konpetentziako* emaitzen araberako bariantza.

	Bariantza orokorra		Ikastetxeen arteko bariantza %	Ikasleen arteko bariantza %
	Guztira	%		
Ikasleak, orotara	2.311	100	12,3	87,7

Ikus daitekeen moduan, ikastetxeen arteko bariantza askoz ere baxuagoa da ikasleari dagokion bariantzarekin alderatuta. Ikasleei dagokien bariantzak azaltzen du guztizko bariantzaren ia % 88 eta ikastetxeen arteko bariantzak % 12 baino zertxobait gehiago azaltzen du. Hau da, *Matematikarako konpetentzian*, errendimenduan izan ohi diren aldeak ikasleen banakako aldeek, familiartekoeak eta sozialek azaltzen dituzte kasuen % 88etan.

Jarraian, datu horiek Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek egindako 2009ko Ebaluazio diagnostikoko datuekin eta PISA 2003 ebaluazioko datuekin alderatzen dira ¹⁹ (15 urteko ikasleek eginda eta *Matematika* arloan zentratuta).

	Bariantza orokorra %	Ikastetxeen arteko bariantza %	Ikasleen arteko bariantza %
ED11- 4. LH	100	12,3	87,7
ED09- 4. LH	100	11	89
ED11- 2. DBH	100	16,9	83,1
ED09- 2. DBH	100	16,5	83,5
PISA* 2003 Euskadi	100	15	85
PISA* 2003 ELGA	100	33	67,6

*15 urteko ikasleak

Ebaluazio diagnostikoa egindakoetatik ikastetxe desberdinak eta adin desberdineko ikasleak diren arren, taulan ikus daiteke Euskadin bariantzak ia-ia ez direla aldatu 2003 eta 2011. urteen artean eta 2003. urteko ELGAko herrialdeen batez bestekoa baino nabarmen baxuagoak direla ²⁰; urte hartan, ikastetxeek azaldutako bariantza % 33koa zen, hau da, ikastetxeak emaitzetan duen eragina bikoitza baino handiagoa da. Ikastetxeen arteko bariantzaren ehunekoak zenbat eta altuagoa izan, ikaslea eskolatzeko ikastetxe bat edo beste bat aukeratzeak orduan eta garrantzi handiagoa du.

Euskadiko datuen arabera, ikastetxeek eragin antzeko samr sortzen dute ikasleen ikaskuntzan.

¹⁹ 2006 eta 2009 urteetako edizioetan, ebaluatu ziren arloak Zientziak eta Irakurketa izan ziren, hurrenez hurren.

²⁰ Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (ELGA)



6.2. EMAITZETAN IZANDAKO ALDEAK AZALTZEKO EREDUA

Matematikarako konpetenziaren emaitzetan aldagaiek duten garrantzia eta eragina ezagutzeko, bi mailatako azterketa hierarkikoa egin da; horren araberakoa da ikasleak lortutako emaitzari egindako ekarpena:

- Banakako izaera duten aldagaiak.
- Ikaslea eskolatuta dagoen ikastetxeari erreferentzia egiten duten aldagaiak.

Aldagaien banakako azterketan eta horien guztien azterketa bateratuan, gehien eragiten duten aldegaiak honakoak dira: ikasmailerako adin egokian eskolatuta egotea eta ISEK-en balioa (banakakoa eta ikastetxeetakoa) dira gehien eragiten duten aldagaiak. Egoera hori bera gertatzen zen 2009ko ebaluazioan ere.

Hauek dira *Matematikarako konpetenzian* emaitzak azaltzeko eragina duten aldagaiak:

Banakako aldagaiak

Aldagaia	Deskribapena	Aukerak
Jaiotza-urtea*	1999=2; 2000=1; 2001=0	-2; -1; 0
Etorkina	Etorkina ez dena= 0; Etorkina= 1	0; 1
ISEK	Banakako indize sozioekonomikoa eta kulturala: (-3,53 eta 2,06 artean)	-3,53etik 2,06 artean
Sexua	Neska= 0; mutila= 1	0; 1
Etxeko hizkuntza: Euskara	Euskara= 1; Euskara ez dena= 0	0; 1
Probako hizkuntza: Gaztela	Gaztelania= 1; Euskara=0	0; 1

Ikastetxearen aldagaiak

Aldagaia	Deskribapena	Aukerak
Etxeko hizkuntza: Euskara (ikastetxea) **	Ikastetxe osoak Euskara= 1 Ikastetxe osoak Euskararik ez= 0	0 eta 1 artean
Ikasle kopurua ikastetxean	Ikasleak ikastetxean	1 eta 148 arten
Ikastetxeko batez besteko ISEK	Ikastetxearen batez besteko indize sozioekonomikoa eta kulturala	-3,53 eta 1,1 artean


*Errepikapenarekin lotutako aldagaia da, baina ez da zehazki berbera.

**0 eta 1 arteko balioa da eta euskara etxeko hizkuntza aldagaiaren balioen batez bestekoa kalkulatuaz lortzen da. 1ek adierazten du ikasle guztien etxeko hizkuntza euskara dela eta 0k adierazten du ikasleek euskara ez den beste etxeko hizkuntza bat dutela.



A. MODU INDEPENDENTEAN AZTERTUTAKO ALDAGAIEN EREDUA

MODU INDEPENDENTEAN AZTERTUTAKO ALDAGAI BAKOITZAREN EFEKTUA



Gutxienez 12 ikasle dituen ikastetxe bati dagokion gutxienezko balioa hartu da

Grafikoak aintzat hartutako aldagaien emaitzei emandako ekarpenak biltzen ditu banaka. Beraz, interpretatzeko, kontuan izan behar da ekarpen bakoitza emaitzei eragingo dien bakarra izango balitz bezala hartzen dela. Horrela, aldagaiaren balioa 0 denean *koefizienteak* ikasle batentzat esperotako puntuazioa adierazten du. Balio horri aztertutako aldagaiaren efektu zehatza gehitu edo kendu beharko litzaioke, ikaslearen balioaren edo eskolatuta dagoen ikastetxearen arabera.

Aldagaia	Koefizientea (Puntuazioa)	Aldagaiaren ekarpena
Jaiotza-urtea	256	40,2
Etorkina	254	-22,6
Banakako ISEK	255	15,6
Sexua	249	5,5
Etxeko hizkuntza: euskara	248	18,5
Probako hizkuntza: gaztelania ²¹	253	-3,9
Etxeko hizkuntza: euskara (ikastetxea) ²²	245	29,7
Ikasle kop. (ikastetxea/eredua)	243	0,2
Batez besteko ISEK (ikastetxea/eredua)	251	22,2

Adibidea:

Ikaslea Euskadiko batez bestekoaren berdina (0) den ISEK duen ikastetxe batean eskolatuta dagoenean, *Matematikarako konpetentzian* 251 puntu izatea espero da.

²¹ Aldagai independente gisa aztertuta, proba gaztelaniaz egin izanak 3,9 puntu murrizten du.

²² Lehen Hezkuntzako 4. mailako ebaluazioan parte hartu duten eta etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoari egiten dio erreferentzia. Ikasleen gutxizkoa da maximoa, gutxienezkoan ez dago etxeko hizkuntza euskara duen ikaslerik.



ISEK baxuko ikastetxe batean eskolatuta baldin badago, puntuazioa murriztu egingo da. Esate baterako: demagun ikastetxeko ISEK (-1) dela; hortaz, esperotako puntuazioa, hori izango balitz emaitzei eragingo liekeen aldagai bakarria ia 229 puntukoa izango litzateke (251-22,2).

ISEK positiboa duen (1) ikastetxe batean egonez gero, esperotako puntuazioa koefizientekoa baino altuagoa izango da, 251 puntuazioa + 22,2 aldagaiaren ekarpena; hau da, 273,2 puntu.

Neskek 249 puntuko (sexuaren aldagaian banakako aldagaien taularen deskribapenean ikus daitekeen moduan, neska = 0) esperotako puntuazioa dute eta mutilek 5,5 batuko lituzkete, hau da, 254,5 puntu lortuko lituzkete.

Ikasle etorkinen kasuan, 231,4 puntuko esperotako puntuazioa dute eta ikasle natiboek 254 puntukoa.

Ikaslearen banakako etxeko hizkuntza euskara ez den beste bat denean, 248 puntuko puntuazioa espero da eta hizkuntza euskara baldin bada (+18,5), puntuazioa 266,5 puntukoa da.

Banakako ISEKek ikastetxeko ISEKek bezala funtzionatzen du:

Ikastetxeko batez besteko ISEK "0" denean, esperotako puntuazioa 251 puntukoa litzateke. ISEK - I izango balitz, puntuazioa 228,8 litzateke eta I izango balitz, 273,2 puntu izango lituzke. Banakako ISEK (255) -I baldin bada (255-15,6)

2001ean jaio direnek eta adin-egokitasun egoeran Lehen Hezkuntzako 4. maila egiten ari direnek 256 puntuko esperotako puntuazioa dute. Adina izango balitz emaitzei eragingo liekeen aldagai bakarria, lehenago jaiotako ikasle guztiak adin-egokitasun egoeran ez dauden urte bakoitzeko 40,2 puntu gutxiagoko esperotako puntuazioa izango lukete, hau da, 215,8 puntu 2000. urtean jaiotako ikasleek eta 175,6 puntu 1999an jaiotakoek.

Ikastetxeko batez besteko etxeko hizkuntzak eta *Matematikarako konpetentziako* probarako erabilitakoak eragina dute emaitzetan:

Ikastetxeko batez besteko etxeko hizkuntza hauen artekoa zabaltzen da: mutur batean, ikasle guztiak etxean euskara ez den hizkuntza hitz egiten duten egoera dute (ikastetxe guztiak euskararik ez = 0, ikastetxeko aldagaien taulan) eta 245 puntuko esperotako puntuazioa izango lukete, eta bestean, ikastetxeko ikasle guztiak beste etxeko hizkuntza bat izango lukete, hau da, euskara, 274,7 puntuko esperotako puntuaziorekin.

Probako hizkuntza ere 253 puntu artekoa da ikasleak euskaraz egiten duenean eta 249,1 puntukoa ikasleek proba gaztelaniaz egiten dutenean.

Ikastetxe bateko ikasleen kopurua positiboa da beti. Balioak I ikasle duen ikastetxe baten eta 148 ikasle dituen beste baten artekoak dira. Horrela, hori hartuko balitz emaitzen aldagai eraginkor bakar gisa, 25 ikasleko ikastetxe baterako, esperotako puntuazioa beste 0,2 puntukoa izango litzateke ikasle bakoitzeko; beraz, 243+5 puntu.

Informazio hau garrantzitsua da aldagai batzuen efektuak banaka ulertzeko; hala ere, errealagoa da eredia modu bateratuan aztertzea, hau da, aldagai guztien efektua elkarreraginean aztertuz.



B. ALDAGAIEN AZTERKETA BATERATUAREN EREDUA

Elkarreraginean dauden aldagaien azterketan, ikasmailarako egokia den adinean eskolatuta egoteak, banakako ISEKek eta ikastetxekoak, eredu bateratuak bermatutako bariantza orokorraren % 16,8 azaltzen dute.

Banaka hartutako aldagaien funtzionamendua aztertu ostean, horietako bakoitzak emaitzetan eragiten duen bakarra izango balira bezala, eta ekarpen adierazgarria dutenak ezarri ondoren, elkarreraginean ari diren aldagai guztie *Matematikarako konpetentziako* emaitzetan modu bateratuan duten efektua aztertzen da.

Eredu bateratua bariantzaren zati garrantzitsu bat azaltzeko gai da, taulan ikus daitekeen moduan:

EDII-LH4. Bariantza. Matematikarako konpetentzia

	Guztira	Amaierakoa	Amaierako ehunekotan	Azalduta
Bariantza orokorra	2.311	1.874	100	18,9
Ikastetxeen arteko bariantza	284	98	5,2	65,6
Ikasleen arteko bariantza	2.027	1.776	94,8	12,4


Aldagai multzo hau emaitzen aldagarritasunaren % 18,9 azaltzeko gai da, batez ere % 5,2ra murriztuta geratzen den ikastetxeen arteko alderagarritasuna, ikastetxeen arteko jatorrizko bariantzaren % 65,6 murriztu ostean.

Hurrengo grafikoak azalpen-eredu bateratu honetan aztertutako aldagai bakoitzak *Matematikarako konpetentziaren* emaitzetan duen eragina erakusten du, hau da, batzuek besteekin batera elkarreragiten dutenean.

Grafikoan ikus daitekeen moduan, 243,4 puntuko puntuazioa ikasturtea errepikatu ez duen neska natibo bati legokioke -2001ean jaioa-, ISEKeko maila indibiduala eta ikastetxekoa Euskadiko batez bestekoan izanik, gelakideek euskara hitz egiten ez duten ikasgela batean dago eta etxeko hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat du; eta proba euskaraz egin du.



MODU BATERATUAN AZTERTUTAKO ALDAGAIEN EFEKTUA



Konfiantza maila: “etorkina” eta “ikastetzeko ikasle kopurua” aldagaietan % 90ekoa da, gainerakoetan % 95ekoa.

Hurrengo taulan, 243,5 puntuko konstanteari gehitu edo kendu beharko litzaiokeen balioa ikus daiteke, aztertutako aldagai bakoitzaren efektuaren arabera -ekarpena edo aldentzea-.

	Aldagaiaren ekarpena
Jaiotza-urtea	30,3
Etorkina	-3,2
Banakako ISEK	12,3
Sexua	6,5
Etxeko hizkuntza: euskara	9,5
Probako hizkuntza: gaztelania	6,8
Ikastetzeko ikasle guztien edo eredia euskara dutenen etxeko hizkuntza ²³	15,4
Ikasleen kopurua (ikastetxea/eredua)	0,05
Batez besteko ISEK (ikastetxea)	3,9
Konstantea, 243,5 puntu	

Adibidea:

Mutikoa izanez gero, 243,5 puntuko puntuazio konstanteari 6,5 gehituko litzaioke; 2000. urtean jaio izan balitz 30,3 puntu kenduko litzaizkioke; 25 ikasleko ikastetxe batean egongo balitz, 1,25 puntu -0,05 ikasleko- batuko litzaizkioke; Ieko banakako ISEK izango balu, 12,3 puntu batuko litzaizkioke, probako hizkuntza euskara izango balitz, 6,8 puntu kenduko litzaizkioke. Gainera, ikastetzeko ISEK Euskadiko batez bestekoan egongo balitz; ikaslea natiboa izango balitz eta etxeko hizkuntza euskara

²³ Gehienekoa, ikasle guztiek etxeko hizkuntza hau dute; gutxienekoa, ez dago etxeko hizkuntza hau duen ikazlerik.



izango ez balitz, eta ondorioz, aldagai hauen balioa 0 izango litzateke eta aldagai horiek ez lukete puntuazioan eragingo. Ikasle hipotetiko honen azken puntuazioa, deskribatutako baldintzekin, 226,5 puntutan geratuko litzateke.

Eredu honetan, aldagai bakoitzak eskaintzen duena modu independentean hartutako aldagai bakoitzaren analitik ondorioztatu denetik oso desberdina da. Aldagai hauen balioak egokitzen dira; izan ere, emaitzen aldagarritasuna azaltzen duten faktore desberdinen arteko elkarrekintza nabari da.

Aldagai hauen garrantzia nabarmendu behar da: Ikasmailarako egokia den adinean eskolatuta egotea, baita banakako eta ikastetxeko ISEKen balioa ere. Hain zuzen ere, hiru aldagai horiek soilik azaltzen dute bariantza orokorraren % 16,8.

ALDAGAI BAKOITZAREN EKARPENETAN IZANDAKO BILAKAERA AZTERKETA BATERATUAREN EREDUAN. ED09-ED11

Jarraian, aldagai jakin batzuen eragina aztertu den bi ebaluazioen taula alderagarria ikus daiteke; batera aztertu dira eta ikasleek *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioak hartu dira aintzat.

	ED09	ED11
Jaiotza-urtea	33,1	30,3
Etorkina	-8,5	-3,2
Banakako ISEK	10,4	12,3
Sexua	2,7	6,5
Etxeko hizkuntza: euskara	7,6	9,5
Probako hizkuntza: euskara²⁴	-10,6	-6,8
Ikastetxeko ikaslearen etxeko hizkuntza: euskara	11,8	15,4
Ikasleen kopurua (ikastetxea/eredua)	0,09	0,05
Batez besteko ISEK (ikastetxea)	4,6	3,9

Eguno ebaluazioaren edizioan honako aldagaien eragina murrizti egin da: *jaiotza-urtea* (ikasmailako adin-egokitasuna), *etorkina* izatea, *probako hizkuntza*, *ikastetxeko ikasle kopuruak* eta *ikasleen batez besteko ISEK*. Bestalde, gainerako aldagaien eragina igo egin da: *ikaslearen banakako ISEK*, *ikaslearen sexua*, *etxeko hizkuntza euskara* izatea.

²⁴ 2009. urteko ebaluazioan, *probako hizkuntza banakako* aldagaiaren deskribapenean, euskaraz egin izanaren balioa =1 eta gaztelaniazkoa=0; bien bitartean, 2011ko edizioan, balioak aldatu egin dira: gaztelania=1 eta euskara=0. Hori dela eta, taula honetan ikur negatiboarekin ageri da "*probako hizkuntza euskara*" aldagaiaren ekarpena.



7. IKASTETXEAREN GALDERA-SORTA





Ikaslearen emaitzen azterketen osagarri gisa, horietan gehien eragiten duten aldagaiak eta ikastetxeen ezaugarriak aztertuz, jarraian, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan garrantzitsuak diren arlo batzuei buruzko datuen deskribapena egiten da. Zuzendaritza-taldeek bete beharreko ikastetxeko galdetegian bildu dira arlo horiek.

7.1. Zuzendaritza-taldeek ikastetxeetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen arloari buruz duten pertzepzioa

2011ko Ebaluazio diagnostikoko ikastetxeko galdetegiko atal batek Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxean irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin zerikusia duten arloei buruzko zuzendaritza-taldeen informazioa biltzen du.

Ikastetxeko dokumentuetan biltzen diren zenbait arloren **berrikusketari, diseinuari eta garapenari** dagozkion erabakiak hartzeko moduari dagokionez, zuzendaritza-taldeen % 85ek baino gehiagok dio lan horiek guztiak edo ia guztiak elkarrekin egiten dutela. % 70 soilik iristen da etapako hizkuntza-proiektua modu horretan egitera. Erantzunak letik 4ra doaz: *erabakia ez da taldean hartu* (1) erantzunetik *erabakia taldean hartu da guztiz* (4) erantzunera

	1 Taldeen ez	2 Taldeen zerbait	3 Taldeen asko	4 Taldeen guztiz
Ikastetxeko Curriculum Proiektuaren berrikusketa-eguneratzea	1,9	7,8	35,3	51
Arloko programazioaren (AP) diseinua eta garapena	1,6	12	42,6	42,1
AP ebaluatzeko irizpideak zehaztea	0,8	10,3	41,9	45,3
AP garatzeko materialak eta baliabideak aukeratzea	0,8	7,8	45,3	44,4
Hizkuntza Proiektua egitea-berrikustea	3,3	13,8	34,9	35,7

% 100 arte falta diren ehunekoak ed/ede-ri dagozkie

Osatzen duten lau dimentsioen garapenari dagokionez hizkuntzetan (euskara-gaztelania-ingelesa) laneko irizpide komunak dituzten ala ez, ikastetxeen erantzunak hauek dira:

	Gutxi/batere ez	Nahikoa	Asko
Entzumenaren garapena	19,8	55,1	23
Mintzamenaren garapena	19,4	53,3	24,9
Irakurmenaren garapena	18,1	51	28,8
Idazmenaren garapena	17,7	55,1	24,9

% 100 arte falta diren ehunekoak ed/ede-ri dagozkie

Nahikoa eta asko ehunekoak batuz, nabari da ikastetxeen ia % 80an hiru hizkuntzen lau arloak lantzeko irizpide komunak daudela.

Zuzendaritza-taldeei ikasgelako **taldekatzeak** egiteko irizpideen ganean galdetu zaie eta ikastetxeen % 56k diote mutilen eta nesken arteko oreka hartzen dela kontuan; ia % 47etan ikaslearen heterogeneotasuna errespetatzea da irizpidea; kasuen % 35etan irizpideak hizkuntzazkoak dira.



	%
Ordena alfabetikoa	10,8
Mutilen eta nesken oreka	56,6
Hizkuntza arrazoiak	35,3
Errendimendu akademikoa	20,8
Homogeneotasuna ikaslearen ezaugarrien arabera	9,2
Ikasleen arteko heterogeneotasuna	47,2
Lerro bakarra dago	30,1
Beste batzuk	21,8
EE/ED	1

Lehen Hezkuntzan **tutoretzak esleitzeko moduari** dagokionez,, kasuen % 79tan baino gehiagotan lehenesten den irizpidea zikloan irakasleek jarraitzea da, eta ikastetxeen % 52tan ikasle berberekin ordu gehien pasatzen dituzten irakasleei esleitzen zaie.

	%
Irakasleen lehentasunak	33,1
Ikasleekin ordu gehien ematen dituzten irakasleak	52
Zikloan esperientzia gehien duten irakasleak	34,9
Zikloan irakasleak jarraitzea	79,6
Lanaldi osoko irakasleak	35,5
Antzintasuna	28,1
Txandaka	9,1
Beste batzuk	20,8
EE/EDE	0,2

Ikastetxeko **irakasleek** ikasleei dagokienez duten **jarrerarekin** lotuta adostasun mailari buruz galdetu zaie zuzendaritza-taldeei eta gehien errepikatzen diren erantzunen ehunekoa taula honetan biltzen da:

	Ados ez	Ados	Gutziz ados
Gaitasun guztia garatzeko motibatzen die	1,8	57	39,1
Ikasleei dagokienez aurreikuspen handiak ditu	10,5	66,5	18,7
Banakako beharrei aurre egiten die	5,6	56,4	36
Berrikuntzarako eta aldaketarako prest dago	17,1	60,9	17,4
Ikaskuntzako hainbat mailatarako prozesuak garatzen ditu	7,2	66,3	23,3
Hainbat jatorritako ikasleentzako prozesuak garatzen ditu	8,5	62,8	21,4

% 100 arte falta diren ehunekoak ed/ede-ri dagozkie

Irakasleak aldaketarako eta berrikuntzarako prest egoteak sortzen du zuzendaritza-taldeetan desadostasun gehien (% 16,5 ez dago ados). Hauek dira adostasun handiena sortzen dutenak:



irakasleek ikasleak motibatzen ditu (% 96,1 ados eta guztiz ados) eta banakako beharrei aurre egiten die (% 92,4).

Taulan ageri dira **irakasleen prestakuntza-planetan** ikastetxe gehienek lantzen dituzten gaiak:

	% erantzunak
Eskola 2.0. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	76,9
Gai metodologikoak	72,6
Hizkuntza arlokoak	61,1
Curriculum-gaiak	59,9
Elkarbizitza-plana	50,9

Ehunekoa ikastetxeen % 50ek gainditzen duten trebakuntza-gaiak soilik aipatzen dira.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 93tan irakasleen prestakuntza-plan bat zegoen 2010-2011 ikasturterako. Ikastetxe horien % 76tan parte hartzen duen irakasleen ehunekoa % 90 eta % 100 bitartekoa da.

Prestakuntza-planez gain, **beste prestakuntza-ekintza batzuk** egingo dituzten galdetu zaie. Ehunekorik altuenak dituztenak biltzen dira taulan.

	% erantzunak
Irakasteko gaitasuna hobetzea	79,8
Arlo berebereko irakasleen artean praktika berrikustea	58,6
Ikasgela berean bi irakasleek aldi berean parte hartzen duten irakaskuntza-prozesuak	46,9
Zuzendaritza Taldearen lidergo gaitasunak hobetzeko zehatzak	41,4

Jarraian, ikastetxeek **prestakuntza-planak garatzen dituzten erakundeek** gainean emandako informazioa biltzen da eta interpretatzeko garaian kontuan hartu behar da galdera hauei emandako erantzunak ez direla baztertzailak.

	Ikastetxe publikoak	Itunpeko ikastetxeak
Berritzegunea	93,7	85,5
Unibertsitatea	5,6	19
Prestakuntzako erakunde pribatuak	23,5	79
Hainbat zentzoren arteko prestakuntza	21	43
Modu autonomoan	46,7	48,5
Beste batzuk	9,4	19,5

Berritzegune da ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan presentzia handiena duen erakundea. Itunpeko ikastetxe kopuru handi batek (% 79) prestakuntzako erakunde pribatuekin ere egiten ditu jarduerak. Zuzendaritza-talde guztien % 47 inguruk jarduerak modu autonomoan egiten dituzte.

7.2. Zuzendaritza-taldeek ikastetxeko elkarbizitza eta ikaskuntza arloei buruz duten pertzepzioa

Zuzendaritza-taldeak betetako galdetegian elkarbizitzarekin lotutako egoeretan eragiten duten eta ikasleen ikaskuntzari eragin dien arloei buruzko informazioa biltzera zuzendutako hainbat gai daude.



Irakasleek ikastetxean duten egonkortasuna aztertzen da lehenik, eta horrela, ikusten da Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko aldea adierazgarria dela. Itunpekoen % 52,5etan ez da irakasle-aldaketarik izan azken urtean, hau da, itunpeko ikastetxeen % 50 baino gehiagotan langileen multzoa inolako aldaketarik gabe mantendu da. Ikastetxe publikoetan aldiz, % 7,4an soilik mantendu da.

Taulan, alde batetik, azken urtean izandako aldaketen ehunekoak ikus daitezke, eta bestetik, azken hiru urteetan langile multzoak izan duen egonkortasuna. Datuak galdetegiko galdera erantzun duten Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztienak dira (508).

	Azken ikasturtea	Azken 3 ikasturteak
Ez da aldaketarik egon	25	12,6
Langile guztien % 25 aldatu da	51,8	49
% 26tik langileen erdira	15,7	20,7
51tik langileen % 75era	3,7	10,2

Ez dira ED/EEri dagozkion ehunekoak eta % 75etik % 100era arteko aldaketak ageri.

Hurrengo taulan azterketa egin da, baina ikastetxeen titulartasunaren arabera eta azken urtean egindako aldaketak soilik hartu dira kontuan.

	Ikastetxe Publikoak	Itunpeko ikastetxeak
Ez da aldaketarik egon	7,4	52,5
Langile guztien % 25 aldatu da	55,8	45,5
% 26tik langileen erdira	25,8	0
51tik langileen % 75era	5,5	1

Ez dira ED/EEri dagozkion ehunekoak eta % 75etik % 100era arteko aldaketak ageri.

Datuen arabera, titulartasun publikoko ikastetxeetako langileen egonkortasun maila baxuagoa da itunpeko sareetakoak baino.

Ikaskuntza zailtzen duten egoerei buruz galdetu zaie, "Batere ez" eta "gutxi" eta "nahikoa" eta "asko" erantzunak batuz biltzen dira erantzun gehienak taulan.

	Batere ez/Gutxi	Nahikoa	Asko
Ikasleen absentismoa	83,3	4,1	11,6
Ikasleak berandu iristen dira behin eta berriz	73,7	9,8	5,5
Ikasleek ez die errespeturik irakasleei	84,5	6,5	7,9
Ikaslearen jarrera disruptiboak	71,1	14,2	11,4
Ikasleen arteko tratu txarra	84,3	6,5	7,7
Ikaslearen interesik eza	59,3	24,4	15
Ikaslearen integrazio-arazoak	79,7	10,4	8,3
Irakasleak-ikasleak harreman urria	85,9	5,3	6,7
Irakasleak maiz falta dira	81,7	9,3	7,7
Taldean, irakasleak maiz ordezkutzen dira	70,1	17,5	11,2
Ikastetxean ordezkapen gehiegi egiten dira	67	17,7	13,4
Familiaren parte hartzea falta da	56,3	26,6	16,1

Ez dira ED/EEri dagozkion ehunekoak ageri



Taulan ikus daitekeen moduan, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ia % 40ren ustez, ikaskuntza nagusiki zailtzen duten egoerek familiaren inplikazio-gabezia eta ikaslearen interesik eza dute atzean; egoera horiek, hasiera batean, ikastetxetik kanpokotzat har daitezke. Jarraian, galdera hau erantzun duten ikastetxeen % 30 ingururen ustez, ikastetxean eta ikasgela batean irakasleen ordezkapenei buruzko egoerek ere ikaskuntza zailtzen dute.

Ikasleen artean gatazkek izan dezaketen bilakaerari dagokionez, azken hiru urteetan, zuzendaritza-taldeek informazioak erakusten du % 44ren ustez berdin mantendu direla, ia % 38k dio zertxobait edo nabarmen egin dutela behera eta % 12ren ustez gora egin dute. Ikastetxeen % 6k ez daki edo ez du erantzuten.

	% erantzunak
Nabarmen murriztu dira	11,9
Zertxobait murriztu dira	25,9
Mantendu egin dira	44,3
Zertxobait gora egin dute	10,8
Nabarmen egin dute gora	1,1

Ez dira ED/EDeri dagozkion ehunekoak ageri

Arazoak saihesteko eta elkarbizitza hobetzeko egiten diren **jarduerak** aztertzeko, zuzendaritza-taldeei galdera jakin batzuk planteatzen zaizkie eta honela erantzuten diete:

	% erantzunak
Irakasleak prestatu eta koordinatzea elkarbizitzari erantzuteko	58,8
Elkarbizitzari buruzko programetan parte hartzea	48,6
Tutoretzetan, elkarbizitza-programetan, elkar ezagutzetan... lan egitea	89,1
AJA eguneratzea ²⁵	65,2
Metodologia parte hartzaileago baten alde egitea	51,5
Ikastetxearen antolakuntzan irakasleen parte hartzearen alde egitea	60,8
Beste batzuk	17,1

Edonola ere, Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 53k baino zertxobait gehiagok ez du ikasleen artean **gatazka arinengatiko zigorrik** jarri behar izan edo 1-3 aldiz egin behar izan du, eta % 87k ez du egin beharrik izan edo 1-3 aldiz egin behar izan du ikasturtean huts egite larriak egin dituztelako.

	Inoiz ez	1-3 aldiz	4-6 aldiz	7-10 aldiz	10 baino gehiagotan
Hutsegite arinengatiko zigorrik	22,9	30,6	15	9,5	18,6
Hutsegite larriengatiko zigorrik	57,1	30,4	6,5	3,2	0,4
Hutsegite oso larriengatiko zigorrik	85,4	8,9	2,6	0,4	0,4
OOG edo EK izapidetutako aldi baterako kanporatzeak ²⁶	90,1	6,5	1	0,4	0
Poliziari egindako salaketak	97,6	1	0	0	0
Ikastetxearen aldaketa	94,3	4,2	0	0	0,2

²⁵ Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA)

²⁶ Ordezkaritza Organo Gorena (OOG). Eskola Kontseilua (EK)



Gai horri buruzko azterketak osatzeko datuak ISEI-IVEIk berdinen arteko tratu txarren gainean edo Bullyingaren gainean egindako ikerketetan biltzen dira.²⁷

²⁷ ISEI-IVEI (2010eko iraila). Berdinen arteko tratu txarra Euskadin. www.isei-ivei.net



8. ONDORIO OROKORRAK





TXOSTENAREN ONDORIO OROKORRAK

Konpetentzietako errendimenduari dagokionez, honakoa ondorioztatzen da:

- ✓ 2011ko Ebaluazio diagnostikoan Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortutako emaitzak hiru edizioen artetik altuenak dira, baina 2009. urteko Ebaluazioan lortu zituztenekiko soilik dira nabarmen altuagoak. Errendimenduko maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa egindako hiru ebaluazioen artetik altuena da.
- ✓ *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* batez besteko emaitza 2009. urteko Ebaluazioan baino nabarmen altuagoa da eta 2010eko puntuaziokoaren berdina da. Errendimenduko maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa 2009koaren berdina eta 2010ekoa baino baxuagoa da.
- ✓ *Matematikarako konpetentzian*, edizio honetako puntuazioa aurreko bi urteetakoa baino nabarmen altuagoa da. Errendimendu maila aurreratuko ikasleen ehunekoa hiruren artetik altuena da.
- ✓ *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, itunpeko hiru geruzek 250 puntuko ezarritako batez bestekoa gainditzen dute. Geruza hauetan, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa % 30 eta % 47 artekoa da.

Ikasleen errendimenduan aztertutako aldagaien eraginari dagokionez, honako hau ondorioztatzen da:

- ✓ Ikasleak lortutako emaitzetan indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) eragina neutralizatzen denean, honako hau ikusten da:

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, B geruza publikoak ISEKen arabera dagokion puntuazioa lortu du; A eta D geruza publikoak eta itunpeko D geruzak beraiei dagozkienak baino puntuazio baxuagoak lortu dituzte, eta itunpeko A eta B geruzek ISEK mailaren arabera dagokiena baino puntuazio altuagoa lortu dute.

Matematikarako konpetentzian, hiru geruza publikoek ISEKen arabera esperotako baino puntuazio baxuagoa lortu dute; itunpeko D geruza esperotakoaren gainetik dago eta itunpeko A eta B geruzek dagokien puntuazioa lortu dute.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, itunpeko hiru geruzek ISEK mailen arabera bakoitzerako esperotako baino puntuazio altuagoa lortu dute.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, hizkuntza-eredua oso garrantzitsua da ikaslearen emaitzetan. Hiru ereduaren arteko aldea adierazgarria da. D eredia soilik kokatzen da batez bestekoaren gainetik. Egoera hori ebaluazio guztietan eta unera arte egindako azterketetan antzematen da.



- ✓ *Euskarazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan, neskek mutilek baino emaitza nabarmen altuagoak lortu dituzte, gaztelanian puntuazio berbera lortu dute eta Matematikarako kompetentzian, mutilek emaitza nabarmen hobek lortu dituzte.*
- ✓ *Ikasleen % 92 adinaren arabera dagokion mailan dago eta bakoitzari dagozkion batez bestekoak baino emaitza hobek lortzen ditu kompetentzia guztietan. Egoera berbera antzematen da ebaluazioaren aurreko edizioetan ere.*
- ✓ *Batxilergoa edo goragoko ikasketa mailak (% 67) dituzten gurasoen seme-alabek bakoitzaren batez besteko orokorra baino emaitza altuagoak lortzen dituzte kompetentzia guztietan. Puntuazio horiek ageri dira amek unibertsitateko ikasketak (% 35) dituztenean eta batez bestekora hurbiltzen dira Batxilergoko ikasketak edo ikasketa baliokideak (% 37) dituztenean. Amek oinarrizko ikasketak soilik dituzten ikasleek lortzen dituzte emaitzarik baxuenak kompetentzia guztietan.*
- ✓ *Atzerritar jatorria duten ikasleek (% 6,7) kompetentzia bakar batean ere ez dute batez besteko orokorra lortzen. Hala eta guztiz ere, aurreko bi edizioekin alderatuta, emaitzak nabarmen hobetu dituzte hiru kompetentzia egonkorretan. % 70 bere adinari dagokion irakasmilian dago (adin-egokitasun egoera). Ikasle etorkinen pilaketak ez du eragin negatiborik bertako gelakideen emaitzetan, baina negatiboa da atzerritar jatorri duten ikasleentzat.*
- ✓ *Korrelazio positiboa nabari da Matematika arloan ikasleak ikasgelan lortu dituela dioen kalifikazioen eta Matematikarako kompetentzian hiru edizioetan Ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioen artean. Ikasleen % 93k adierazi du nahikoa eta bikain arteko nota atera duela ikasgelan. % 56k oso ongi edo bikain lortu zuen. % 7 ez zen nahikora iritsi. Datu horiek adierazten dute nahikora iristen ez den ikasleen ehunekoak gora egin duela (% 2 gutxi gorabehera) eta maila altukoetan ehunekoak behera egin duela (% 9 gutxi gorabehera)*
- ✓ *Irakasleek ikaslea eskolatuta dagoen taldeari esleitutako “batez besteko maila akademikoak” ikasgelan Matematika arloan lortzen dituen kalifikazioak baldintzatzen ditu. Egoera hori egindako Ebaluazio diagnostikoaren hiru edizioetan berresten da.*
- ✓ *Lehen Hezkuntzako 4. mailan, Matematikarako kompetentzian ikaslearen etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza desberdinak direnean, ikasleek bi hizkuntza berdina direnean baino errendimendu nabarmen baxuagoa lortzen dute. Gertaera hori errepikatu egiten da orain arte egindako azterketa eta ebaluazio guztietan.*
- ✓ *Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek arabera, ikastetxeko zenbait antolaketa arloen eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren berrikusketa, diseinua eta eguneratzeari buruzko erabakiak elkarrkin hartzen dituzte ia beti edo beti (ikastetxeen % 85 ingurutan). Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 93tan prestakuntza plan bat zegoen 2010-II ikasturtean eta horien artetik % 76tan hartu zuen parte irakasleek % 90-% 100ek.*



- ✓ **Elkarbizitza eta ikaskuntzarekin lotutako arloei dagokienez, zuzendaritza-taldeek jakinarazten dute itunpeko ikastetxeen % 52tan azken urtean ez dela irakasleetan aldaketarik izan; egoera hori bera ikastetxe publikoen % 7an soilik antzematen da. Ikasleen ikaskuntza zailtzen duten egoera gisa, ikastetxeen ia % 43k aipatzen du "familiaren parte-hartze gabezia" eta % 39k aipatzen du "ikaslearen interesik eza".**
- ✓ **Aldagaien banakako azterketan eta horien guztien azterketa bateratuan, ikasmailarako adin egokian eskolatuta egotea eta ISEKen balioa (banakakoa eta ikastetxeetakoa) dira gehien eragiten duten aldagaiak. Egoera hori bera gertatzen zen 2009ko ebaluazioan ere.**

Ikastetxeek 2009ko, 2010eko eta 2011ko ebaluazioetako emaitzen eta eraginkortasunaren arabera duten bilakaerari dagokionez, honako hau nabarmendu daiteke:

- ✓ **ISEKek ikasleen emaitzetan duten eragina.**
- ✓ **Balio erantsiari dagokionez ikastetxeak egindako ekarpenaren garrantzia; izan ere, ikastetxe eraginkorrenen nahiz eraginkortasun mailarik baxuenekoen artean ISEK maila guztietako ikastetxeak daude.**
- ✓ **Egonkortasun handia emaitzetan; izan ere, hiru ebaluazioetan ebaluatutako hiru kompetentzietan emaitzak nabarmen aldatzen ez diren ikastetxeen ehuneko oso altua da (% 78 eta % 83 artean).**